

Jai parekide eta barneratzaileak Oarsoaldeko udalerrietan:

Jaien inguruko diagnostiko- txostena eta esku-hartzeko plangintza

2017ko abendua

*Oarsoaldean
jai = zaleak*

elhuyar
Aholkularitza





1.	Sarrera.....	3
2.	Egindako prozesuaren deskribapena.....	5
	2.1. Prozesuaren helburuak.....	5
	2.2. Lanerako oinarriak.....	5
	2.3. Egin diren bilerak eta lanak.....	8
	2.4. Egindako prozesuaren komunikazioa.....	20
	2.5. Egindako prozesuaren eta emaitzaren balorazioa.....	22
3.	Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa.....	25
	3.1. Errenteria.....	25
	3.2. Oiartzun.....	70
	3.3. Lezo.....	103
	3.4. Pasaia.....	130
	3.5. Ondorio orokorrak.....	171
4.	Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana.....	172
	4.1. Planaren ardatzak, helburuak eta atalak.....	172
	4.2. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana.....	176
	4.3. Planaren kudeaketa-eredua.....	190
	4.4. Planaren garapenerako aurrekontua.....	194
	4.5. Ebaluazio-sistema.....	194
	4.6. Jarraipenerako adierazleak.....	196





1. Sarrera

Duela gutxi arte, jaiak emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko aldarrikapenerako lehentasunezko eremu izan ez diren arren, jakina denez, jaiak ospatzeko dugun modua gure jendartea antolatuta dagoen moduaren eta ditugun balioen isla dira. Komunitate gisa ditugun balio, nortasun, **ideologia eta egiturak birsortzen dituzte** jaiak, eta ditugun gatazka, zapalkuntza eta diskriminazioak adierazten dituzte: botere-harremanak, rol-banaketak, indarkeria... Mijail Bakhtin-ek dioen bezala, “festek mundu-ikuskerak jakin bat adierazten dute”.

Jendartearen antolaketa eta balioak **ez dira ospakizunak beraiek irudikatzen moduan bakarrik islatzen;**

- Presente daude errepresentazio horietan emakume eta gizonen parte-hartzean edo irudikatzen dituzten roletan.
- Presente daude, baita ere, festak antolatzeko moduetan eta horien inguruan erabakiak hartzeko garatzen diren prozesuetan.
- Presente daude emakume eta gizonen festan parte hartzeko eta gozatzeko duten modu berezietan.
- Presente daude festa-giroak berarekin askotan dakartzan indarkeria sexistarekin lotutako jokamoldeetan.
- Etab.

Eremu horretan eragiteko baditugu, beraz, arrazoiak: batetik, emakumeen beraien ongizatea eta festetan parte hartzeko eta horiez gozatzeko duten erabateko eskubidea, eta, bestetik, festen eremuan eragitea gure jendartean eragitea ere badelako sinesmena.

Gaiaren garrantziaz ohartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak enkargatuta 2009. urtean **gai honen inguruan egin zen ikerketa:** *Gipuzkoako lurralde historikoko jaiak buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik.* Zalantzarik gabe, jaien genero-analisan mugarri bat ezarri duen lana.





1. Sarrera

Esku hartzearen eremuan ere, azken urteetan hainbat eta hainbat ekimen garatu dira gure udalerrietako jaien testuinguruan, nagusiki ekimen puntual edo zehatz gisa, eta normalean sentsibilizazioarekin lotuta. *Beldur Barik* bezalako ekimen garrantzitsuek ere eman dute horretarako testuinguru eta marko aproposa.

Oarsoaldeko udalerrietan ere, jaien testuinguruan berdintasuna sustatzeko eta jarrera matxistak gutxitzeko edo gaitzesteko ekimenak eta kanpainak egin dira, horietako batzuk modu bateratuan, gainera.

Honenbestez, Oarsoaldeko jaiak genero-ikuspegitik dituzten indargune eta ahulezien inguruko diagnostikoa egin, eta barneratzaileagoak eta parekideagoak izan daitezen plangintza bat lantzeko azken hilabeteetan Oarsoaldean egin dugun prozesuak elkarlanaren eta lankidetzaren logika horri erantzuten dio.

Orriotan jaso dugu:

- Oarsoaldeko jaien genero-diagnostikoa egiteko eta parekideagoak eta barneratzaileagoak izan daitezen esku-hartzeko plangintza diseinatzeko egin dugun **prozesuaren deskribapena**.
- Oarsoaldeko udalerrietako **jaien inguruko diagnostikoa**, genero-ikuspegitik.
- Oarsoaldeko jaiak parekideagoak eta barneratzaileagoak izan daitezen **esku-hartzeko plangintza**.



Oarsoaldean
jai = zaleak



2. Egindako prozesuaren deskribapena

2.1. Prozesuaren helburuak

Prozesuak helburu nagusi hauek eduki ditu:

- Oarsoaldeko **jaiak genero-ikuspegitik aztertzea** eta, indargune eta ahuleziak zein diren kontuan hartuta, jaiak parekideagoak eta barneratzaileagoak izan daitezen **plangintza bat lantzea**, Oarsoaldean jaiak antolatzen parte hartzen duten erakunde, eragile eta pertsona desberdinak kontuan hartuko dituen eta udalek datozen urteetan garatu ahal izango dutena.
- Oarsoaldeko **jaietan zeresana duten mota desberdinetako eragileak inplikatzeko**, jaiak genero-ikuspegitik aztertzeko prozesuan: errealitatea ongien beraiek ezagutzen dutelako; prozesuan inplikatzeko sentsibilizatzeko, gogoeta eragiteko, ikasteko aukera eskainiko duelako; eta, gerora ere, jaietan eragin nahi badugu, beraien inplikazioa ezinbestekoa izango delako.
- Azkenik, datozen urtetan Oarsoaldeko jaiak parekideagoak eta barneratzaileagoak izan daitezen **esku hartzeko jarduerak eta baliabideak eskainiko dituen tresna bat** (plangintza bat) eskaintzea Oarsoaldeko udalei.

2.2. Lanerako oinarriak

Oarsoaldeko jaien inguruan egindako prozesu hau **metodologikoki diseinatzeko IAP** (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen dugun metodologiaren oinarriak hartu ditugu kontuan. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea, eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodologia era teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: **dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika berezien erabilera.**

Jarraian, Elhuyar Aholkularitzak egitasmo hau garatzeko kontuan hartu dituen **oinarriak edo printzipioak** jaso ditugu:

Elkarlana

Partaidetza

Komunikazioa

Malgutasuna

Ikasketa-prozesua

Subjektibitatea

Koordinazioa eta sare-ikuspegia

Ahalduntzea

Elkarlana: Elkarlana ezinbestekoa da lana eraginkorra izan dadin. Elkarlanak gainera, talde-izaera sendotzen du eta ikuspegi bateratu eta koherentea lortzen laguntzen du. Egitasmoaren garapenerako funtsezkoa izan da Oarsoaldea osatzen duten udalerriguztien arteko elkarlana.

Partaidetza: Parte-hartzea ez dugu informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatu, guretzat benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen baita. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira eta horretarako bidea lan-prozesua bera





2. Egindako prozesuaren deskribapena

izan da. Ahalegin berezia egin dugu parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, eta parte-hartzaileek prozesua bere egiteko ahalegina egin dugu.

Komunikazioa: Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan. Komunikazio-plana diseinatu eta garatu dugu, eta plan horren baitan sortu dugu egitasmoaren irudia edo logoa. Horrez gain, herritarrekin egin diren gogoeta-guneetarako bileren deialdiak e-mailez, prentsa-oharren bidez, telefono-mezuen bidez sare sozialen bidez egin ditugu.

Malgutasuna: Pertsonekin lan egitea izan da oinarria. Horrenbestez, prozesu osoan zehar aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak eta malguak izan dira: parte-hartzaileek beharrezkotzat ikusi dituzten moldaketak proposatu dituzte, eta egoki jo diren neurrian, prozesuan behar diren egokitzapenak egin dira.

Ikasketa-prozesua: Emaitza bezain garrantzitsua da prozesua bera. Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izango du, egitasmoaren xedeetako bat baita guztiok (norbanako, talde eta erakundeek) prozesutik ikastea, ezagutza elkarrengandik jaso eta elikatzea, elkarrekin.

Subjektibitatea: Egitasmoaren oinarria pertsonak izan dira eta, horregatik, pertsonen arteko harremanek ere pisu nabarmena izan dute egitasmoaren urrats guztietan. Izan ere, taldetzea, talde-kohesioa, taldeen autonomia eta ekimena lantzea garrantzitsua da egitasmoa arrakastatsua izateko eta emaitzek denboran irauteko.

Koordinazioa eta sare-ikuspegia: Helburua da eskualde-mailan eragitea eta horretarako ezinbestekoa izan da eragindako eragileek estrategia adostu eta bateratuak gauzatea, sarea egin eta baliatzea. Sinergiak aprobetxatu eta beharrei elkarren artean erantzunen sortu dugu sare-ikuspegia; baliabideak optimizatuz; eguneroko lana eraginkorrago eginez; norbere ikuspegia beste batzuenekin konpartituz; ikuspegia zabalduz eta udalerriaz gain eskualdean egin beharreko lanaren parte garela jabetuz.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

Ahalduntzea: Taldean lan egiten dugunean garrantzitsua da taldea hazteko eta ahalduntzeko gune izan dadin bermatzea. Horretarako, beharrezkoa da egitasmoaren baitan sortzen diren dinamiketan botere-harremanak nolakoak diren aztertu eta, beharrezkoa denean, horiek esplizitu egin eta oreka berriak nola eraikiko ditugun aztertzea. Botere-harreman horiek nolako dinamikak eragiten dituzten jabetzea garrantzitsua da, dinamika berdinzaleagoak eta barneratzaileagoak eraikitzeko abiapuntua.

2.3. Egin diren bilerak eta lanak

Oarsoaldeko jaiak barneratzaileagoak eta parekideagoak izateko egindako prozesu honek hamar hilabeteko iraupena eduki du: 2017ko martxotik abendura artekoa.

Lanerako hiru espazio nagusi sortu ditugu:

- Teknikarien Lan Mahaia
- Gogoeta-guneak
- Politikarien Lan Mahaia

2.3.1. Teknikarien Lan Mahaia

Teknikarien Lan Mahaia izan da prozesuaren gidaritza izan duena, eta prozesuaren ekimen eta ekintza guztien koordinazioa bermatu duena. Zehazki, honako egiteko hauek eduki ditu:

- Egitasmoaren behin betiko zehaztapenean parte hartzea.
- Tokian tokiko errealitatea zein den eta aztertu beharreko egoerak, jaiak, eragileak, dinamikak zein diren identifikatzen laguntzea eta horietara iristeko bidea erraztea.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- Egitasmoa behar bezala garatzen ari dela bermatzea eta, beharrezkoa izan denean, prozesuari buruzko erabakietan parte hartzea.
- Prozesu metodologikoan, aurreikusitako partaidetza-guneetan parte hartzea.
- Egitasmoaren komunikazioan laguntzea, beharrezkoa den kasuetan.
- Bakoitzak bere udalerrian egitasmoaren eta bere martxaren berri ematea behar den tokietan.
- Diagnostikoari eta esku hartzeko plangintzari ekarpena egitea.
- Prozesuaren eta emaitzaren balorazioan parte hartzea.

Osaerari dagokionez, berriz, honakoak izan dira Teknikarien Lan Mahaia osatu duten pertsonak:

- Errenteriako Udaleko berdintasuneko teknikaria: Leticia Bermejo
- Errenteriako Udaleko kultur dinamizatzailea: Maitane Escudero
- Lezoko Udaleko berdintasuneko teknikaria: Ainhoa Irazu
- Lezoko Udaleko kultur teknikaria: Xanti Val
- Oiartzungo Udaleko berdintasuneko teknikaria: Maitane Iribar (urritik abendura arte)
- Oiartzungo Udaleko gizarte-langilea: Myriam Goikoetxea
- Oiartzungo Udaleko kultur teknikaria: Joxean Eizmendi
- Pasaiako Udaleko berdintasuneko teknikariak: Maider Andonegi (martxotik uztaile arte) eta Aitzole Araneta (irailetik abendura arte)





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Naiara Arri eta Aizaga Zeberio

Teknikarien Lan Mahaiak guztira 7 bilera egin ditu, eta bilera horien deialdiak nahiz aktak udal-sail horien eskutan daude.

2.3.2. Gogoeta-guneak

Gogoeta-guneak, berriz, Oarsoaldeko jaietan zeresana duten mota desberdinetako eragileekin lan egiteko guneak izan dira. Beraz, horietan parte hartu dute jai-batzordeetako kideek, auzo-, kirol- nahiz kultur elkarteetako ordezkariak, emakume-talde eta kolektibo feministetako partaideak edota udal-ordezkari politiko eta teknikariak.

Taula honetan jaso ditugu herri bakoitzean egin diren gogoeta-guneetan zer gai landu diren eta horietan zenbat pertsonak parte hartu duten:

HERRIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK	PARTAIDEAK
ERRETERIA	1. BILERA 2017-07-04	<ul style="list-style-type: none">• Abiatutako prozesuaren berri eman.• Jaiak eta berdintasuna: sentsibilizazioa landu.• Errenteriako jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.• Bilera baloratu.	10 emakume 2 gizon
	2. BILERA 2017-10-24	<ul style="list-style-type: none">• Prozesuaren garapenaren berri eman.	6 emakume gizon 1





2. Egindako prozesuaren deskribapena

HERRIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK	PARTAIDEAK
		<ul style="list-style-type: none">• Aurrera begirako erronkak aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.• Erronka horiek lortzeko ekintzak / ekimenak landu.• Jai partekideak lortzeko norberaren inplikazioa neurtu.• Bilera baloratu.	
LEZO	1. BILERA 2017-11-07	<ul style="list-style-type: none">• Abiatutako prozesuaren berri eman.• Jaiak eta berdintasuna: sentsibilizazioa landu.• Lezoko jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.• Aurrera begirako erronkak landu.• Bilera baloratu.	4 emakume 4 gizon
OIARTZUN	1. BILERA 2017-10-04	<ul style="list-style-type: none">• Abiatutako prozesuaren berri eman.• Jaiak eta berdintasuna: sentsibilizazioa landu.• Oiartzungo jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.	7 emakume 3 gizon





2. Egindako prozesuaren deskribapena

HERRIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK	PARTAIDEAK
		<ul style="list-style-type: none">Bilera baloratu.	
	2. BILERA 2017-10-31	<ul style="list-style-type: none">Prozesuaren garapenaren berri eman.Aurrera begirako erronkak aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.Erronka horiek lortzeko ekintzak / ekimenak landu.Jai parekideak lortzeko norberaren inplikazioa neurtu.Bilera baloratu.	8 emakume 3 gizon
PASAIA	1. BILERA TRINTXERPE, 2017-10-04	<ul style="list-style-type: none">Abiatutako prozesuaren berri eman.Jaiak eta berdintasuna: sentsibilizazioa landu.Trintxerpeko jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.Aurrera begirako erronkak landu.Bilera baloratu.	11 emakume
	2. BILERA SAN PEDRO, 2017-	<ul style="list-style-type: none">Abiatutako prozesuaren berri eman.Jaiak eta berdintasuna:	3 emakume





2. Egindako prozesuaren deskribapena

HERRIA	BILERAK	LANDUTAKO GAIAK	PARTAIDEAK
	10-18	<p>sentsibilizazioa landu.</p> <ul style="list-style-type: none">• San Pedroko jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.• Aurrera begirako erronkak landu.• Bilera baloratu.	
	3. BILERA DONIBANE, 2017-10-25	<ul style="list-style-type: none">• Bilera hau bertan behera geratu zen, inor azaldu ez zelako.	Ez zen inor azaldu
	4. BILERA ANTIXO, 2017-11-08	<ul style="list-style-type: none">• Abiatutako prozesuaren berri eman.• Jaiak eta berdintasuna: sentsibilizazioa landu.• Antxoko jaien aurre-diagnostikoa aurkeztu, kontrastatu eta ekarpenak jaso.• Aurrera begirako erronkak landu.• Bilera baloratu.	2 emakume 3 gizon

Hor ageri diren datuetan ez daude barnebilduta gogoeta-gune batzuetan parte hartu duten udaletako teknikari eta ordezkari politikoak, ezta Elhuyar Aholkularitzako teknikariak ere.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

Taula honetan, berriz, gogoeta-guneetan parte hartu duten herritarren kopuru totala eta horiek ordezkatzeko dituzten talde, elkarte edota eragileen inguruko informazioa jaso dugu, herrika. Datu horien arabera, gogoeta-guneetan **guztira 56 lagunek** hartu dute parte.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

HERRIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	ELKARTEAK / ERAGILEAK / TALDEAK
ERRETERIA	12	2	14	U 23 KULTUR FAKTORIA BILGUNE FEMINISTA KOLPE MOREA EMAKUMEEN MUNDU MARTXA LAIKOTASUNA ELKARTEA OARSO ARTE KULTUR ELKARTEA ERLONTZI AUZO-ELKARTEA ARDITURRI ELKARTEA
LEZO	4	4	8	ALLERRU KIROL ELKARTEA TIÑELU ELKARTEA GAXUXA EMAKUME-TALDEA HAURTZO HAURRESKOLA LEZO INSTITUTUA LEZO HERRI ESKOLA
OIARTZUN	10	5	15	GURUTZERO BATZORDEA AUZOKALTE AUZO-ELKARTEA ARRAZTALO ELKARTEA OJARPE PILOTA ESKOLA KIROL-ELKARTEA KILIRIKUPE EMAKUME-TALDEA ANTIJUMORIK UGALDETXOKO JAI BATZORDEA





2. Egindako prozesuaren deskribapena

PASAI ANTXO	2	3	5	JAI BATZORDEA TOPAGUNEA PASAI TXARANGA LA HARMONIA ELKARTE GASTRONOMIKOA
PASAI SAN PEDRO	3	0	3	JAI BATZORDEA
PASAI TRINTXERPE	11	0	11	KORKOIBURURUAK BEKOZ BEKO AZKUENE ELKARTEA TOPAKETA
GUZTIRA	42	14	56	

Bestalde, diagnostikoa egiteko prozesuan eta gogoeta-guneak martxan jarri aurretik, elkarrizketa sakonak ere egin dira, besteak beste, aukeratutako jaietan antolaketa-lanak nahiz partaidetza genero-ikuspegitik nolakoa den aztertzeko.

Elkarrizketa horiek nori egin Teknikarien Lan Mahaian adostu dugu, eta elkarrizketa horiek nori egin erabakitzerakoan, hainbat ikuspegi jaso eta ordezkatu nahi izan ditugu: ikuspegi teknikoa, mugimendu feministarena nahiz emakume-taldeena, auzoetako elkar-teena, kultur nahiz kirol-elkar-teena, jai-batzordeena, etab.

Guztira, **30 herritarrek** parte hartu dute banaka, binaka zein taldean egin ditugun elkarrizketa horietan. Honako hauek dira elkarrizketa horietan parte hartu duten elkarte eta eragileak:





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- **Mugimendu feminista eta emakume-elkarteak:**

- Kolpe morea
- Bilgune feminista
- Antijumorik
- Harremantxo
- Gaxuxa
- Sorginak

- **Jai-batzordeak:**

- Iturriozko Jai Batzordea
- Xanistebanetako Jai Batzordea
- Ihote Taldea
- Sagardo Eguneko Batzordea
- Lezoko Jai Batzordea

- **Kultur taldeak:**

- Furius Konpartsa
- U23 Kultur faktoria
- Ereintza Dantza Taldea
- Lezoko Musika Eskola





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- Ondartxo Abesbatza
- Proisa Kulturgunea
- Tiñelu Elkartea

- **Auzo-elkarteak:**

- Arditurri auzo-elkartea
- Korkoiburuak

2.3.3. Zinegotzien Lan Mahaia

Maila politikoan, udalerrri bakoitzeko kultura- eta berdintasun-zinegotziek ere egin diote segimendua prozesuari. Beraz, zinegotzien arteko lankidetzeta eta elkarlana beharrezkoa izan da prozesuaren garapen egokirako; batez ere lehen fasean eta beharrezko baldintza politikoak lantzerakoan.

Zehazki, funtzio hauek eduki ditu Zinegotzien Lan Mahaiaik:

- Egitasmoaren behin betiko proposamena ezagutzea eta ekarpenak egitea.
- Egitasmoa behar bezala garatzen dela bermatzeko baldintzak sortzea eta, beharrezkoa balitz, prozesuari buruzko erabakietan parte hartzea.
- Bakoitzak bere udalerrian egitasmoaren eta bere martxaren berri ematea behar den tokietan.
- Diagnostikoari eta esku hartzeko plangintzari ekarpena egitea.
- Prozesuaren eta emaitzaren balorazioan parte hartzea.

Honako ordezkari hauek hartu dute parte gune honetan:





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- Errenteriako Udaleko berdintasuneko zinegotzia: Garazi López de Etxezarreta
- Errenteriako Udaleko kultur zinegotzia: Yon Collar
- Lezoko Udaleko berdintasuneko zinegotzia: Noemi Arberas
- Lezoko Udaleko alkatea: Jesus Maria Martiarena
- Oiartzungo Udaleko berdintasuneko zinegotzia: Agurtzane Lekuona
- Oiartzungo Udaleko Gizarte Ongizateko zinegotzia: Domi Azpiroz
- Pasaiako alkatea eta Antxoko alkateordea: Izaskun Gómez
- Pasaiako berdintasuneko zinegotzia: Sergio Ekiza
- Pasai Donibaneko alkateordea: Miriam Cano
- Pasai San Pedroko alkateordea: Nahikari Otermin
- Pasai Trintxerpeko alkateordea: Lore Suárez
- Elhuyar Aholkularitzako teknikariak: Naiara Arri eta Aizaga Zeberio

Zinegotzien Lan Mahaiak guztira 3 bilera egin ditu, eta bilera horien deialdiak nahiz aktak udal-sail horien eskutan daude.





2. Egindako prozesuaren deskribapena

2.4. Egindako prozesuaren komunikazioa

Prozesuak herri- nahiz eskualde-mailan ahalik eta oihartzun handiena edukitzeko, komunikazio-plana diseinatu eta garatu da. Horren adierazgarri dira, besteak beste, landutako ekimen hauek:

- Prozesuaren **irudia edo logoa:**



- Prozesuaren inguruko **aurkezpen-berria:**

- <http://oarsoaldea.hitza.eus/2017/05/30/jai-parekideagoak-nahi-dituzte-oarsoaldeko-lau-udalerriek/>
- <http://www.diariovasco.com/oarsoaldea/errenteria/201705/31/proceso-para-unas-fiestas-20170531000920-v.html>

- Gogoeta-guneetako **bilera-deialdiak:**

- <http://oarsoaldea.hitza.eus/2017/11/01/lezoko-jai-parekideen-tailerra-hilaren-7an/>
- <http://herribizia.errenteria.eus/2017/10/20/jai-berdinzaleagoak-lortzeko-prozesuaren-bigarren-bilera-egingo-dute/>
- <http://www.diariovasco.com/oarsoaldea/oiartzun/parekidetasuna-jaiak-hizpide-20170922005437-ntvo.html>
- <http://www.pasaia.eus/eu/jai-parekideak>

- Jabetze eskoletako **programazioak:**

- <http://herribizia.errenteria.eus/2017/10/05/eraldaketa-feministarako-eskolako-programazio-berria-martxan-jarriko-da/>





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- <http://www.pasaia.eus/eu/jabetze-eskola>
- Udal-aldizkarietako **erreportajeak**:
 - https://issuu.com/oiartzungoudala/docs/udala_informatzen_83
- Hedabideetako **elkarrizketak**:
 - http://oiartzunirratia.org/index.php?option=com_content&view=article&id=1967:jaiak-eta-berdintasunaren-gogoeta-guneak&catid=18:arguyuan-magazinea&Itemid=101
- Gogoetan-guneetako deialdien **kartelak eta gonbidapenak**:



Nola egin Lezoko jaiak parekideagoak eta berdinzaleagoak?
¿Cómo conseguir unas fiestas más paritarias e igualitarias en Lezo?

TAILERREAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA
INVITACIÓN PARA PARTICIPAR EN LA REUNIÓN

Azaroaren 7an 19:00etan Kultur Aretxean
7 de noviembre a las 19:00



Nola egin Donibaneko jaiak parekideagoak eta berdinzaleagoak?
¿Cómo conseguir unas fiestas más paritarias e igualitarias en San Juan?

TAILERREAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA
INVITACIÓN PARA PARTICIPAR EN LA REUNIÓN

Urriaren 25ean 18:00etan Victor Hugo Etxean
25 de octubre a las 18:00





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- **Sare sozialetako jarduera:** udaletako Twitter kontuaren bidez, nagusiki.

2.5. Egindako prozesuaren eta emaitzaren balorazioa

Teknikarien Lan Mahaiaren azkeneko bileran, balorazio hau egin da prozesuaren hasieran ezarritako **helburuen lorpen-mailari** dagokionez:

PROZESUAREN HELBURUAK	Oso gutxi	Ez asko	Nahikoa	Askok
Oarsoaldeko jaien errealitatea genero-ikuspegitik zein den ezagutzea: indarguneak eta ahuleziak non dauden identifikatzea, aurrera begira non eragin behar den ezagutzeko.			1	4
Oarsoaldeko jaietan zeresana duten mota desberdinetako eragileak inplikatzeko jaiak genero-ikuspegitik aztertzeke prozesuan: errealitatea ongien beraiek ezagutzen dutelako; prozesuan inplikatzekoak sensibilizatzeko, gogoeta eragiteko, ikasteko aukera eskainiko delako; eta, gerora ere, jaietan eragin nahi badugu, beraien inplikazioa ezinbestekoa izango delako.	2	1	2	





2. Egindako prozesuaren deskribapena

PROZESUAREN HELBURUAK	Oso gutxi	Ez asko	Nahikoa	Askok
Datozen urtetan Oarsoaldeko jaiak parekideagoak eta barneratzaileagoak izan daitezzen esku hartzeko jarduerak eta baliabideak eskainiko dituen tresna bat (plangintza bat) eskaintzea Oarsoaldeko udalei.			3	2

Eta honakoa, prozesuarentzako adostu genituen **lanerako oinarrien** betetze-mailari dagokienez:

PROZESUAREN LANERAKO OINARRIAK	Oso gutxi	Ez asko	Nahikoa	Askok
Elkarlana	1		3	1
Partaidetza	1	2	2	
Komunikazioa	1		4	
Malgutasuna	1		4	
Ikasketa-prozesua		1	2	2
Subjektibitatea		1	2	2
Koordinazioa eta sare-ikuspegia		1	2	2
Ahalduntzea		1		4

Balorazioekin batera honako ohar hauek jaso ditugu:





2. Egindako prozesuaren deskribapena

- Oinarri hauen balorazio orokorrak hainbat subjektu izan ditu. Item hauek baloratzeko batez ere harreman politikoan zentratu naiz. Izan ere, jai-batzorde ezberdinetan udaletxeko ordezkari politikoak baitaude eta harremana hauen bidez bideratzen baita.
- Plan hau abiapuntu bat iruditzen zait, bertako diagnostikoak eta ekintza proposamenak abiapuntu hartuta eta sortutako "tresna" hartuta bidea egiten hasteko, edo hobe esanda, jarraitzeko. Jai parekide eta barneratzaileagoen bidean iparrorratz moduan erabili dezakegu, bai eskualde- eta herri-mailan.
- Oarsoaldeko egitasmo bat izanik, argi ikusi da nire ustez, herri batzuk eta bertako eragileak inplikatu direla, beraz ekintza-plana dutela, eta aldiz kasuren batean eragile politikoaren inplikazio ezaren ondorioa dela herritar-eragileak ez inplikatzea eta aurrekonturik ez izatea herriren batean. Nire zalantza: Oarsoaldeko 4 herritetako plana da orduan?





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.1. Errenteria

3.1.1. Madalenak

3.1.1.1. Sarrera

Madalenak izaera erlijiosoko festak dira, eta ospakizunaren arrazoia herriko zaindariaren eguna izatea da. Jaiak uztailaren 21etik 25era bitartean izaten dira, Madalena Eguna uztailaren 22a delako.

Bereziak dira, herritar gehienentzako oso jai garrantzitsuak dira:

“Herritarrok oso modu berezian bizi ditugu jaiak. Oso jai intentsuak dira, eta ahal duen guztiak jai hartzen du egun horietan”. (Elkarrizketa 2).

Herritar asko murgiltzen dira beraz Madalenetan, eta elkarteek nahiz Errenteriako Udalak antolatzen dituen ekintza guztiak oso arrakastatsuak izan ohi dira. Jai Batzordetik egitarau anitza eta zabala antolatzeko ahalegina egiten da.

Orain dela urte batzuk batez ere gauera begirako egitaraua antolatzen bazen ere, duela urte batzuetatik hona hainbat eragile eta elkarte eguneko ekimenak antolatzen hasi dira, eta horiek gero eta indar handiagoa hartzen ari dira; azken urteetan Madalenetan eguneko giroa nagusitzen da.

“Txosna komisiok komentatzen zen igual gauean bakarrik zentratu beharrean, komeni zela egunean zehar ere ekitaldiak antolatzea”. (Elkarrizketa 3).

“Nik uste azken urteetan eguneko giroak indar handia hartu duela. Lehen gauak kriston potentzia zeukan, eta gaur egun badauka, baina egunean zehar ere gero eta giro handiagoa egoten da”. (Elkarrizketa 2).

“Nik uste dut herriaren sentsazio orokorra zela festak gauekoak zirela. Eta nik uste dut Xanti eta Maialenekin indar handia hartu dutela goizek... Buelta pixka bat ematen hasi zaio horri, baina egia da duela bospasei urtera arte dena gauera bideratuta zegoela”. (Elkarrizketa 3).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Jaietan era askotako ekimenak antolatzen dira. Horietako batzuk musika eta dantza munduarekin dute zerikusia, beste batzuk kirolarekin, badira gastronomiarekin lotutako jarduerak ere, eta abar. Ziurrenik herritar bakoitzaren ohitura, gustu eta zaletasunen eraginez Madalenetako ekimenak erakargarriagoak izango dira herritar batzuentzat beste batzuentzat baino. Halere, elkarrizketatu ditugun herritarrek txupinazoa eta Kuadrillen Egunean antolatzen den bazkaria nabarmendu dituzte.

Txupinazoak ematen die hasiera festei. Bi txupinazo daude, haurrena, eta, oro har, herritar guztiei zuzentzen zaiena. Herritarren txupinazoa plazatik jarraitzeaz gainera, beste bi gune sortzen dituzte txupinazoa bizitzeko: streaming bidez herriko beste eremu batean, eta berariaz gazteentzako sortutako beste gune batean. Horiek guztiak jendez gainezka egoten dira.


Madalenetan omendua izango den elkarteak edo pertsonak botatzen du txupinazoa. Oraingoz politikariek erabakitzen dute adostasunez norik bota, nahiz eta herritarren proposamenak jasotzen diren.

“Txupinazoa oso momentu esanguratsua da. Herritar guztiok oso modu berezian bizi dugu. Udaletxeak streaming bidez-eta dena botatzen du, arrakasta handia daukalako”. (Elkarrizketa 2).

Madalenetan arrakasta handia duen beste jarduera bat, jende-kopuru handia biltzen duen beste ekimenetako bat, Kuadrilla Eguneko bazkaria da. Herriko kuadrilla ezberdinek hartzen dute parte bertan, eta horiek kamixeta bera janzen dute egun horretan; horia izan da aurten hautatutako kolorea. Bazkal ondoren herriko tabernetan zehar ibiltzen dira, musikak lagunduta.

“Kuadrilla Eguna berez gauza simple bat da. Bazkari bat antolatzen da, 1500 pertsona elkartzen gara bazkaltzeko. Nik uste dela kontzertuez aparte, Madalenetan jende gehien biltzen duen ekitaldia dela. Oso ikusgarria da”. (Elkarrizketa 2).

3.1.1.2. Berdintasuna jaien antolaketan





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Madalenak gaur egun Jai Batzordeak antolatzen ditu. Halere, Jai Batzordeak ibilbide laburra du, aurreko Legegintzaldiko Udal-gobernu taldeak sortutakoa delako. Dinamikari eta funtzionamenduari dagokionez, gutxi gora-behera urtean zazpi bilera egiten ditu. 2016an, esaterako, urtarriletik irailera bitartean, hilero egin zen Jai Batzordeko bilera. Funtzio nagusia Madalenak antolatzea denez, hau da, festetarako Udal-programa adostea, bileretan lantzen diren gaiak festen prestaketa eta antolakuntzari buruzkoak dira: urteko bileren datak ezarri, festetako aurrekontua landu eta onartu, lantaldeak osatu, lantaldeetako lanei segimendua egin, festak baloratu e.a. Izan ere, guztira lau lantalde eratzen dira lan-karga handiena eskatzen duten ekimenak antolatzeko.

“Jai Batzordean ardurak lantaldeka banatzen dira: bazkariaren lantaldea, txupinazoaren lantaldea, streaming-eko lantaldea eta musika lantaldea. Hor dauden lanak banatzen dira”. (Elkarrizketa 2).

Antolaketa-lanak normalean urtero errepikatu egiten dira, nahiz eta beharrezkoa ikusten bada, hobekuntzak txertatzen diren.

Jai Batzordearen osaerari dagokionez, herriko elkarteetako ordezkariak hartzen dute parte. Era guztietako elkarteak daude: kultur-elkarteak, emakumeen taldeak, elkarte gastronomikoak, auzo-elkarteak, kirol-elkarteak, ostalariak, etab. Elkarte horiek euren programazio propioak dauzkate Madalenetako egitarauaren barnean.

Orain dela bizpahiru urtetatik, bileretako parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera bereizita jasotzen dira:





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

JAI BATZORDEETAKO BILEREN PARTAIDETZA SEXUAREN ARABERA				
URTEA	BATAZBESTEKO PARTE-HARTZAILEAK		BATAZBESTEKO PARTE-HARTZEA (%)	
	EMAKUMEA	GIZONAK	EMAKUMEA	GIZONAK
2014	8	19	30	70
2016	11	18	38	62

Berdintasun


Saileko Madalenetako Txosten Teknikoko datuen arabera, 2014ko Jai Batzordeko bileretan batzaz beste 8 emakumek eta 19 gizonek hartu zuten parte, alegia, emakumeen batzaz besteko parte-hartzea %30ekoa izan zen. 2016ko datuei erreparatzen badiegu, batzaz beste 11 emakumek eta 18 gizonek hartu zuten parte, emakumeen batzaz besteko parte-hartzea ia %38koa izan zen. Beraz, bi urtetan emakumeen kopurua igo egin bada ere, emakumeen eta gizonen partaidetza ez dela orekatua esan dezakegu, horretarako gutxienez sexu bakoitzeko %40-ko ordezkari izan behar baita.

2016ko datuen kasuan, bilera guztietako partaidetza-datuak eskuratu ditugu:





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Taulan agertzen diren datuak ikusita, bilera bat ez beste gainontzeko bilera guztietan, emakumeek baino gizon gehiagok hartu zuten parte. Portzentajeei erreparatuta, zazpi bileretatik hirutan emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak orekatua izan zen.

Elkarrizketatu ditugun herritarren pertzepzioa ere bada **Jai Batzordeko bileretan nahiz sortzen diren lantaldeetan emakumeek baino gizonezko gehiagok parte hartzen** dutela, urtez urte emakumeen kopurua igotzen ari bada ere.

“Orain dela urte batzuk joan nintzen Jai Batzordera eta flipatu nuen ze gehiengoa mutilak ziren. Gaur egun orekatuagoa da, baina mutil gehiago daude. Nik ezagutzen ditudan lantaldeetan ere mutilak gehiago dira”. (Elkarrizketa 2).

“Jai Batzordean gehiago daude gizonak emakumeek baino, ordezkari gehienak gizonak direlako parte hartzen duten elkarteetatik. Batzordeko lantaldeetan ere gizonezko gehiago daudela esango nuke, elkarteen ordezkariak hartzen dutelako parte hor ere”. (Elkarrizketa 1).

Hori horrela izanik ere, Jai Batzordean emakumeek aktiboki hartzen dute parte, euren iritziak plazaratuz eta proposamenak eginez.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Bileretan gehien parte hartzen dutenak, euren iritziak azaltzen dituztenak, planteamenduak egiten dituztenak, gehienak emakumeak dira”. (Elkarrizketa 1).

Arestian aipatu bezala, Errenteriako elkarteek euren ekimenez eta Udalaren laguntzaz Madalenetako hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, eta horiek antolatzeko sortzen diren **beste gune batzuetan emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da;** esate baterako, Kuadrilla Eguna antolatzeko batzordean eta helduen danborrada antolatzen duen Alabergako auzo-elkarteko danborrada batzordean.

“Kuadrilla Eguneko kudeaketaz 10 pertsona arduratzen gara. Horietatik 8 emakumeak gara eta 2 gizonak. Batzar irekiak deitzen ditugunean gehienak emakumeak izaten dira. Gehienetan kuadrilla ordezkatzearen ardura hori emakumeek hartzen dute”. (Elkarrizketa 2).

“Urte osoan zehar, antolaketa-lanetan, emakumeak dabiltza batez ere”. (Elkarrizketa 2).

Madalenetan egindako behaketan ere ikusi duguna da Kuadrilla Eguneko bazkariko antolaketa-lanetan emakumeak nagusitzen direla: kaxak garraiatzen, Lineren igoyerarako soka jartzen... neska gazteak ageri dira lanean¹.

Txosna-batzordearen kasuan, historikoki emakume askok parte hartu duten gunea izan bada ere, azken bizpahiru urteetan gizonen parte-hartzea handitu egin da.

“Garai batean talde motorean gehiengoak emakumezkoak ginen, gizonzkoak ere bazeuden, baina ardura emakumezkoek eramaten genuen”. (Elkarrizketa 1).

“Historikoki emakume askok hartu dute parte txosna komisioan. Antolakunde ezberdinetako ordezkari asko emakumeak izan ziren. Baina igual bai azkeneko 2-3 urtetan gehiago maskulinizatu da”. (Elkarrizketa 3).

¹ Iturria: Madalenetan egindako behaketa, 2010eko uztailaren 23n. Behaketetan jasotako oharren eranskinetan daude.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Bukatzeko, aipatu behar da Haurren Jai Batzordea ere badagoela. Batzorde horretan parte hartzen duten haurrek Madalenetako egitarauko haurren programazioa eta haurren txupinazioa lantzen dituzte, Oarsoirriak taldearekin batera.

LAN-BANAKETA

Hartzen diren ardurei eta lanen banaketei dagokienez, **askotan emakumeak dira erantzukizun gehienak hartzen dituztenak**, hartutako ardurak betetzen gehien inplikatzeko direnak. Izan ere, sexu-genero sistemak emakumei eta gizonei rol ezberdinak ezartzen dizkiete, eta, ondorioz, sozialki batzuegandik eta besteengandik espero dena ezberdina da; besteak beste, neskei arduratsuak izatea eskatzen zaie, eta erantzukizuna femeninotasunarekin lotzen den gaitasuna da.

“Emakumeak gehiago inplikatzeko dira, inizatiba gehiago hartzen dute. Batzordeetatik lantaldeetara zerbait trasladatu behar bada, beraiek arduratzen dira. Tiratzearen lan hori gehiago da emakumeena”. (Elkarrizketa 1).

“Normalean kuadrilla mistoetan ardurak hartzen dituztenak neskak dira, eta mutilen kuadrilla bada, saltseroenak”. (Elkarrizketa 2).

Esate baterako, Kuadrilla Egunean bertan, bazkariaren antolaketa-lanetaz batez ere emakumeak arduratu direla behatu dugu.

Festetako antolatzaileen artean lanak emakumeen eta gizonen artean berdin banatzen diren arren, kasu batzuetan genero-eraginak daukate. Historikoki gizonezkoek burutu dituzten zereginetan, azpiegituren muntaketa-lanetan, elektrizitatearen instalakuntzarekin lotutako zereginetan nahiz zerbitzari-lanetan mutilak aritzen dira, nahiz eta muntaketa-lanetan emakumeen partaidetza handia den.

“Egia esan ez dut ezer bereizirik ikusten. Ez zait iruditzen lanak sexuaren arabera banatzen direnik... laz adibidez muntaiaren egon nintzen eta neskak gehiago daude. Elektrizitate-kontuak eta hori normalean tipo batek eramaten ditu, baina muntaiaren eta neska kuadrillak zeuden”. (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Lan asko dago, eta nik uste dut ardurak nahiko parekatu banatzen direla, bai genero aldetik eta baita kolektiboen aldetik ere. Saiatzen da denok berdina jartzen”. (Elkarrizketa 3).

“Egia da elektrizitateaz arduratzen dena gizonezkoa dela, eta igual muntaian ere gizonak nagusitzen dira, nahiz eta emakume askok parte hartzen duten”. (Elkarrizketa 3).

“Egia da muntatzen eta desmuntatzen eta horrelakoetan gehienak mutilak ibiltzen direla”. (Elkarrizketa 2).

“Gure auzoko jaietan adibidez, barran eta zerbitzatzen beti gizonezkoak daude, eta sukaldean berriz gehienbat emakumezkoak. Badaude ere gizonezkoak eh, baina gizonek beti barran nahi izaten dute”. (Elkarrizketa 2).

“Euskalguneko eta txosnetako janari-txosnan seguraski gehienak emakumeak izango dira sukaldean. Bai, gauzak arrastratu egiten dira”. (Elkarrizketa 1).

Gainera, danborradaren kasuan, generoaren arabera funtzio berezituak antzematen dira: gastadoreak denak mutilak izaten dira, eta kantinerak, berriz, neskak.

“Gastadoreak denak mutilak dira eta kantinerak neskak. Inoiz ez digu neska batek galdetu gastadore bezala janzteko, ezta mutil batek ere kantinera bezala ateratzeko...”. (Elkarrizketa 2).

GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ETA JARDUERETAN

Festetako programazioa diseinatzerakoan eta jarduerak antolatzerakoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari dagokionez, **herri-mugimenduko eragile nahiz elkarteek antolatzen dituzten ekimenetan emakumeen**





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

partaidetza bermatzen ahalegintzen dira, eta emakumeak protagonista diren ikuskizunak programatzeko saiakera egiten dute.

“Guk gure auzo-elkartean saiatzen gara beti presente edukitzen antolatzen ditugun gauza guztietan. Adibidez, danborradako zuzendariak beti saiatzen gara neska eta mutila izaten”. (Elkarrizketa 2).

“Txosna-komisioan nolabait beti hartu dugu hori kontuan gauza guztietarako: lanak banatzerakoan, bere garaian kontzertuak-eta antolatzerakoan, saiatu izan gara emakumeak ere ekartzen, dj-etan ere saiatzen ginen emakumeak jartzen”. (Elkarrizketa 2).

Zentzu honetan, Kuadrilla Egunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna nahiz beste balio batzuk lantzeko “Line” izeneko pertsonaia sortu dute. Garai batean Errenteriako liho fabrika batean lan egiten zuen eta bere eskubideen alde borroka egin zuen emakume errenteriarrean inspiratu dira pertsonaia sortzerakoan.

“Guk gure sinbolo bezala erabiltzen dugu, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko”. (Elkarrizketa 2).

Herriko mugimendu feministak gune horietan parte hartzeak eragina eduki du herri-mugimenduko eragileek berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa edukitzean. Gainera, urteen poderioz, mugimendu feministak erreferentzialtasun bat irabazi du, eta askotan eurengana jotzen dute aholku eske.

“Nik uste dut mugimendu feministak parte hartzeak eragina izan duela. Sentsibilizazio hori nik ikusten dut”. (Elkarrizketa 3).

“Egia da azkenaldian antolatu diren festetan neuregana jo dutela batzuk espreski emakumeek osatutako taldeen erreferentziak eskatzeko, badaukatelako agian gurekin kontatzeko txip hori... Azkeneko urteetan gurekin kontatzen dute horrelako gauzak





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

kontuan hartzeko. Herrian erreferentzialtasun bat, legitimitate bat, irabazi dugu”. (Elkarrizketa 3).

Halere, berdintasunaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko beharra agerikoa da oraindik. Izan ere, batzuek ez dute beharrezkoa ikusten emakumeen partaidetza sustatzeko berariazko neurriak hartzea.

“Musika-lantaldean aipatu genuen emakumeek osatutako musika-taldeak bisibilizatzeko zela programatzerakoan, eta bazegoen pertsona bat esaten zuena berari txorrada bat iruditzen zitzaioela, emakumeen egoera guztiz normalizatuta dagoela eta hori ez zela beharrezkoa... Gatazka pixka bat egon zen hor. Nik uste jende batek oraindik ez daukala barneratuta”. (Elkarrizketa 2).

Udalari dagokionez, berriz, aipatu behar da **Udalak Madalenetako diru-laguntzaren oinarrietan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen dituen irizpideak txertatzen** dituela. Puntuazio-sisteman, jardueraren antolaketa nahiz garapenean emakumeen parte-hartzea bultzatzen duten ekintzak baloratzen dira, eta hori herritarrak berdintasunean sentsibilizatzeko baliagarria dela baloratzen da.

“Diru-laguntzetan berdintasunaren irizpidea sartzen dugu eta nik uste dut hori jartzeak herritarrei gaian hausnartzeko aukera ematen diela. Berdintasuna lantzen den galdetzen zaie, eta nola lantzen duten”. (Elkarrizketa 1).

Horrela, Madalenetan antolatzen den ekintza bakoitzeko balorazio-fitxa bat betearazten die Udalak elkarte nahiz eragileei, eta bertan, besteak beste, emakumeen partaidetzari buruzko datuak ere jasotzen dira.

“Elkarte bakoitzak berak antolatzen ez dituen hiru ekitaldi ikuskatzen ditu eta hor hainbat gauza baloratu behar dira, horien artean, emakumeen parte-hartzea”. (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Jai Batzordeko gure eginkizunen artean dago, beste batzuk antolatzen dituzten ekimenetara joatea, eta baloratzea zenbat emakumezko dauden eta zenbat gizonezko”. (Elkarrizketa 2).

Gainera, duela bospasei urtetatik Madalenetako **programan hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista egiten dela bermatzen** da. 2010eko jaietako programan, esate baterako, maskulino generikoa erabili zen, eta irudietako erreferentzia nagusiak gizonezkoenak ziren: alkatea eta kultur-zinegotzia gizonezkoak ziren, eta Madalenetan omendutako hiru herritarrak ere bai. Indarkeriari dagokionez, eraso sexisten aurkako mezua agertzen zen.

2016ko egitarauan, berriz, ez zen maskulinoa modu generikoan erabili, eta argazkietan ez ziren gizonezkoak erreferentzia nagusi gisa agertzen: alkatearen agurra agertzen bazen ere (gizonezkoa zen), kultur-zinegotziaren ordean Jai Batzordearen taldeko irudia agertzen zen, eta Madalenetako omendua abesbatza bat izan zen. Gainera, Errenteriako hainbat emakumeen ibilbidea aitortu eta omentzeko ekimena egin zen: puntako emakumeen raketa partidua antolatu zen. Indarkeriari dagokionez, alkatearen mezuan balio gisa aniztasuna, askatasun sexuala eta emakumeekiko errespetua aipatzen ziren, eta eraso sexista, homofobo, transfobiko eta xenofoboen aurkako mezua agertzen zen.

Honenbestez, berdintasunaren ikuspegitik Madalenetako programan bilakaera positiboa egon dela ondoriozta dezakegu, azken urteetan bertan erabiltzen den hizkuntza nahiz irudiak zaintzeko joera ikus dezakegulako.

Dena den, diru-laguntzetan **emakumeen partaidetza sustatzeko ekintzak baloratzea edota programan hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista egitea ez da nahikoa antolatutako ekimenetan genero-ikuspegia txertatzeko eta berdintasunean oinarritutako jaiak antolatzeko, eta diru-laguntzekin nahiz**





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

programarekin irekitako bidetik lanean jarraitzea komeni da, neurri gehiago hartuz.

“Gauza batzuk barneratuta dauzkagula uste dudan arren, teknikari bezala, uste dut irizpide batzuk landuta edukitzea komenigarria litzatekeela... Esate baterako, kontratazioak egiterakoan interesgarria litzateke irizpide batzuk zehaztuta edukitzea, emakumeen partaidetzatik haratago”. (Elkarrizketa 1).

“Madalenetako Udaleko programazioa egiterakoan parekidetasuna kontuan hartzen da, irizpideak landuta daude, baina oraindik ez dago erabat barneratuta”. (Elkarrizketa 2).

Adibidez, arestian aipatu bezala, Madalenetan omendua izango den elkarteak edo pertsonak botatzen du txupinazoa. Inoiz ez da azertu genero-ikuspegitik omendutakoak nortzuk izan diren, baina emakumeak baino gizon gehiago omendu izanaren pertzepzioa dago.

“Nik uste orokortasun batean aztertzen baduzu, gehiago ateratzen direla gizonezkoak”. (Elkarrizketa 1).

Beste adibide bat aurtengo festetako kartel-lehiaketarekin gertatutakoa izan daiteke. Hasiera batean lehiaketa irabazi zuen kartelean Xanti erraldoiaren irudia bakarrik agertzen zen, Maialenik gabe, eta horrek zalaparta handia eragin du herrian. Izan ere, Maialen eta Xanti erraldoiek arrakasta handia dute bereziki haurren artean, eta erreferentzia bilakatu dira; Maialen eta Xanti, eta Xanti eta Maialen dira; ezin dira bereizi. Azkenean, herritarren erantzuna ikustean, hartutako erabakia atzera bota du Udalak berak, eta bigarren postuan geratutako kartela aukeratu dute.

“Honek inflexio puntu bat markatuko duela espero dut, eta hurrengo urteetarako prozedura bat markatuko dutela, irizpide batzuk markatuko dituztela. Halere, triste da horretara iristea jendea kexatu delako”. (Elkarrizketa 3).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Honenbestez, jaien inguruan antolatzen diren ekimen guztietan eta ikuspegi integral batetik genero-ikuspegia txertatzearen beharra **agerikoa** da.

“Nik uste dut festetan ez dugula genero-ikuspegia oso-osorik kontuan hartzen. Ez gara konturatzen ordutegiak, lekuak, nola dagoen herria antolatuta, argia... Horrek guztiak eragin handia duela nesken parte-hartzean”. (Elkarrizketa 3).

Izan ere, Madalenetako ekimen gehienak Errenteriako erdigunean egiten dira, eta auzo batzuentzat urruti geratzen dira. Horregatik, mugimendu feministak auzoetatik erdigunerako bidaiak egiteko gaueko autobus-zerbitzua edo taxia jartzea proposatu izan du, emakumeak etxeko atariraino eramateko eta euren segurtasuna bermatzeko. Aurten, esaterako, auzoetarako autobus-zerbitzua jarri du Udalak, baina herritar guztientzat eta geldialdi arruntekin; eta horrek ez ditu mugimendu feministaren nahiak ase.

“Oreretan jaiak zentroan dira, baina daukazu jendea bizi dena Beraunen, Iztietan...”. (Elkarrizketa 3).

“Badakigu auzoentzat urruti geratzen dela. Iaz mugimendu feministak egin zuen proposamena gaueko autobus-zerbitzua jartzeko. Gazteek ere behin eta berriz eskatzen duten zerbait da, auzoetara mugitzeko aukera edukitzea”. (Elkarrizketa 1).

3.1.1.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Errenteriako Madalenetako jaietan emakumeen eta gizonen parte-hartzea aztertzeko, batez ere Jai Batzordeko kideek bete zituzten ekintzen balorazio-fitxak hartu dira oinarri gisa. 2014 eta 2016ko datuak eskuratu ahal izan ditugu, eta balorazio-fitxa horietan ekintza bakoitzaren inguruko informazioa jaso da; besteak beste, antolatutako jardueran zenbat pertsonak parte hartu duten, eta parte-hartzaile horien





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

sexua zehaztuta. Horrela, ekintzan parte hartutako pertsonak “parte-hartzaile” eta “ikusle” diren zehaztu da: parte-hartzaileak ekintza bera gauzatzen dutenak dira, eta ikusleak ikuskizunaren parte-hartzaile pasiboak, hau da, ekintza begiratzeko dutenak. Dena den, ekintza batzuetan ez dago horrelako bereizketarik, parte hartzen duten pertsona guztiek modu aktiboan jarduten dutelako. Gainera, aipatu behar da kasu batzuetan jasotako datuak ez direla oso fidagarriak, pertsona asko biltzen dituzten ekimenetan zailtasun handiak daudelako parte-hartzaile kopurua jakiteko.

Antolatutako jarduerak horrela multzokatu dira:

- **Kirol-jarduerak:** Kirolarekin zerikusia duten jarduerak: kirol-lehiaketak, herri-kirolak, etab.
- **Musika eta dantza:** Kontzertuak, txarangak, dantzak eta dantzaldiak...
- **Desfileak:** Danborradak, erraldoiak eta buruhandiak.
- **Kultur ekitaldiak:** Bertso-saioak, antzerkiak, pailazoak, etab.
- **Gastronomia:** Gastronomiarekin lotutako ekimenak: herri-bazkariak, sukaldaritza ikastaroak, postre-lehiaketa...

Kirol-jarduerei dagokienez, arrantza-txapelketa, arku-tiro lehiaketa, esku-pilota, hainbat tiro modalitate eta herri-kirolak bezalako jarduerak aztertu dira. **Jarduera horietan emakumeen parte-hartzea subjektu aktibo gisa oso txikia izan da**, gizonen partaidetzarekin alderatuta: 2014an %17koa izan zen eta 2016an %14koa. 2014an herri-kiroletan izan zen emakumeen parte-hartze handiena (%33koa), eta 2016an, berriz, aire konprimituko tiro jaurtiketan (%39koa).

Esate baterako, galeperren tiro-saioa behatu² dugu. Tiroak jaurtitzeko parte hartu duten guztiak gizonezkoak izan dira. Guztira 65 bat ikusle egon dira, eta horien guztien artean lau bat emakumek bakarrik egon dira.

² Iturria: Madalenetan egindako behaketa, 2010eko uztailaren 23n. Behaketetan jasotako oharren eranskinetan daude.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Ikusleei dagokienez, gehienbat gizonak dira kirol-proba horiek ikustera bertarutzen direnak, eta beraz, espazio horiek nahiko maskulinizatuta daudela esan daiteke. Halere, 2014an ikusleen %31 bazen emakumezkoa, 2016an %40 izan zen. Honenbestez, garrantzitsua da datu horiei urtez urtekako segimendua egitea, igoera hori gertaera puntual bat edo joera positibo baten adierazgarri den ebazteko.


“Arku-tiroa eta lanzamiento a jaula de perdiz bezalako ekimenetan, ehiztari mundukoek antolatzen dituztenetan, nik uste dut horietan gehiengoa gizonak izango direla”. (Elkarrizketa 2).

“Arrantzale lehiaketan parte hartzen duten gehienak gizonak dira, gehienak adinekoak, baina egia da gero eta gazte gehiago ikusten dela, eta horien artean neskak ere badaude, nahiz eta gutxiengoak izan.” (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Musika eta dantza dira Madalenetan gehien antolatzen diren jarduera-motak.

Musika eta dantza eskaintza anitza eta zabala izaten da, estilo ezberdinetako musika-taldeen kontzertuak antolatzen dira, eta ikusle gehien erakartzen dituzten ekitaldiak dira.

Horrela, datu orokorrak aztertuta, **parte-hartzaileen artean emakumeak**

nagusitzen dira. Izan ere, azken urteetan gaueko kontzertuetan nabarmen igo da emakumeek osatutako musika-taldeen kopurua nahiz eta oraindik gizonezkoen taldeak nagusitzen diren; eta, dantza bezalako jarduerak historikoki emakumeei egotzi zaizkien balioekin lotu direnez, emakumeak dira dantzarekin zerikusia duten jardueretako parte-hartzaile nagusiak.

“Dantzarekin zerikusia duten ekimenetan gehiengoa emakumezkoak izaten dira: flashmob eta horrelako istorioetan”. (Elkarrizketa 2).






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Ikusleei erreparatuta, 2014 eta 2016an **emakumeen kopurua %50etik gorakoa** izan zen. Kontzertuen kasuan, **musika-estiloak emakumeen eta gizonen parte-hartzean eragiten** duela aipatzen da.

“Kontzertuetan-eta pentsatzen dut estiloaren arabera izaten dela. Adibidez, makarragoak direnetan mutil gehiago daude”. (Elkarrizketa 2).



Kultur-ekitaldiei dagokionez, pailazoak, ur-jolasak, bertso-saioak, hitzaldiak, kukaina txapelketa, film-emanaldiak eta antzerkia bezalako ekimenak aztertu dira. 2014ko eta 2016ko datuek adierazten dute **kultur-jardueretako parte-hartzaile nahiz ikusleak nahiko parekideak** direla sexuari dagokionez.






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Kukainari dagokionez, kukainaren funtsa da olio igurtzita dagoen makilaren puntatik ikurrina bat hartzea. Makila ibaiaren gainean ezartzen da, eta ikusmin handia sortu ohi da; nolabaiteko trebetasuna eta ausardia eskatzen du. Ikurrina lortzen saiatu ziren zazpi pertsonetatik bakarra izan zen emakumea 2014an (2016ko datua ez dugu eskuratu).

“Kukainak gero eta ikusle gehiago ditu, gero eta parte-hartze gehiago, baina pila bat kostatzen da emakumeek parte hartzea. Aurretik emakumeak lotzen saiatzen dira, baina nik uste pixkanaka batez ere emakume gazteak gero eta gehiago animatzen ari direla”. (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Desfileen multzoan, danborradak zein erraldoi eta buruhandiak hartu dira aintzat. Jatorrian danborrada izaera militarreko festa-mota izan da, eta emakumeak pixkanaka joan dira sartzen. Madalenetako **danborradetan emakumeen eta gizonen partaidetza nahiko orekatua** izan da. 2014ko datuen arabera, danborrada gehienetan emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa izan bada ere, 2016ko datuetan gizonen partaidetza nagusitu da.

“Helduen danborradan nik esango nuke 40-60 dela proportzioa, gehiago mutilak”.
(Elkarrizketa 2).


Buruhandi eta erraldoien kasuan, eta datuak aldakorrak badira ere, kasu gehienetan maskara eta egitura horiek erabiltzen zituzten **gehienak gizonak** izan dira. Eta jaietan egindako behaketan ikusitakoak ere³ ondorio horretara garamatza: buruhandi eta erraldoiak eramaten dituzten guztiak mutilak dira; musikarien artean ere, bost txistularietatik bakarra da emakumezkoa. Publikoari dagokionez, ikusle gisa, denetarik dago: emakumeak eta gizonak hurrekin, gazteak, nerabeak, adinekoak... Zentzu honetan, eta berriz ere taulako datu orokorreireparatuta, **parte-hartzaile nahiz ikusle gisa emakumeen eta gizonen kopuruak nahiko parekideak izan direla ondoriozta dezakegu.**

³ Iturria: Madalenetan egindako behaketa, 20107ko uztailaren 23n. Behaketetan jasotako oharrek eranskinetan daude.






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Bukatzeko, azkeneko jarduera-multzoan **gastronomiarekin** lotutako ekimenen inguruko datuak jaso dira. Nabarmentzekoa da 2014ko datua tentuz irakurri behar dela, urte horretan postre-lehiaketan inguruko datuak soilik eskuratu zirelako. Horietan parte-hartzaileen gehiengoa emakumeak izan ziren. 2016ko datuek, berriz, erakusten dute antolatutako bi herri-bazkarietan emakumeak izan zirela antolakuntzan modu aktiboan parte hartu zutenen erdia; baina bakailao-txapelketan, aldiz, emakumeen parte-hartzea ez zen %8ra heldu. Honenbestez, datu orokorrek emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua adierazten badute ere, jardueramotaren arabera emakumeen eta gizonen partaidetza handitu edo txikitu egiten dela ondoriozta dezakegu.



Aztertutako datuek erakusten digute **emakumeek eta gizonek modu ezberdinduan hartzen dutela parte jai-ekitaldietan**, eta genero-erolek eragina daukate batzuek eta





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

besteek parte hartzen duten jarduera-motetan. Horrela, kirol-jardueretan batik bat gizonezkoek hartzen dute parte, eta espazio oso maskulinizatua dela esan dezakegu bai parte-hartzaileen aldetik eta baita ikusleen aldetik ere. Emakumeen partaidetzarik handiena musika eta dantzarekin lotutako jardueretan antzematen da.

Bukatzeko, elkarrizketatu ditugun pertsonen nabarmendu dute **adina faktore garrantzitsua** dela genero-bereizketak erreproduzitu edo iraultzerakoan. Zentzu honetan, gazteei zuzendutako ekimenetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errazagoa dela aipatzen dute.

“Nik uste dut gazteei planteatutako ekimen batean neskak eta mutilak ikustea errazagoa dela, baina igual adin batetik aurrera ez”. (Elkarrizketa 3).

“Tradizioarekin lotutako ekimenetan gizon helduak nagusitzen dira”. (Elkarrizketa 2).

ZAINZA-LANAK JAIETAN

Adineko pertsonen, behar bereziak dituzten pertsonen nahiz haurren zaintzak jaietan duen tokia ere aztertu nahi izan dugu. Elkarrizketatu ditugun pertsonetako batzuk aipatu dute jaietan ere **amak gehiago arduratzen direla haurren zaintzaz**, eta horrek emakumeek jaiak gozatzeko dituzten aukerak murrizten dituela.

“Madalenetan hurrekin dauden gehienak, barraketan, etab. emakumeak dira”. (Elkarrizketa 1).

“Eguneko danborradan, haurrenean, gurasoak etortzen dira laguntzera eta hor denak amak izaten dira” (Elkarrizketa 2).

“Nik uste dut orokorrean amak gehiago arduratzen direla haurrez, hori jaren isla da. Nik uste dut errazagoa izaten dela mutila libratzea”. (Elkarrizketa 3).

“Begiratzen baduzu seguraski emakumeen presentzia gauetan gutxiagoa izango da”. (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Halere, gehienek nabarmentzen dute **umeei zuzendutako jardueretan aiten presentzia gero eta handiagoa** dela, eta behatutako buruhandien eta erraldoien konpartsan ere emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua ikusi dugu.

“Egia da gizonetzkoen presentzia gehiago ikusten ari dela umeekin lotutako jardueretan. Garai batean amak ikusten zenituen bezala, orain aitak ere ikusten dituzu. Halere, seguraski nahiko genukeena baino gutxiago”. (Elkarrizketa 1).

“Xanti eta Maialen ikustera urtez urte gero eta aita gehiago joaten direla ikustea interesgarria da”. (Elkarrizketa 2).

Noizbait pentsatu izan dute antolatzen dituzten ekitaldi batzuetan **haurtzaindegi-zerbitzua** jartzea gurasoei ekitaldietan parte hartzeko aukera errazteko, baina ez dute lortu ekimena aurrera ateratzerik.

“Noizbait planteatu izan dugu gure ekimenetan haurtzaindegi-zerbitzua jartzea, baina eskatzen duen lanagatik ez dugu sekula egin. Orduan gurasoek beraiekin eramaten dituzte haurrak bazkaltzera”. (Elkarrizketa 2).

ALDAKETAK ETA GATAZKAK

Madalenetako jaietako ekimenen batekin lotuta aldaketa edo/eta gatazka-egoerarik bizi izan den jakin nahi izan dugu, eta Alaberga auzoko danborradaren kasua ekarri dute gogora elkarrizketatuek.

Garai batean, duela 50 urte edo, auzo horretako helduen danborradan gizonetzkoek bakarrik hartzen zuten parte danborrak jotzen, emakumeak kantinerak soilik izan zitezkeen. Orain dela 15 bat urte, hainbat herritarrek ekimen ezberdinak egin zituzten emakumeen parte-hartzea eskatzeko, eta, ondorioz, Udalak diru-laguntza kendu egin zien eta orduko zuzendariaren dimisioa lortu zuten.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Zuzendari berriarekin emakumeak danbor-jole gisa onartzen hasi ziren, eta hasiera batean emakumeak beldur ziren horrek zer ondorio izan zitzakeen; baina herritarrek begi onez ikusi zuten aldaketa.

Gaur egun Errenteriako danborrada guztietako partaidetza mistoa da.

“Lehenengo urtean emakumeek beldurra zeukaten zerbait gertatuko zen ala ez, baina azkenean ez zen ezer gertatu; auzokoen inplikazioa egon zen”. (Elkarrizketa 2).

“Ez zen arazorik egon, ez zen gatazkarik sortu. Nik uste dut jendeak oso positiboki hartu zuela, bereziki Alabergako emakumeek”. (Elkarrizketa 3).

3.1.1.4. Indarkeria matxista

Madalenako jaietan indarkeria matxista prebenitzeko eta erasoei aurre egiteko, 2014an Berdintasunerako Sailak Madalenetan **eraso sexisten aurrean jarduteko protokoloa** sortu zuen. Protokolo horren helburua zen txosna eta tabernetan lan egiten zuten edo Jai Batzordeko kide ziren pertsonen baliabideak ematea, jakin zezaten nola jokatu eraso sexista bat gertatu aurretik, gertatzen ari zenean edo gertatu ondoren.

Iaz Oarsoaldeko lau udaletako berdintasunerako sailek **protokoloaren diseinua berritu zuten, eta sentsibilizazio-kanpaina bateratua egin** zuten eskualde-mailan indarkeria matxistaren aurkako jarduna eraginkorragoa izateko. Horrela, kartelak eta pegatinak atera zituzten herritarrak jaietan gertatzen diren erasoengatik inguruan sentsibilizatzeko, eta jarraibideak eta baliabideak emateko.



Oarsoaldean
jai = zaleak



3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Herri-mugimenduari dagokionez, iaz mugimendu feministak (Bilgune Feministak eta Kolpe Moreak) eraso sexisten aurrean erantzuteko protokolo bat aurkeztu zuen Jai Batzordean, eta bertan balizko erasoen aurrean erantzun soziala emateko jarraibideak zehaztu ziren. **Lanketa hori presaka eta korrika egin zen, eta horrek zenbaitengan nahasmena eragin** zuen, izan ere, iaz bi eraso salatu zituzten Madalenetan, eta udal-ordezkarri eta langile batzuek ez zekiten oso ongi nola jokatu. Horregatik, lanketa hauek denbora-tarte nahikoarekin egitearen garrantzia azpimarratu dute batzuek; nahiz eta herritarren aldetik, erantzuna oso ona izan zen. “Iaz protokoloa Jai Batzordean aurkeztu genuen, begi onez ikusi zuten eta nik uste dut oso erantzun ona egon zela. Gu ibili ginen pixka bat berandu, pixka bat larri lantzen gauzak, baina erantzuna nik uste dut oso ona izan zela. Erasoa salatzeke egindako manifestazioa pasada bat izan zen. Gau batean gertatu eta hurrengo egunean egin genuen deialdia, eta jende askok hartu zuen parte”. (Elkarrizketa 3).

“Ez genekien guk deitu behar genien elkarteetako Udal moduan abisatzeko, deialdiren bat egin behar genuen... Dena inprobisazio bat izan zen, baina halere elkarte eta eragileen erantzuna ikaragarria izan zen. Dena den uste dut horrelako gauzak marjin batekin egin behar direla.” (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Jendartea indarkeria matxistaren inguruan gero eta sentsibilizatuagoa dagoela aipatzen dute elkarrizketatuek, eta berdintasunaren ikuspegitik erabat onartezinak diren ekimenek gero eta babes sozial txikiagoa daukatela.

Nolanahi ere, indarkeria matxistaren inguruko prebentzioarekin eta salatzeko ekimenekin aurrera jarraitu beharra dagoela azpimarratzen dute elkarrizketatuetako batzuek, eta zeregin horretan herri-**mugimenduaren eta Udalaren arteko elkarlana funtsezkoa** dela.

“Egiten den guztia beharrezkoa eta oso garrantzitsua da”. (Elkarrizketa 2).

“Kolpe Morea eta Bilgune Feminista bezala antolatzen baduzu zerbait jende batengana iristen zara, baina Udala bera badago atzean, Udalak bat egiten badu deialdiarekin, beste indar bat hartzen du, eta jende gehiagorengana iristen zara”. (Elkarrizketa 3).

“Egia da gu asko zentratzen garela Madalenetan, indarkeriarekin lotutako lanketaren indar gehienak hor jartzen ditugu”. (Elkarrizketa 3).

3.1.1.5. Ondorio nagusiak

- Jaietako antolakuntza-gune batzuetan, Jai Batzordean eta bertako lantaldeetan, gizonetzkoen partaidetza emakumezkoena baino handiagoa da. Halere, beste gune batzuetan emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da.
- Hartzen diren ardurei eta lanen banaketei dagokienez, askotan emakumeak dira erantzukizun gehienak hartzen dituztenak, hartutako ardurak betetzen gehien inplikatzeko direnak.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Festetako antolatzaileen artean lanak emakumeen eta gizonen artean berdin banatzeko ahalegina egiten den arren, kasu batzuetan genero-rolek eragina daukate eta emakumeek eta gizonak funtzio berezituak egiten dituzte.
- Festetako programazioan eguneko jarduerak gero eta garrantzia handiagoa dute. Horiek diseinatzerakoan eta jarduerak antolatzerakoan, herri-mugimenduko eragile nahiz elkarteek antolatzen dituzten ekimenetan emakumeen partaidetza bermatzen ahalegintzen dira, eta emakumeak protagonista diren ikuskizunak programatzeko saiakera egiten dute. Udalari dagokionez, diru-laguntzaren oinarrietan berdintasunerako irizpideak txertatzen dira, eta programan hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista egiten da. Halere, antolatutako ekimenetan genero-ikuspegia txertatzeko eta berdintasunean oinarritutako jaiak antolatzeko, neurri gehiago hartzearen beharra nabarmentzen da.
- Emakumeen partaidetzari dagokionez, aztertutako datuek erakusten digute emakumeek eta gizonak modu ezberdinduan hartzen dutela parte jai-ekitaldietan, eta horretan genero-rolek eragina daukate.
- Zaintza-lanei dagokienez, umeen zaintzaz amak aitzak baino gehiago arduratzen badira ere, umeei zuzendutako jardueretan aiten presentzia gero eta handiagoa da.
- Aldaketa eta gatazkei dagokienez, herritarren eta batez ere emakumeen ekimenari esker, gaur egun danborrada guztietan emakumeek nahiz gizonak hartzen dute parte.
- Indarkeria matxistarekin lotuta, Madalenetako jaietan herritarrak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak egiten dira, eta herritarrei baliabideak eta jarraibideak ematen zaizkie indarkeria-kasuetan nola erantzun jakiteko.

3.1.2. Inauteriak

3.1.2.1. Sarrera





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Errenteriako inauteriak aldaketa-prozesua bizitzen ari dira, jai-ereduaren inguruan egiten ari den hausnarketa dela-eta. Duela urte batzuetatik hona jendearen parte-hartzea beherantz zihoala konturatu ziren, gero eta jende gutxiago mozorrotzen zela jabetu ziren, eta hori ikusita, Udalak esku hartu zuen. Inauterietako ekimenak antolatzen zituztenekin elkartu eta Inauterietako Batzordea sortu zuten, ordura arte antolatzen ziren ekimenez gain, programazioari buelta bat emateko. Asmoa zen nolabait modu soltean eta elkarrekin inolako harremanik ez zeukaten jarduerak bateratzea, eta jaietara beste izaera bat ematea.

Horretarako, genero-identitate jakinik ez duten pertsonaia batzuk sortu dituzte: Asteme, Oilarqueen eta Katuko, eta istorio bat asmatu dute, “Asteme, Oilarqueen eta Katukoren bidaia” izenekoa, eta bertan Inauterietako hiru ekimen nagusiei egiten zaie erreferentzia, eta euren artean lotzen dira: Azeri Dantza (dantzatzea gustuko duen azeriaren bidez), Sardinaren ehorzketa (xardinxarren bidez) eta konpartsak (Oilarqueen oilarraren bidez). Animaliak protagonista dituen istorioa Errenteriako ikastetxeetan lantzen da haur eta gazteekin, eta abesti bat ere sortu dute.

“Orain dela bi urtetik pixka bat dena bateratzeko saiakera egon da. Orain arte Azeri Dantza eta Sardinaren ehorzketa, festei hasiera eta bukaera ematen dieten ekitaldiak, antolatzen genituen guk, eta gero konpartsak antolatzen zituzten; ez zegoen ia ezer gehiago. Baina duela urte batzuk istorio eta pertsonaia batzuk sortu ziren, jaiari ildo bat emateko, ekintza horiek nolabait elkarren artean lotzeko. Pixkana inauteriak bere osotasunean festa bat izateko saiakera ari gara egiten”. (Elkarrizketa 5).

“Esos personajes son un poco un hilo conductor que va guiando la historia de los días de carnaval. Empieza a haber un poco más de unión entre todas las actividades gracias a esa historia que han creado”. (Elkarrizketa 4).

“Animalia horiek dira momentu honetan inauterietako erreferente nagusiak. Azeri Dantzarekin batera beraiek igotzen dira udaletxera eta festei hasiera ematen diote”. (Elkarrizketa 1).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Horrela, dagoeneko aipatu diren hiru ekimen horiez gain, azken urteetan herri-bazkaria eta mozorrotutako kuadrillen desfilea bezalako ekimenekin Inauterietako egitaraua osatzeko ahaleginetan ari dira.

“Los últimos años estamos intentando que no sea sólo un desfile de comparsas y que haya más actividades en las que más gente del pueblo pueda participar”. (Elkarrizketa 4).

Hain zuzen ere, herritarren partaidetza sustatzeko tabernen mozorro-lehiaketa antolatzen da. Elkarte nahiz norbanakoek hainbat gai proposatzen dituzte Inauterietako Batzordean, eta bertan bozketa bidez mozorrotzeko gai batzuk proposatzen dira. Azkenik, herritarrek bozketa bidez erabakitzen dute urte horretan zertaz mozorrotu; eta bozka gehien jasotzen dituen gaiaren inguruan mozorrotzen dira tabernak.

3.1.2.2. Berdintasuna jaien antolaketan

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Arestian aipatu bezala, duela gutxi Inauterietako Batzordea sortu zen, Errenteriako Inauteriak modu koordinatuan eta bateratuan antolatzeko. Bertan, Inauterietan jarduerak antolatzen dituzten pertsonak hartzen dute parte, nahiz eta sukaldeko lan gehiena Udaleko teknikari eta dinamizatzaileek hartzen duten beren gain.

“Bilerak bi hilabete behin-edo izaten dira, eta hor koordinatzen da dena: nola izango den desfilea, nola joango den egitaraua, gaien proposamena... dena hor koordinatzen da”. (Elkarrizketa 1).

Batzordean parte hartzen duten gehienak emakumeak dira. Izan ere, antolatzen diren jarduera nagusiak ezarritako genero-rolen eraginez tradizionalki emakumeek egin dituztenak dira, batez ere dantza-munduarekin lotutakoak, eta horregatik **emakumeek gizonak baino gehiago hartzen dute parte Inauterien antolaketan.**






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Inauteri Batzordean gehienak emakumeak dira. Egiten diren ekimen gehienak dantzarekin lotuta daude, eta dantzaren arloan gehienak emakumeak dira. Festak beste modu batera balira, agian ez zen hori pasako. Baina ekimen potoloenak, Azeri Dantza, Konpartsak eta Sardinena, emakumez josita daude”. (Elkarrizketa 5).

Azeri Dantza eta Sardinaren ehorzketa antolatzen duen **dantza-taldearen kasuan ere, gehiengo emakumea** da. Beraz, Inauterietan eurek antolatzen dituzten ekimenen antolaketan emakumeak nagusitzen dira.

“Gu dantza taldean ere gehiengo emakumeak gara, 30 bat neska bagara, mutilak 10 dira. Emakume askoz gehiago garenez, lantaldeetan ere normalean emakume gehiago gaude; inauterietako lantaldean ere bai”. (Elkarrizketa 5).

Taula honetan Inauterien Batzordeak iaz egin zituen bi bileretako parte-hartzaileen datuak azaltzen dira, sexuaren arabera bereizita. Bi kasuetan gizonak baino emakume gehiagok parte hartu zutela agertzen da, nahiz eta aldea ez den oso handia.



LAN-BANAKETA





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Konpartsen desfilea antolatzen duen elkarteetako baten partaideak elkarrizketatu ditugu. Elkarte hori, jende-kopuruari dagokionez, oso txikia da; guztira hiru kidek osatzen dute, bi gizonzok eta emakume batek, eta lan-karga handiena beraien artean banatzen dute. Beharrezkoa denean, momentu puntualetan, jende gehiagoren laguntza jasotzen dute.

Lanak banatzerakoan bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak hartzen direla kontuan aipatzen da, baina **generoaren arabera lan-banaketa antzeman** daiteke. Horrela, tradizionalki gizonzokoen erlazionatu diren gaitasunekin (indarra, esfortzu fisikoa...) lotutako zereginetaz, muntaketa-lanetaz, batik bat gizonak arduratzen dira. Emakumeak, aldiz, ezarritako genero-rolekin bat datozen zereginetaz arduratzen dira, hots, josteaz edo karrozak apaintzeaz. **Gainera, lan guztiei ez zaie garrantzia bera ematen, lan guztiek ez daukate aitortza bera; emakumeek egin ohi dituzten lanak gutxietsi egiten dira, eta gizonak egindakoei garrantzia handiagoa ematen zaie.**

“Yo me encargo más de música, diseño y demás, y mi hermana se encarga del baile, la coreografía, y cuando hay que montar algo y tal se encarga mi padre”. (Elkarrizketa 4).

“Quien viene a montar carrozas, el equipo de megafonía, actividades que requieren un despliegue esos días... Lo que es el montaje ahí sí que participan más los hombres que mujeres”. (Elkarrizketa 4).

“Lo que es el trabajo más duro hacen más los hombres, y en plan más de diversión, de bailar... Hay veces que de trabajos digamos más sencillos como coser, decorar las carrozas... vienen más las mujeres”. (Elkarrizketa 4).

Azeri Dantza eta Sardinaren ehorzketa antolatzen duen Ereintza Dantza Taldean ardurak ez daude aurretik zehaztuta, eta lanak denen artean banatzen dituzte.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Urteroko lanak denen artean egiten ditugu. Bileretara ere berdin, gaur ezin badut nik beste bat joaten da... Lantalde txikia denez, denon artean nahiko komunikazio ona daukagu”. (Elkarrizketa 5).

GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ETA JARDUERETAN

Inauterietako programazioa diseinatzerakoan eta jarduerak antolatzerakoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari dagokionez, **elkarreek antolatzen dituzten ekimenetan ez da berdintasuna sustatzeko berariazko neurririk hartzen.**

Udalaren ekimenari dagokionez, **Inauterietako diru-laguntzaren balorazio-irizpideetan berdintasun-irizpideak txertatzen dira.** Horrela, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua duten ekimenak antolatzeagatik puntuak ematen zaizkie elkarte eta eragileei.

Bestetik, 2012 eta 2017ko **Inauterietako egitarauak** aztertu ditugu. Agertzen diren irudiak neutroak dira generoari dagokionez, baina **gaztelaniaren erabileran maskulino generikoa** agertzen da bi kasuetan. Indarkeria matxistarekin lotuta, 2012an ez bezala, 2017ko egitarauan eraso sexisten aurkako mezua agertzen da.

Bukatzeko, 2017ko Inauterien balorazio-bileraren aktan jasotakoaren arabera, **genero-ikuspegia ez da kontuan hartzen Inauterietako balorazioa** egiterakoan. Esate baterako, ez da baloratzen emakumeek eta gizonen zein modutan hartu duten parte festan; eta bileraren parte-hartzaileen datuak ez daude sexuaren arabera bereizita. Horregatik, komenigarria litzateke genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzea Inauterien Batzordeak egiten dituen bilera guztietan.

3.1.2.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Inauteriei hasiera Azeri Dantzak ematen die. Aspaldiko ohitura zena berreskuratzeko lanei ekin zien 1977. urtean Ereintzaren Gida Batzordeak, 1936an hasitako gerraz geroztik galdua zelako Inauterietako ospakizuna. Ahalegin handiak egin bazituzten ere, ez zituzten berreskuratu Errenteriako Azeri Dantzan abestu ohi ziren koplak. Inguruko herrietako hainbat pertsonen laguntzaz, ordea, beste herri batzuetan dantzatzen zen Azeri Dantzaren pausoak eta partiturak lortu zituzten.

Tradizioak dioenez, Ostegun Gizen egunean dantzari kuadrilla inguruko baserrietara joaten zen dantzaren truke janaria eskatuz. Baina baserriak desagertu zirenean, dantzaren ospakizuna kale-girora egokitu behar izan zuten. Horrela, beraz, 1980. urtetik gaurdaino Azeri Dantzarekin hasten dira Errenteriako Inauteriak.

Herrian zehar kalejira bat egiten dute, eta gero plazara joaten dira dantza egitera. Neskak mutilez mozorrotzen dira, eta mutilak neskez; **plazako dantzan batez ere neskek hartzen dute parte, eta mutilak dantzara erakartzeko zailtasunak** daude.

“Saiatzen gara mutilak erakartzen eta taldea parekatzen, baina gehiengoa neskak gara. Beraz, neskak mutilak baino gehiago garenez, neska batzuk neskez janzten dira”. (Elkarrizketa 5).

Aipatzekoa da Azeri Dantza txaranga batek laguntzen duela, eta **txarangan parte hartzen dutenak batez ere mutilak** dira:

“Azeri Dantzan txaranga batekin ateratzen gara eta horretan bai dira gehienak gizonezkoak”. (Elkarrizketa 5).

Duela hiru urtetik herritarrei dantzan parte hartzeko aukera ematen diete, eta, ondorioz, urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte:

“Dantzan parte hartzeko deia herritarren artean zabaltzen dugu, merkatuan entsegu txiki batzuk antolatzen ditugu hilabete lehenago-edo dantza ikasteko, ze oso dantza sinplea da”. (Elkarrizketa 5).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Dantza gidatzeko kapitainaren figura dago, eta gaur egun **emakumeek nahiz gizonek jokatzen dute rol hori** normalean zozketa bidez egiten delako aukeraketa, nahiz eta garai batean mutilak nagusitzen ziren. Elkarrizketatuak hasiera batean dio gai honi ez diotela garrantzia berezirik ematen, baina segidan aitortzen du beretzat garrantzitsua dela zuzendari-rol horretan emakumeak agertzea.

“Azeri Dantzan kapitain bat dago eta berak gidatzen du dantza. Bukaeran bera da udaletxeko balkoira igotzen dena eta festei hasiera ematen diena. Kapitain hori batzuetan neska izaten da, eta beste batzuetan mutila. Normalean zozketa bidez gazte bat aukeratzeko dugu. Garai batean igual mutilak gehiago ateratzen ziren, baina ni egon naizenetik ez diogu gaiari garrantzia ematen... Baina niretzat garrantzitsua da neskak kapitain rol horretan egotea”. (Elkarrizketa 5).

Behin Inauteriei hasiera eman eta gero, konpartsen desfileak dira jai hauetako beste osagai garrantzitsua. Larunbat arratsaldean eta igande goizean ateratzen dira konpartsak desfilean, eta arrakasta handia dute, herritar asko gerturatzen da desfilea ikustera.

“Masa bat mugitzen dute, ikusten jende pila bat mugitzen dute. Gainera, jende pila batentzat oso garrantzitsua da; bizi egiten dute. Egia da oso fidela den publiko bat daukatela”. (Elkarrizketa 1).

Konpartsetako **desfilean batez ere emakumeek hartzen** dute parte. Izan ere, mozorrotuta eta musikak lagunduta dantza egitea da konpartsen ardatza, eta arestian aipatu bezala, gaur egun oraindik ere dantza feminizatutako jarduera da. Gainera, mozorro askok genero-rol eta estereotipoek emakumeei ezarritako femeninotasun-eta edertasun-ereduak indartzen dituzte.

“Hay más participación de género femenino, pero no porque se abra exclusivamente a ellas, sino porque igual socialmente hay unas leyes impuestas que no llaman a participar tanto a los hombres”. (Elkarrizketa 4).

“El bailar todavía es más de mujeres que de hombres”. (Elkarrizketa 4).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Udalarekin gaiaren inguruan hausnartzen ari direla aipatzen dute elkarrizketatuek, eta Erreterian gertatzen dena beste herri batzuetako konpartsetan ere jazotzen dela nabarmentzen dute.

“Vueltas ya le hemos dado pero... Con el Ayuntamiento también siempre estamos hablando de los mismo... Pero es el mal que tenemos en todas las comparsas, tanto en este municipio como en otros”. (Elkarrizketa 4).

Azken egunean Sardinaren ehorzketak ematen dio amaiera Inauteriei. Azken batean sardinaren desfilea da, musikaz lagunduta egiten dena. Herriari buelta ematen zaio, eta herriko plazan dantza bat egiten da, bukaeran sardina errekarara botatzeko.

Desfilean herriko elkarteetako ordezkariak hartzen dute parte, herritar guztiei irekita dagoen ekimena delako, eta ehorzketarekin lotura duten pertsonaia asko irudikatzen dituzte: alargunak, apaiza, akolitoak, mikeletak, etab.

“Gu mozorrotzen gara pertsonaia horietaz, baina edozein herritarrek ere posible dute parte hartu eta gure desfilean integratu”. (Elkarrizketa 5).

Desfilean parte hartzen duten gehienak emakumeak izaten dira, baina halere, **pertsonaia batzuk genero jakin batekoek antzezten** dituzte: alargunak emakumeak izaten dira, eta sardina bizkar gainean eramaten dutenak, berriz, gizonak.

“Egia da bai alargunak neskek izaten direla eta sardina plataforma handi batean mutilek eramaten dutela. Apaizak, akolitoak, mikeleteak.. neskek eta mutilak dira. Zehaztuta daukaguna da sardina eramatearena, batez ere pisuagatik; eta, alargunen kasuan, egia esan, ez dakit zergatik denak neskek diren”. (Elkarrizketa 5).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Bukatzeko, ikusleei dagokienez, errenteriar andana gerturatzen da Inauterietan antolatzen diren ekimen hauek ikustera.

“A la hora de ver el desfile está todo el mundo, desde pequeños hasta mayores. Es un desfile que está cogiendo bastante auge y al final va todo el pueblo a ver. Ahí sí que hay de todo”. (Elkarrizketa 4).

“Ikuslerian denetik dago... Sardinaren ekitaldian kanpoko jendea ez da hainbestekoa, baina konpartsen desfilera nahiz Azeri Dantzara kanpotik ere etortzen da jendea ikustera”. (Elkarrizketa 5).

3.1.2.4. Indarkeria matxista

Inauterietako ekimen hauek antolatzen dituzten elkarte eta eragileek ez dute indarkeria matxistaren inguruko lanketarik egiten. Kasu batzuetan, gainera, ez da horren beharrik ikusten.

“Inauterietan ekintza hauetan ez dugu indarkeria sexista kontuan hartzen, ez dugu sekula ezer planteatu”. (Elkarrizketa 5).

“Yo creo que en carnavales no se dan abusos porque está enfocado a ser una fiesta de día, entonces no hay tanta violencia”. (Elkarrizketa 4).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Honenbestez, komenigarria litzateke Inauterietako Batzordean gaiaren inguruko sentsibilizazioa lantzea, jarduerak antolatzen dituzten elkarte eta eragileetako ordezkariekin.

Udalaren ekimenari dagokionez, tabernariak sentsibilizatzeko helburuarekin gutun bat bidaltzen zaie eraso sexisten aurrean nola jokatu behar duten esanez. Horrekin batera, pegatina batzuk bidaltzen zaizkie tabernan bertan jar ditzaten, eta, azkenik, txartel batzuk bidaltzen zaizkie herritarren artean zabaltzeko. Pegatina eta txartel horiek erasoen aurrean nola jokatu eta zein telefonotara deitu jasotzen dute.

3.1.2.5. Ondorio nagusiak

- Inauterien antolaketa-lanetan gizonak baino emakume gehiagok hartzen dute parte. Izan ere, antolatzen diren jarduera nagusiak ezarritako genero-rolen eraginez tradizionalki emakumeek egin dituztenak dira, batez ere dantza-munduarekin lotutakoak.
- Lan-banaketei dagokienez, kasu batzuetan generoaren arabeko lan-banaketa antzematen da. Tradizionalki gizonetakoekin erlazionatu diren gaitasunekin (indarra, esfortzu fisikoa...) lotutako zereginenez, muntaketa-lanez, batik bat gizonak arduratzen dira. Emakumeak, aldiz, ezarritako genero-rolarekin bat datozen zereginenez arduratzen dira, hots, jostiaz edo karrozak apaintzeaz. Gainera, lan guztiei ez zaie garrantzia bera ematen, lan guztiek ez daukate aitortza bera; emakumeek egin ohi dituzten lanak gutxietsi egiten dira, eta gizonak egindakoei garrantzia handiagoa ematen zaie.
- Genero-ikuspegia plangintza eta jardueretan txertatzeari dagokionez, elkarteek antolatzen dituzten ekimenetan ez da berdintasuna sustatzeko berriazko neurririk hartzen. Udalaren ekimenari dagokionez, Inauterietako diru-laguntzaren balorazio-irizpideetan berdintasun-irizpideak txertatzen badira ere, Inauterien antolaketa-prozesu osoan genero-ikuspegia modu





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

sistematikoan kontuan hartzea komeni da: programan, Inauteri Batzordearen bileretan: parte-hartzaileen datuak sexuaren arabera jasoz, balorazioan emakumeen eta gizonen nola parte hartu duten hausnartuz, indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa landuz...

- Inauterietan antolatzen diren ekimen nagusietan (Azeri Dantzan, konpartsen desfilean eta Sardinaren ehorzketan) emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da. Beraz, komenigarria litzateke gizonezkoak dantzaren eremura erakartzeko estrategiak pentsatzea, ezarritako genero-rol tradizionalak apurtuz.
- Indarkeria matxistari dagokionez, Udalaren aldetik herritarren sentsibilizaziora eta indarkeriari aurre egitera bideratutako ekimen batzuk egiten badira ere, ekimen nagusiak antolatzen dituzten elkarte eta eragileek ez dute lanketarik egiten. Gainera, batzuek ez dute horretarako beharrik ikusten.

3.1.3. Sagardo Eguna

3.1.3.1. Sarrera

Sagardo Egunaren jatorriari erreparatzen badiogu, elkarte gastronomikoetara helduko gara. Izan ere, hasieran lagun-talde bat zen, eta gerora hasi ziren elkarte-mota horietako hainbat lagun elkartzen, herritarrentzat izango zen festa bat antolatzeko asmoarekin. Beraz, gaur egungo Sagardo Egunarekin aspaldiko ohitura bat berreskuratzeko ahalegina dago.

“Garai batean sagardotegi pila bat zeuden herrian, baina ez orain ezagutzen ditugunak bezalakoak, baizik eta etheen azpialdean kupela batzuk zeuden eta hor jendea biltzen joaten zen, jatekoa eramaten zuen, etab. Asmoa pixka bat ohitura hori berreskuratzea zen”. (Elkarrizketa 6).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Gerora urtetik urtera handitzen eta sofistikatzen joan den festa bat da”. (Elkarrizketa 6).

Apirilaren azken larunbatean izaten da Sagardo Eguna, eta duela hainbat urteetatik bi eguneko festa antolatzen da: apirilaren azken larunbatean izaten da eguna bera, eta aste horretan bertan, astearte arratsaldean, ekitaldi bat antolatzen da. Urteetan zehar antolaketan laguntzen aritu den jendea nahiz sagardo-egileak omentzen dira Arramendiko herri-sagastian, eta gero sagardotegi batean sagardo-dastaketa egiten da. Aurtengoa 30. edizioa izan da.

Sagardo Egunean, larunbatean, egun osoko egitaraua prestatzen dute. Eguna bitan banatzen da: goiza eta arratsaldea.

“12:00ak baino lehen kalejira bat egiten dugu musikariek, dantzariekin, nolabait Sagardo Eguna badatorrela adierazteko. Ordurako Xenpelar Plazan postuak jarrita egoten dira: talogileak, baserritarrak euren postuarekin, gazta-saltzailea, eta hor hasten da jaia”. (Elkarrizketa 6).

Eguerdian, bazkaltzeko aukera eskaintzen zaie postuak-eta jartzen dituztenei; bestela, kuadrilla bakoitzak bere kabuz bazkaltzen du. Arratsaldean, berriz, goizean bezala kale-animazioa egoten da, musikariak ibiltzen dira giroa alaitzen kalez kale, eta postuak Alamedan jartzen dituzte. Baina giroa ezberdina da:

“Arratsaldean goizean bezala da, baina postuak Alamedan jartzen dira eta goizean baino gehiago izaten dira. Jende gehiago ibiltzen da”. (Elkarrizketa 6).

“Goizeko giroa familiarra da, pixka bat lasaia da; gero, arratsaldean, gazte gehiago gerturaten da, eta ezberdina da; masifikatuago dago”. (Elkarrizketa 6).

Gauean ez da kontzerturik antolatzen, nahiz eta jendeak parranda egiteko aprobetxatzen duen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.1.3.2. Berdintasuna jaien antolaketan

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Sagardo Eguna antolatzeko batzorde bat eratzen da, eta bertan gutxi gora-behera 11-12 elkarteetako ordezkariak biltzen dira. Elkarte horiek batez ere elkarte gastronomikoak dira.

Batzordean parte hartzen duten gehiengo nagusia gizonak dira, elkarteetako ordezkariak gizonezkoak direlako.

“Elkarte bakoitzetik bi ordezkari etortzen dira, eta horiek normalean gizonezkoak dira”. (Elkarrizketa 6).

Izan ere, elkarte gastronomikoak historikoki gizonezkoen espazioak izan dira, eta horietako askotan emakumeek parte hartzea galarazita zeukaten. Honenbestez, Batzordearen sorrera “gizonezkoen mundu” horretatik sortu zen.

“Orain dela 30 urte uste dut lau bat elkarte gastronomiko bakarrik zeudela emakumeek posible zutenak parte hartzea, bazkideak izatea. Horregatik, Batzordean parte hartzen hasi zirenak denak mutilak ziren. Eta gaur egun ere hala da”. (Elkarrizketa 6).

“Elkarte gastronomikoetan pixkanaka emakumeak sartzen joan dira, baina orokorrean oraindik gehienak mutilak dira”. (Elkarrizketa 6).

“Batzordea gizonen talde batean sortu zen, gizon-kuadrilla batek sortu zuen”. (Elkarrizketa 6).

Batzordea egonagatik, azken urteetan lau pertsonak hartzen dituzte lanik handienak euren gain: 3 gizonezkoak eta emakume bakarrak; horiek denak 50 urtetik gora dauzkate.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Emakume bat urteetan egon da antolakuntzan hain juxtu helburu horrekin, emakume bat egon behar zelako”. (Elkarrizketa 3).

Azkenean, antolaketa-lanetan ibiltzen diren hiruzpalau pertsona horien artean laguntasun-harremana sortu da. Izan ere, urtetik urtera gero eta gutxiago dira Sagardo Eguna antolatzeko lanetan murgiltzen diren errenteriarak. Herritarren inplikazio-faltaren arrazoen artean, parte-hartzearen krisia aipatzen da, denbora faltagatik edo/eta jendeak konpromisorik hartu nahi ez duelako.

“Garai batean jende gehiagok hartzen zuen parte, baina ikusten da gaur egun jendeari kostea egiten zaiola horrelako lanak hartzea... Egunean zehar jendeak egiten du lana, baina otsailetik hasita horretan aritzeko ez dago prest. Jendeak ez du astirik”. (Elkarrizketa 6).

“Denbora faltagatik baino, uste dut jendeak ez duela konpromisorik hartu nahi. Ez emakumeek eta ez gizonek; ez zaharrek eta ezta gazteek ere”. (Elkarrizketa 6).

Dena den, inplikazio handiena dutenei ere batzuetan **kosta egiten zaie elkartzea, batzuetan biltzeko arazoak edukitzen dituzte, zaintza-lanak direla-eta.**

“Batzuetan bileren orduak jartzea kostatzen zaigu, gutako batzuk haurrak dauzkagulako... Batzuetan eguerdietan egiten ditugu bilerak... Ahal duguna egiten dugu”. (Elkarrizketa 6).

Hartu beharreko erabakiak hiruzpalau lagun horien artean hartzen dituzte, eta ondoren Batzordera helarazten dituzte.

LAN-BANAKETA

Lan-banaketari dagokionez, bakoitzaren zereginak banatuta dauzkate eta horretan bakoitzaren beharrak eta aukerak hartzen dituzte kontuan; lan guztiei garrantzia bera ematen diete.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Ardurak banatzerakoan ez dugu generoa kontuan hartzen. Beharren eta ditugun aukeren arabera banatzen ditugu lanak. Denok egiten duguna oso garrantzitsua da”. (Elkarrizketa 6).

Sagardo Egunean bertan ordea, antolaketa-lanetan batez ere gizonezkoak ibiltzen dira. Gizonak arduratzen dira kaxak deskargatzeaz, mahaiak muntatzeaz, txahala erretzeaz, bazkaria prestatzeaz eta zerbitzatzeaz, etab. **Emakumeek antolaketa-lanetan duten parte-hartzea oso txikia dela ondoriozta dezakegu, beraz.** Nolanahi ere, badaude lan batzuk emakumeek egiten dituztenak: edalontzien banaketaz nahiz garbiketeta-lanez emakumeak arduratzen dira.

“Normalean sagardoa dastatzeko postuetan gizonezkoak egoten dira sagardoa botatzen, eta edalontziak banatzekoan emakumezkoak”. (Elkarrizketa 6).

“Edalontziak beren zapiarekin, pintxoarekin, txukun prestatzen emakumeak aritzen dira”. (Elkarrizketa 6).

“Behin bukatzen denean dena biltzen hiru neska ibiltzen gara”. (Elkarrizketa 6).

Elkarrizketatutako hainbat herritarrek jaiaren inguruan duten pertzepzioa da batez ere gizonezkoek antolatutako festa bat dela.

“Maskulino totala da. Elkarteek antolatzen dute. Gizonak daude denean: antolaketan, sagardoa serbitzen... Muntaiari neskak gara bi eta inguruko guztiak gizonezkoak dira. Jai-eredu oso maskulinoa da”. (Elkarrizketa 3).

GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ETA JARDUERETAN

Sagardo Eguna antolatzen duten kideak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean sentsibilizatuta daudela aipatzen dute, eta balio hori presente edukita antolatzen dutela festa nabarmentzen dute.

“Nik uste antolaketan ibiltzen garenok berdintasunean sentsibilizatuta gaudela, nahiz eta gero igual beste zerbait islatzen den. Baina niretzat hori gertatzen da gizartea oso matxista delako”. (Elkarrizketa 6).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Halere, urteetan zehar antolaketa laguntzen aritu den jendea nahiz sagardo-egileak omentzeko asteartean egiten duten ekitaldian, **orain arte omendu dituzten gehienak gizonak izan dira**. Hori ikusita, sari-banaketako oinarrietan hainbat aldaketa egin dituzte, eta pertsona bakarra omendu beharrean, familia guztia **omentzea erabaki dute, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko**.

“Ikusten genuen ez genuela pertsona bakarra omendu nahi, nahiz eta agintea sagardotegietan gizonak eduki duten, tratuan-eta aitzindariak gizonak izan diren... Horregatik gure oinarrietan jarri dugu familia osoari erreferentzia egitea, ze askotan ikusten dugu sagardotegia ez dela pertsona bat, senarra bakarrik, baizik eta familia osoa dago hor lanean: emaztea sukaldean, seme-alabak banatzen daude... Lehen aitortza personalizatu egiten genuen, eta orain familia osoa omentzen dugu. Besteak beste, berdintasun-ikuspegia kontuan hartuta hartu zen erabakia”. (Elkarrizketa 6).

Antton Mendizabal artistak egindako eskultura baten bidez egiten zaie omendutakoei euren ibilbidearen aitortza, eta interesgarria litzateke saria bera genero-ikuspegitik aztertzea, eta emakume artistak aitortzeko eta euren sorkuntza-lanak sustatzeko baliatzea.

Bestalde, komunikazioaren erabilera berdintasun-irizpideak kontuan hartuta egiteko saiakera egiten da. Horrela, Sagardo Egunean emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, urteren bateko kartelean emakumeak agertu izan dira, eta eguna iragartzeko egiten duten prentsaurrekoan emakumeek parte hartzeko ahalegina egiten da.

Udalaren ekinbideari dagokionez, kultura-jardueretarako diru-laguntzen bidez ematen diote babes ekonomikoa Sagardo Egunari. Bertan, elkartearen bazkide-kopurua sexuaren arabera zehazteaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta genero-rol tradizionalak baztertzeko hartzen diren berariazko neurriei buruz galdetzen da. **Sagardo Egunaren kasuan, 2015eko eskaeran ez da jasotzen berdintasuna sustatzeko berariazko neurririk hartu zenik; horrenbestez,**





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

arestian aipatutako neurria 2015eko eskaeraren ondoren hartu zela pentsa genezake.

Orain arte esandakoak kontuan hartuta, Sagardo Egunean berdintasuna sustatzeko ekimen batzuk egiten diren arren, emakumeen partaidetza areagotzeko eta benetako berdintasunean oinarritutako jai izateko, ezinbestekoa ikusten da neurri gehiago hartzea.

“Mundu horiek oso mundu karratuak dira, gizonezkoak nagusi dira, baina horrelako saiakera gehiago egin behar ditugu”. (Elkarrizketa 6).

3.1.3.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Sagardo Egunean Errenteriako jendeak ez ezik, eskualdeko gainerako herrietako herritarrek ere hartzen dute parte.

“Goizean herritarrak gehiago ikusten dira eta familiak, eta arratsaldean eskualdeko jende gehiago gerturatzen da: Donostia, Irun, Hernani... bezalako herrietako jendea”. (Elkarrizketa 6).

Emakume nahiz gizonek jai berdin-berdin hartzen dutela parte aipatzen da, baina arestian aipatutako sari-banaketan emakumeei eskenatokira igotzea kosta egiten zaie. Izan ere, espazio publikoa historikoki gizonezkoek okupatu dute, eta beraz, orokorrean emakumeak ez dira eroso sentitzen jendaurrean. **Honenbestez, emakumeen partaidetza sustatzeko neurriak hartzeaz gain, interesgarria litzateke emakumeentzako erakargarriagoa den jai-eredua sustatzeko urratsak ematea.**

“Halere, emakumeei kosta egiten zaie etortzea, ez dutelako denen aurrean egotea nahi. Azpiko lanetan badaude, baina gero jendaurrean gizonak daude. Hor lanketa bat





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

egin behar dela uste dut, baina emakumeak ezin ditugu behartu egin nahi ez duten zerbait egitera". (Elkarrizketa 6).

3.1.3.4. Indarkeria matxista

Sagardo Egunean ez da indarkeria matxistaren aurkako herritarren sentsibilizazioa lantzen, eta ez dira erasoei aurre egiteko tresna eta baliabideak herritarren eskura jartzen.

"Sagardo Egunean ez dugu indarkeriarekin lotutako ezer lantzen". (Elkarrizketa 6).

3.1.3.5. Ondorio nagusiak

- Sagardo Eguna antolatzeko lanetan batez ere gizonek hartzen dute parte; eta egunean bertan ere bai. Emakumeek antolaketa-lanetan duten parte-hartzea oso txikia da.
- Lan batzuk banatzerakoan, generoa aldagai esanguratsua da: gizonak arduratzen dira kaxak deskargatzeaz, mahaiak muntatzeaz, txahala erretzeaz, bazkaria prestatzeaz eta zerbitzatzeaz, etab. Emakumeak, berriz, edalontzien banaketaz nahiz garbiketeta-lanez arduratzen dira.
- Sagardo Eguna antolatzekoan genero-ikuspegia aintzat hartzen da sariak banatzerakoan, erabiltzen den komunikazioan, diru-laguntza ematerakoan, etab. Nolanahi ere, emakumeen parte-hartzea handitzeko neurri gehiago hartzearen beharra nabarmentzen da.
- Ez da indarkeria matxistaren inguruko lanketarik egiten. Horregatik, komenigarria litzateke indarkeria matxistaren lanketa Madalenetatik haratago herrian urtean zehar egiten diren gainontzeko festetara ere zabaltzea.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.2. Oiartzun

3.2.1. Xanistebanak

3.2.1.1. Sarrera

Oiartzunen urte osoan zehar hainbat jai antolatzen dira: Euskal Jaia, Sagardo Eguna, Garagardo Festa, Artisau Azoka, Bertso Astea, Ihoteak, auzoetako festak, etab. Halere, esan daiteke Xanistebanak direla Oiartzungo festa nagusiak, eta urtero abuztuaren 2tik abuztuaren 6ra bitartean ospatzen dira. Bost egun horietan adin eta gustu guztietarako antolatutako 95 kultur- edo kirol-ekintza eta ikuskizun antolatzen dira⁴. Xanisteban eguna abenduaren 26an da, eta beraz, berez abenduan beharko lukete festek.

Xanistebanetako egun bakoitzak izaera jakina dauka, eta egun horietako bakoitzean adin-tarte konkretuko herritarrak hartzen dira aintzat. Horrela, Baserritarren Eguna dago, Gazteen Eguna, Helduen Eguna, Haurren Eguna nahiz Xanisteban Eguna aurki ditzakegu.

Egun bakoitzean publiko horri zuzendutako ekintza gehiago antolatzen dira; Haurren Egunean puzgarriak, Baserritarren Egunean pintxo-lehiaketa, sagardo dastaketa, ididema, Gazte Egunean gazte-bazkaria, etab. Egun bakoitzak izaera berezi bat du". (Elkarrizketa 7).

Antolatzen diren ekimenak mota askotakoak dira: kontzertuak, pintura-erakusketak, antzerkia, danborrada, pilota-partiduak... Eta horietan herritar ezberdinek hartzen dute parte.

⁴ Oiartzungo Udalaren webgunetik ateratako informazioa.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“3an sokatirak jende pila bat mugitzen du, 4an danborrada, 5ean Gazte Eguna eta azkeneko egunean Haurren Eguna eta arkume-jatea. Arkume-jana da igual jende gehien biltzen duen ekimena”. (Elkarrizketa 7).

Zenbaiten iritziz, Xanistebanetako une hunkigarriena jaien lehenengo eguna da. Abuztuaren 2ko iluntzean, Udal Gobernu Taldeak soka-dantza dantzatzen die herritarrei, txupinazoaren aurretik. Halere, batzuek aipatzen dute nahiko luze egiten dela.

“Udal-korporazioak, txupinazoa eta gero, herriari dantza egiten dio eta festak hasten dira. Horrek badu zerbait berezia”. (Elkarrizketa 9).

“Zinegotziek soka-dantza bat egiten dute eta esanguratsua da; baina nahiko luzea da, eta astuna egiten da”. (Elkarrizketa 7).

Txupinazoa zeinek bota, berriz, Jai Batzordean erabakitzen da. Normalean hainbat proposamen adosten dituzte denen artean, eta gero erabakia hartzen da.

3.2.1.2. Berdintasuna jaien antolaketan

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Jaien antolatzailea Xanistebanetako Jai Batzordea da. Bertan, herriko kultur- eta kirol-elkarteek hartzen dute parte, 35 bat elkarte dira guztira.

Dinamika eta funtzionamenduari dagokionez, urtero hiruzpalau bilera egiten ditu, martxo-apiriletik hasi eta ekaina-uztaila hasiera bitartean, gutxi gora-behera hilean behin; eta Manuel Lekuona Bibliotekan biltzen da. Herriko festetan ekintzaren bat antolatu nahi duen elkarte, eragile edo norbanakoek tokia izaten dute bertan.

Jai Batzordearen helburuen artean festa parekideak, herrikoiak, euskaldunak, parte-hartzaileak eta askeak antolatzea dago; eta, arestian aipatu bezala, Jai Batzordearen eginkizunen artean dago txupinazoa nork botako duen erabakitzea.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Guk egindako behaketan ikusitakoaren arabera⁵, bilera horien dinamizazioaz Udaleko kultur-teknikaria nahiz ordezkari politikoa arduratzen dira, eta gai-ordena egon ohi da, bileran landuko diren gaiekin. Adin ezberdinetako emakumeek eta gizonak hitz egiten dute, hitz-egite txandak errespetatu egiten dira eta, oro har, dinamika ona da. Lan gutxi banatzen dira partaideen artean, eta **erabakiak bozketa bidez** hartzen dira.

“Jai Batzordean elkarte eta talde desberdinak elkartzen gara, jaietan ekimenak aurrera eramane nahi ditugunak, eta bertan adosten ditugu ordutegiak, behar den azpiegitura, etab. dena modu ordenatu batean”. (Elkarrizketa 9).

“Ia dena lotuta egoten denez, ez dugu lan-banaketarik egiten. Guztira 3 bilera baino ez dira izaten”. (Elkarrizketa 9).

“Jai Batzordean erabaki gutxi hartzen dira, baina hartzen diren erabaki gutxiak bozka bidez hartzen dira: bakoitzak boto bat du. Adibidez, txupinazoa zeinek bota bozka bidez hautatzen da. Bakoitzak proposamen bat eramaten du, eta beti zerbait esanguratsua omentzen da. Adibidez, aurreko urtean ikastolak 50 urte bete zituen, eta eurek bota zuten txupinazoa”. (Elkarrizketa 7).

“Urte batean J

Jai Batzordean proposatu genuen pregoilaria erresidentzian greban zeuden emakumeak izatea eta zaintza-lanen balioa ikusarazteko baliatzea. Bozka gehien jaso zituen proposamena izan zen”. (Elkarrizketa 8).

Jai Batzordearen osaerari dagokionez, herriko elkarteetako ordezkariak hartzen dute parte: kultur-elkarteetakoek, kirol-elkarteetakoek, elkarte gastronomikoetakoek,

⁵ Behaketetan jasotako oharak eranskinetan daude.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

mugimendu feministako kideek, etab. Gainera, Batzordearen baitan hainbat lantalde sortzen dira lan konketuak egiteko: Gau Batzordea, Txosna Batzordea, etab.

Jai Batzordearen bileretako partaidetzaren inguruko datu zehatzik jaso ez badugu ere, elkarrizketatutako herritarrek nabarmendu dute **emakumeek baino gizonezko gehiagok** hartzen dutela parte.

“Gizonezkoak dira gehiengoak. Emakumeak badaude, baina gehiengoa gizonezkoa da. Egia da emakumeak parte hartzen dutela, batzuk gainera betidanik, eta pisuak daukatenak badira, baina elkarte gehienak hartuz gero, gizonezkoak dira”. (Elkarrizketa 9).

Partaidetzan eragina du herriko elkarteetako ordezkari gehienak gizonezkoak izateak, eta, gainera, **ordezkaritza hori ezarritako genero-rolen arabera** da, kasu batzuetan. Gainera, herritar batzuek uste dute Xanistebanetan antolatzen diren **ekimen-motek ere eragina** dutela Jai Batzordearen osieran:

“Pilotako ordezkaria gizona da, txirrindulari taldekoa gizona, futbolekoa ere gizona, arraun taldekoa ere bai... Azkenean elkarte guztietako ordezkariak gizonak dira. Emakumeak gara uste dut, abesbatzakoak, dantzakoak, gazte asanbladakoak eta ni, txosna batzordetik”. (Elkarrizketa 7).

“Jai Batzordean gizonezko gehiago daude, antolatzen diren istorioak igual gizonezkoekin lotuta egon izan ohi direlako, kirol-istorioak direlako gehienbat”. (Elkarrizketa 10).

Gainerako lantaldeei erreparatzen badiegu, generoaren arabera osiera ezberdina bada ere, **emakumeen parte-hartzea igo** egiten dela esan dezakegu: Txosna Batzordean batez ere emakumeek hartzen dute parte, eta Gazte Egunaren antolakuntzan ere bai; baina, aldiz, Gau Batzordean partaidetza parekidea da, eta presoen aldeko brindisa antolatzeko lantaldean gizon gehiagok hartu ohi du parte.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Gau batzordean erdi eta erdi gaudela esango nuke, eta txosna batzordean denak emakumeak gara”. (Elkarrizketa 7).

Halere, herritar **batzuek ez dute genero-bereizketarik** sumatzen, eta jaien antolakuntza nahiko parekidea dela nabarmentzen dute.

“Parte-hartzean ez dut gora-behera edo alderik sumatu emakume eta gizonen artean. Gaur egun nahiko modu parekatuan hartzen dugu parte. Oiartzun zentzu horretan nahiko herri parekidea da, nik behintzat horrela bizi izan dut”. (Elkarrizketa 10).

LAN-BANAKETA

Arestian aipatu bezala, Jai Batzordean ez da lan-banaketa handirik egiten, eta gainontzeko lantaldeetan lanak eta ardurak banatzerakoan, **bakoitzaren ahalmen eta aukerak** hartzen dira kontuan, eta urtero antolakuntza-urrats berak jarraitzen dira:

“Txosna Batzordean ez daude ardurak banatuta; martxaren arabera, bakoitzaren aukeren arabera, banatzen ditugu”. (Elkarrizketa 9).

“Ekimen berdintsuak egiten ditugunez urtero, nahiko mekanizatuta dugu dena”. (Elkarrizketa 7).

Halere, kasu batzuetan **zereginak genero-rolen arabera** banatzen dira: muntaketa-lanak eta barran zerbitzatzen gizonak egon ohi dira; emakumeak, aldiz, sukaldean jana prestatzen.

“Barran eta sukaldean zein dauden oso bereizita egoten da askotan. Sukaldean gehiago dira emakumeak, eta barran igual parekideagoa da, baina nik uste halere gizon gehiago egoten direla. Azpiegitura muntatzen ere gehiengoak gizonekoa da”. (Elkarrizketa 9).

“Emakumeak normalean daude sukaldean, eta gizonak barran”. (Elkarrizketa 7).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Bestalde, Oiartzunen bereizgarrietako bat bada auzo ezberdinak edukitzea, guztira 8 auzo daude, eta horietan guztietan dituzte jaiak. Xanistebanetako lan batzuk banatzerakoan ere, **auzoek paper garrantzitsua** jokatzen dute.

“Auzoka antolatzen dira txosnako turnoak, auzo bakoitzak egun bat du; orduan auzoan bertan arduratzen dira jendea bilatzeaz”. (Elkarrizketa 9).

“Gauza batzuetan oraindik auzoek pisu handia edukitzen jarraitzen dute”. (Elkarrizketa 7).

GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ETA JARDUERETAN

Jaietako programazioa diseinatzerakoan eta jarduerak antolatzerakoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari dagokionez, **genero-ikuspegia kontuan hartzen da** gauza batzuetan. Esate baterako, festetako kartel-lehiaketako oinarrietan genero-berdintasuna bermatzeari erreferentzia egiten zaio; eta, horrez gain, musika-taldeak kontratatzerakoan nahiz txosnetako musika aukeratzekoan kontuan hartzen da, nahiz eta zalantzak dauden urtero egiten den ala ez, eta denek ez duten egindako saiakeren berri.

“Musika aldetik-eta zaintzen da, Udalak genero-ikuspegiaren irizpidea jarrita dauka, eta ezin da edozein talde ekarri. Adibidez, gauean dauden kontzertuetan denak gizonak izatea debekatuta dago, edo behintzat, bilaketa horretan, emakumeak dituen talde bat lehenesten da”. (Elkarrizketa 7).

“Txosnetan jartzen den musika jartzerakoan irizpide batzuk jarrita daude: bat hizkuntzarena, eta bestea eduki sexistak ez edukitzea. Baina gero beti bronkak egoten dira, jendeak tabernetako musika bera entzun nahi duelako”. (Elkarrizketa 7).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Gaueko batzordean kontratu feminista egin genuen. Kontratatutako taldeei proposatzen genien konpromisoa hartzea jarrera matxistarik ez zituztela edukiko; baina nik uste hori behin egin dela”. (Elkarrizketa 8).

“Jai Batzordean agertu izan da kezka tabernetan eta txosnetan jartzen den musikaren inguruan, azkenaldian modan dauden reggaetoia eta horrelakoek eduki sexista edukitzen dutelako; baina ez dut uste sekula gaiari heldu zaionik”. (Elkarrizketa 9).

Halere, oro har, festak antolatzerakoan genero-berdintasuna sustatzea **ez dela era integralean lantzen** azpimarratzen dute herritar batzuk, eta hori bermatzeko **mugimendu feministaren implikazioa** funtsezkoa dela aitortu dute hainbatek.

“Ez dago ikuspegi feminista barneratuta. Gu hara goaz eta nolabait gure pedrada da. Ez dago barneratuta. Espazio horietan hainbeste egon ez garenean gauza batzuk ez dira bermatu. Akuilu lana egin behar dugu”. (Elkarrizketa 8).

“Ez da kontuan hartzen. Uste dut ez garela kontziente gizarte patriarkatu hau noraino sartuta daukagun. Zehazki berdintasuna bultzatzeko ez dugu ezer antolatzen. Antijumorik hor daude eta istorio dexente lantzen dituzte, eta eskerrak”. (Elkarrizketa 10).

“Oro har ez da pentsatzen ekimen zehatzetan emakumeen parte-hartzea nola indartu”. (Elkarrizketa 7).

“Jendeak guregana jotzen du batzuetan, baina askotan erantzunak ematea ere kostatzen zaigu, ze guk ere ez daukagu soluzio magikorik”. (Elkarrizketa 8).

Illo honetan, mugimendu feministak, eta zehazki, Antiju Morik taldeak, duela urte batzuk jaien inguruko hausnarketa eta lanketari heldu zion, antolatu ohi diren





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

jardueren inguruko diagnostikoa eginez eta genero-parekidetasuna sustatzeko hainbat hobekuntza-proposamen landuz⁶. Horrela, jaietan ikusi dituzten hutsuneak Udalari azaldu dizkienean, **Udalak beti jarrera ona** eduki duela nabarmentzen dute, egindako planteamendu eta proposamenak aintzat hartu dituelako. Dena den, **egindako lan guztia ordenatzea eta sistematizatzea falta** dela nabarmendu dute, benetako bultzada ematea gaiari, eta denen artean irizpide argiak zehaztea.

“Nire uste akatsa da Udalak ez duela ezer sistematizatu. Seguraski gobernu aldaketak eta teknikari bat ez egoteak horretan eragingo du. Borondate ona dago, baina gabeziak daude, ez dago barneratuta (...) Gaueko batzordean ere ez dute ezer sistematizatu; gure aldetik ere ez dugu ezer egin... Denon artean irizpide argi batzuk finkatzea falta zaigu. Dagoeneko egin diren ekimen batzuk ere ez dira sistematizatu”. (Elkarrizketa 8).

Komunikazioaren erabilerari dagokionez, Xanistebanetako 2008ko programan pertsonen silueta batzuk agertzen ziren marrazki gisa, jaietako ekimenekin lotutako zereginetan: pertsona bat harria jasotzen, idiari tiraka, harria jasotzen, dantzatzen, danborra jotzen, etab. **Herri-kiroletan agertzen zirenak gizonezkoen** siluetak ziren. 2016ko programan, berriz, ez zen argazkirik agertzen, eta bai aldiz eraso sexisten aurrean herritarrei nola jokatu azaltzeko argibideak. Bukatzeko, programaren gatzelaniazko bertsioan **kasu batzuetan maskulino generikoa** erabiltzen da, eta beraz, ez du ematen komunikazio ez-sexista eta barneratzaileko irizpide argiak zehaztuta daudenik.

3.2.1.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

⁶ Ikusi “Xanistebanak antiju morikin ikusita” txostena (2013).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Xanistebanetako **programazioari dagokionez, urtetik urtera berrikuntza gutxi** egoten dela aipatzen da, eta urtero antzeko ekimenak antolatzen direla.

“Festak antolatzerakoan iazko programa hartzen da kontuan, eta gauza berritzaile gutxi egiten dira”. (Elkarrizketa 8).

“Niri betikoak iruditzen zaizkit, urtero errepikatzen diren jai batzuk dira; baina herriko jai zentralak dira”. (Elkarrizketa 9).

Jaien izaera orokorrari erreparatuta, elkarrizketatu ditugun herritar batzuen iritziz, Xanistebanak **landa-giroko ospakizunak** dira.

“Baserritar giroko festak dira, baserritarrentzat antolatzen dira ekimen gehienak, eta gero aparte parranda dago gauetan. Ez dago besterik”. (Elkarrizketa 7).

Genero-ikuspegitik so eginda, orokorrean **jaiak maskulinoak** direla irizten diote batzuek, eta antolatzen diren ekimenak ez direla erakargarriak emakumeentzat.

“Antolatzen diren ekintzak ez dira emakumeentzako erakargarriak. Jaiak oso maskulinoak dira orokorrean, tradizionalki gizonezkoak egon direlako espazio publikoan eta emakumeak etxean, eta horrek eragina du oraindik ere”. (Elkarrizketa 8).

Antiju Morik taldeak 2013an egindako azterketaren arabera, urte hartan antolatutako ekintzen %50a **kirola eta musikarekin lotuta** zegoen, eta herritar batzuek ere irudipen bera dute.

“Kirolarekin lotutako gauza dezente daude”. (Elkarrizketa 7).

Zehazki, Xanistebanetan antolatzen diren jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartzea aztertzeko, Jai Batzordeko kideek bete zituzten ekintzen balorazio-fitxak hartu dira oinarri gisa. 2013, 2014, 2015 eta 2016ko datuak eskuratu ahal izan ditugu, eta





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

balorazio-fitxa horietan ekintza bakoitzaren inguruko informazioa jaso da; besteak beste, ekimenen antolaketan zenbat pertsona ibili diren, antolatutako jardueran zenbat pertsonak parte hartu duten eta ikusle-kopurua, kasu guztietan sexua zehaztuta. Horrela, ekintzan parte hartutako pertsonak “antolakuntza”, “parte-hartzaileak” eta “ikusleak” diren zehaztu da.

Dena den, aipatu behar da kasu batzuetan jasotako datuak ez direla oso fidagarriak; izan ere, ekintza batzuetan ez dira datu horiek guztiak jaso, eta, gainera, pertsona asko biltzen dituzten ekimenetan emandako datuak ere gutxi gora-beherakoak dira. Horregatik, datu horien irakurketa orokorra egin dugu egon daitezkeen joera nagusiak azalduz, zehaztapen gehiegitan sartu gabe.

Antolatutako jarduerak horrela multzokatu dira:


- **Kirol-jarduerak:** Kirolarekin zerikusia duten jarduerak: kirol-lehiaketak, herri-kirolak, etab.
- **Musika eta dantza:** Kontzertuak, dantzak eta dantzaldiak...
- **Desfileak:** Danborrada, eta manifestazioak.
- **Kultur ekitaldiak:** Pintura-lehiaketak, antzerkia, erakusketak, etab.
- **Gastronomia:** Herri-bazkari eta afariak, produktu ekologikoen azoka, etab.

Kirol-jarduerei dagokienez, pilota- eta pala-txapelketa, txirrindulari saria, eta krosa bezalako ekimenak aztertu dira. Lau urte horietan zehar gizonetakoak nagusitu dira nabarmen, bai antolakuntzan, bai parte-hartzaile bezala eta baita ikusle gisa ere. Urte guztietan, kirol-jardueretako emakumeen partaidetza altuena ikusle gisa eman da.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Elkarrizketatutako herritarren pertzepzioa ere bada antolatutako kirol-jardueretan gizonak nagusitzen direla.

“Badira ekimen batzuk, nahiz eta modu irekian antolatzen diren, lehenagotik markatutako irizpide batzuegatik, gizonezkoek emakumeek baino gehiago parte hartzen dutenak; batez ere kirolean zentratzen direnak: sokatira, futbito-txapelketa, etab. Badaude emakume-taldeak parte hartzen dutenak, baina ez proportzio berean”. (Elkarrizketa 9).

“Herri-kiroletan, idi-deman-eta, denak gizonak dira...Kirolean ere, %90a gizonak dira: sokatiran, krolean... gizonak nagusitzen dira. Berez irekiak dira, eta pixkanaka emakumeak sartzen ari dira, baina...”. (Elkarrizketa 7).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Pala-txapelketan nahiz esku-pilotan ere batez ere mutilek hartzen dute parte.

“Binakako pala txapelketan ere gizonen parte hartzea ikaragarri handiagoa da. Baina eragin den eremu bat da Emakumeak pilotari eta antzeko ekimenen bidez, eta gero eta neska gehiago daude. Oso poliki doa”. (Elkarrizketa 10).

Halere, **herri-kiroletan emakumeek osatutako taldeak ere badaude**. Jaietako sokatira-txapelketan, esate baterako, gizonetako talde bat ateratzen dute auzo bakoitzean (guztira zortzi talde); eta, emakumeen kasuan, auzo ezberdinetako emakumeak elkarren artean nahasten dira, eta guztira gehienez lau talde ateratzen dituzte. Harriak tiratzen ibiltzen den emakume-talde bat ere badago: “Emarri”.

“Herri kirol bat da, eta emakumeen parte hartzea badago baina ez gizonen maila berean, nahiz eta emakumeen sokatira-taldeak izan diren Oiartzunen”. (Elkarrizketa 10).

“Herri-kiroletan, “Emarri” taldekoak daude, idiekin harriak tiratzen ibiltzen dira; eta horiek herriz herri asko ibiltzen dira erakustaldiak egiten (...) eta bada talde bat herrian itzal bat duena”. (Elkarrizketa 9).

“Egia da sokatiran, urte batzuk atzera, emakumeak eta gizonak ateratzen zirela (...) Eta urte batetik bestera generazio oso batek utzi egin zuen, eta emakumeen sokatira desagertu egin zen. Gaur da eguna emakumeak ateratzen direla, baina lauzpabost talde bakarrik. Arazoak daude taldeak osatzeko, eta lehengo xarma hori galdu egin da”. (Elkarrizketa 7).


Musika eta dantza-ikuskizunekin lotutako jarduerak dira Xanistebanetan gehien antolatzen diren jarduera-motak. Gauetako kontzertuetako musika-talde gehienak gizonetako osatutakoak dira oraindik ere, nahiz eta emakume musikarien partaidetza areagotzeko saiakerak egiten ari diren Udala eta herri-eragileak.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Taula honetan 2010etik 2013ra bitartean Xanistebanetan programatutako gaueko kontzertuetako musikari-kopuruaren datuak jaso ditugu, sexuaren arabera bereizita. Lau urte horietan, **kontratutako musikarien % 70etik gora gizonezkoak** izan dira.



Iturria: Antiju Morik


“Gaueko musika-taldeak normalean gizonezkoenak dira, askorengatik, gainera”.
(Elkarrizketa 9).

2013tik 2016ra bitartean antolatutako musika eta dantza-ikuskizunei dagokienez, datu hauek jaso ditugu:





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa




Arlo honetan, emakumeen parte-hartzea kirol-jardueretan baino handiagoa da, eta bi sexuen arteko kopuruak nahiko orekatuak dira. Halere, gizonen partaidetza emakumeena baino nabarmen handiagoa izan da 2015ean, antolakuntzan nahiz parte-hartzaileen artean. Urte guztietan, musika eta dantza-emanaldietako ikusleen artean, emakumeak nagusitzen dira.

Kultur ekitaldiei dagokienez, esan daiteke jaietan emakumeek gehien parte hartzen duten ekimen-motak direla. 2013tik 2016ra jasotako datuek agerian uzten dute, urte horietan guztietan gizonak baino emakume gehiago aritu direla antolatzaile, parte-hartzaile nahiz ikusle gisa jarduera horietan.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Desfileen multzoan, danborrada zein manifestazioak hartu dira kontuan.

Eskuratutako datuen arabera, **emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua** izan da, edo kasu batzuetan, emakumeen parte-hartzea gizonena baino altuagoa izan da, bai antolakuntzan, eta baita ekimen horietan parte hartzen ere.


“Danborrada Xanistebanetako ekimen potente bat da, eta hor nahiko parekatu hartzen dute parte, bai antolaketa eta baita parte hartzen ere”. (Elkarrizketa 10).

“Danborrada nahiko parekidea da. Agian gazteen artean, gauza guztietan bezala, emakume gehiagok hartzen dute parte; baina helduen artean nahiko parekidea da”. (Elkarrizketa 7).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa




Azkenik, **gastronomiarekin** lotutako jarduerak jaso ditugu: sagardo lehiaketa, Baserritar Eguneko azoka, afari feminista, etab. Kasu honetan 2014, 2015 eta 2016 urtetakoak. 2014an antolakuntzan gizonak baino emakume gehiago ibili badira ere, hurrengo bi urteetan bai antolakuntzan eta bai ekimenetan parte hartzen gizonak emakumeei gailendu zaizkie.

“Marmitakoan ere denak gizonak dira, pasada bat da. Emakumeren bat igual... baina denak gizonak dira. Eta esaten diezu zerbait, eta gainera gaizki begiratzen dizuete”. (Elkarrizketa 7).





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Jaietako ekimenetan berdintasuna sustatzeko ekimen batzuk egiten badira ere, eta ikuspegi hori gero eta presenteago dagoela ematen badu ere, herritar batzuei iruditzen zaie **jai-ereduaren inguruko hausnarketa kritikoa** egitea komeni dela, ekimen solteak egitetik haratago.

“Guk hor partxe batzuk bakarrik jartzen ditugu aldaketa txiki batzuk eragiteko, baina iruditzen zaigu jaiak estrukturalki aldatu behar direla”. (Elkarrizketa 8).

“Igual onartu beharko litzateke gauza batzuek ez dutela tokirik denbora-tarte batean, baina hori inoiz ez da planteatzen”. (Elkarrizketa 8).

ZAINZA-LANAK JAIETAN





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Adineko pertsonen, haurren nahiz behar bereziak dituzten pertsonen zaintza-beharrek Xanistebanetan hartzen duten tokiari erreparatu nahi izan diogu. Herritar batzuek nabarmendu dute **sentsibilizazio-ekimenak** egin izan dituztela zaintza-lanak ikusarazteko, eta horien banaketa orekatua aldarrikatzeko.

“Azkenean jaiak eguneroko bizitzaren errealitatea da, eta eguneroko errealitate horretan oraindik zaintza ez dago banatuta”. (Elkarrizketa 8).

Jaietan haurrentzako antolatutako ekimenetan aitak ere ikusten direla nabarmentzen da, baina hurrekin jarrera aktiboa dutenak gehienbat amak direla aipatzen da. Bikote gazteen kasuan, parranda egiteko gurasoak euren artean txandakatu egiten dira.

“Umeentzako ekitaldietan aitak ere ikusten dira, baina umeekin jarrera aktibo batekin, eurekin dantzan etab. amak daude. Umeekiko dinamizazio hori amek egiten dute”. (Elkarrizketa 8).

“Bazkariak direnean normalean hurrekin jolasten emakumeak, eta gizonezkoak mahaian tertulian”. (Elkarrizketa 9).

“Hori bai, gero ateratzen zara parrandan eta mundu guztiak non dago semea? galdetzen dizu, eta aitari inork ez dio hori galdetzen”. (Elkarrizketa 8).

3.2.1.4. Indarkeria matxista

Jaietan emakumeen kontrako erasoak ohikoak direla azpimarratzen da.

“Nolabait definitzeko, intentsitate baxuagoko erasoak nik uste dut barra-barra gertatzen direla” (Elkarrizketa 9).

Eraso larriagoko kasuak ere gertatu izan dira, eta hor Udalak nahiz Jai Batzordeak erantzun egin dute. Izan ere, festetan gertatzen diren indarkeria-kasuei erantzuteko





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

bitartekoak jartzen dira. **“Krisi Mahaia”** izeneko gunea sortzen da urtero jaiak baino lehen, alkatetzak, berdintasuneko zinegotziak, gizarte-langileak, udaltzainek, osasun-etxeak eta mugimendu feministak hartzen dute parte. Emakumeren bat erasotzen badute eman beharreko urratsak definitzen dira bertan, eta adostutakoa Jai Batzordean aurkezten da.

Gainera, mugimendu feministak ere indarkeria matxistaren inguruko lanketa egiten du. Aurtengo Xanistebanetan, esaterako, jaien aurreko astean, eraso sexistak identifikatzeko eta horiei erantzuna emateko asanblada deitu zuten hainbat gazte-eragilek eta Antijumorik talde feministak. Bertan, 15 eta 40 urte bitarteko 40bat gaztek hartu zuten parte. Eraso sexistei aurre egiteko kita sortzea erabaki zuten: eraso salatzeko txilibitua, “erasotzaileak” hitzarekin pegatina erasotzaileei pegatzeko, horiek erabiltzeko argibideak eta Oarsoaldeko udalerriek batera sortutako protokoloa azaltzen zuen txartela. Gainera, txosna-gunean mikrofono bat jarri zuten, inguruan erasotzailearen bat balego, mikrofono bidez salatzeko. Adostutakoa Jai Batzordean eta Krisi Mahaian azaldu zen.

“Telefono bat ere zabaltzen da txosnetan, eta kartelak eta esku-orriak ere banatu izan dira, mugimendu feministaren ekimenez”. (Elkarrizketa 9).

3.2.1.5. Ondorio nagusiak

- Jai Batzordean emakumeek baino gizon gehiagok hartzen du parte. Jaiak antolatzeko beste gune batzuetan, ordea, emakumeen partaidetza gizonena baino handiagoa da: Txosna Batzordean eta Gazte Egunaren antolaketan, esate baterako.
- Lan-banaketa egiterakoan, bakoitzaren ahalmenak eta aukerak hartzen badira ere aintzat, ezarritako genero-erolek eragina dute: muntaian nahiz barran gizonezkoak daude, eta emakumeak, berriz, sukaldean.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Jaietako programazioa diseinatzerakoan eta jarduerak antolatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da gauza batzuetan: jaietako kartel-lehiaketan edota musika-taldeak kontratatzerakoan. Halere, egindakoa ez da sistematizatzen, eta ez dira neurriak ikuspegi integraletik planteatzen; jai-ereduaren gaineko hausnarketa egitea komeni da.
- Jaietan landa-giroko eta kirol-arloko jarduera dezente antolatzen dira, eta horietan emakumeen parte-hartzea oso txikia da.
- Zaintza-lanei dagokienez, jaietan haurrentzako antolatutako ekimenetan aitek ere parte hartzen dute, baina “haurren dinamizazioan” batez ere amak nagusitzen dira.
- Indarkeria matxistarekin lotutako lanketa egiten da jaietan: Krisi Mahaia eratzen da, eta mugimendu feministak ere prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpaina egiten du.

3.2.2. Ihoteak

3.2.2.1. Sarrera

Oiartzungo Ihoteak jatorri mitologikoa duten festak dira. Oiartzunen, beste hainbat tokitan bezala, inauteriak desagertzea ekarri zuen Francoren diktadurak; baina 1989. urtean Ugaldetxo Kultur Taldeko kideak herriko auzoetan barrena ibili ziren inauteriak ospatzen, mozorrotuta. Urte hartan bertan, gainerako auzoetako jendeari dei egin zieten, eta elkarrekin herrian nolako inauteriak ospatu nahi zituzten hausnartzen hasi ziren⁷.

Horrela, pixkanaka, gaur egun ezagutzen ditugun Ihoteetara iritsi gara. Oiartzungo Ihoteak ohiko inauteriak baino astebete lehenago ospatzen dira, eta hasieran 2 eguneko ospakizuna bazen ere, egun 3 egun irauten du festak.

⁷ Informazio gehiago www.oiartzungoihotik.eus helbidean aurkituko duzue.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Herriko izaki mitologikoak jaisten dira: intxixuak eta sorginak; eta orain basandreak ere bai. Urte osoan ez daude herrian, eta egun horietarako bakarrik jaisten dira. Asteburu horretan herria hartzen dute, beraiena da herria”. (Elkarrizketa 7).

Ihoteekin garai bateko ohitura berreskuratu dute Oiartzunen, beraz. Eta urtetik urtera indartzen ari den festa da.

“Ihoteak asteburu batean ospatzen dira, eta nire ustez gero eta indar gehiago duen jai bat da”. (Elkarrizketa 9).

3.2.2.2. Berdintasuna jaien antolaketan

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Ihoteak antolatzeko batzorde edo lantalde bat dago eratuta, eta bertan emakumeen eta gizonen **partaidetza nahiko parekidea** dela azpimarratu dute herritarrek, nahiz eta agian emakumeek gizonak baino gehiago parte hartzen duten.

“Uste dut lantaldean nahiko paretsu gaudela... Iguale gehixeago gara neskek, taldean ere sorgin gehiago ateratzen garelako”. (Elkarrizketa 7).

“Talde bat dago eta nahiko parekatuta daude emakumeak eta gizonak”. (Elkarrizketa 10).

Ihote Batzordean **lanerako giro ona** daukate, eta elkar ezagutzeak horretan laguntzen die; lagun-taldea dira azken finean, eta horrek eroso sentiarazten ditu partaideak proposamenak edota planteamenduak egiterakoan.

LAN-BANAKETA





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Jaiak antolatzerakoan sortzen diren **ardurak eta lanak denen artean** banatzen badituzte ere (esate baterako, desmuntatzerakoan, denen artean egiten dituzte lan guztiak), **zeregin batzuk emakumeek egin ohi dituzte, eta beste batzuk gizonek**. Adibidez, muntaiarekin lotuta, kanabera bila beti gizonak joan ohi dira.

“Ardurak denon artean banatzen ditugu. Baina intxixuen kontuak batez ere gizonek kudeatzen dituzte, eta sorginenak emakumeek, beraiek ateratzen direlako; baina pertsonaiei lotutako zerbait delako. Bestela, betiko lanak dira, eta bakoitzak badauki zer egin behar duen. Oso barneratuta dugu”. (Elkarrizketa 7).

3.2.2.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Oiartzungo lhoteetan pertsonaia ezberdinak agertzen dira, nagusienak hauek dira: Intxixuak, Sorginak eta orain dela gutxi sortutako Basandriak. Xanistebanetan bezala, lhoteetan ere auzoek paper garrantzitsua jokatzeko dute, eta horren adierazgarri da aipatu ditugun pertsonaia nagusi horiek auzo bakoitzean karakterizazio propioa hartzen dutela. Pertsonaia nagusi horiez gain, honako hauek ere badaude: Otegitona, Zomorroa, Zomorrozinko eta Suzko akerra.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Egitarauari dagokionez, ostiralean ematen zaie jaiiei hasiera. Aipatutako pertsonaiak herriko plazara jaisten dira, Azeri Dantza eta Sorgin Dantza dantzatzen dituzte herritarrekin batera, eta gero berriro desagertu egiten dira. Ondoren, suak pizten dira, eta udaletxean kolore ezberdinetako banderak jartzen dira: auzo bakoitzak bere kolorea du.

Hurrengo egunean, larunbatean, “kuestazioa” egiten da, hau da, etxez etxe eta baserriz baseri ibiltzen dira puskak biltzen; garai batean janaria biltzen zen, gaur egun, ordea, dirua biltzen da. Auzo bakoitzeko herritarrak euren auzoetan ateratzen dira, eta egun guztiko festa da. Bilketa-lana egin eta gero, bazkariak egiten dira auzo bakoitzeko elkarteetan, eta iluntzean denak herriko plazan elkartzen dira, poteoan segitzeko.

Azkeneko egunean, igandean, kalejira egiten da. Arratsaldean, sorginek udaletxeko banderak kentzen dituzte, eta festa Intxixu eta Sorginen agurrarekin bukatzen da.

“Ostiral arratsaldean etortzen dira, eta igandean joan egiten dira. Tarte horretan, edozein ordutan eta edozein tokitan azal daitezke: futbol zelaian, autobusean, kiroldegian, mendian...”. (Elkarrizketa 7).

lhoteak nahiko festa parekideak iruditzen zaizkie herritar batzuei, eta sortutako pertsonaiak genero gabeak direla nabarmentzen dute. Dena den, **personaia horien errepresentazioa sexuaren arabera egiten da**. Izan ere, normalean sorgin denak emakumeak izaten dira, sorginak dantza taldetik sortu zirelako, eta hor gehiengoa neskak zirelako. Intxixuak, berriz, gizonezkoak izan ohi dira.

Orain lhoteen Batzordetik hori aldatzeko ahalegina egiten ari dira, baina herritarren **irudikapen mentalak aldatzeko zailtasunak** sumatzen dituzte.

“Berez, personaia bezala, ez daukate sexurik... Baina orain hori aldatzen saiatzen ari gara, baina ez da erraza (...) Aurten neska bat atera da intxixu bezala eta denak oihuka: Ze intxixu txikia! Neska da! Neska da! Eta guk sortu ez dugun zerbait da eh,





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

sekula ez dugu hori sustatu, baina ematen du jendearen burutan dagoela generoa”. (Elkarrizketa 7).

“Berez intxixuak txikiak eta bizkorak dira, baina guk irudikatzen ditugu handiak eta zabarrak (...) Baina guri oso zaila egiten zaigu hori aldatzea, jendearengan oso errotuta dagoelako”. (Elkarrizketa 7).

Hasiera batean intxixuak sortu ziren, eta ondoren sorginak. Elkarrizketatu ditugun herritar batzuen iritziz, sorginen figura sortzeko erabakia hartu izana erantzun egokia izan zen momentuko gabezi bati aurre egiteko, emakumeen eskubideak eta herritartasuna lhoteetan aldarrikatzeko, baina uste dute beste jauzi bat egiteko garaia heldu dela: erronka nagusia **genero-rol eta estereotipoak erreproduzitzen ez dituzten pertsonaiak sortzea** da.

“Neskak igual ez dira identifikatuta sentitzen intxixuekin sortu duten estereotipo maskulino horrekin (indarra, zakarkeria...). Orduan, zer gertatzen da? Daukagula heteropatriarkatua intxixuetan oinarrituta (...) Beraz aldi berean pentsatu behar duguna da zer eta nola egingo dugun pertsonaia hauek ez hain heterosexualak izateko. Nik uste egun dugun erronkarik handiena hori dela: nola egiten dugu intxixuak ez hain mutilak izateko eta sorginak ez hain neskak izateko? Arazoa da tradizio bat sortzen ari direla poliki-poliki, eta tradizioek duten arriskua da ongi ez egokitzea”. (Elkarrizketa 8).

Pertsonaietatik haratago, baina ezarritako genero-rolekin jarraituz, ostiralean ateratzen diren **txistulari gehienak gizona** izaten dira.

“Ostiralean banderak igo eta gero herriko musikariak ateratzen dira, eta hor txistulari guztiak gizonak dira, nahiz eta pixkanaka emakume gutxi batzuk ere ateratzen diren”. (Elkarrizketa 7).

“Kuestazioan” dantzari-trajea jantzen da: emakumeak poxpoliñez (zuri-gorri) jantzita ateratzen dira, eta gizonak ohiko dantzari-arropekin





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Baina askotan neskek mutilez janzten dira, eta mutilak neskez”. (Elkarrizketa 7).

“Kuestazioan mutil batzuk ateratzen dira poxpolinez jantzita, en plan katxondeo”. (Elkarrizketa 8).

Oro har, **batez ere emakumeak** ateratzen dira eskean.

“Kuestazioan gehiengoa emakumeak dira, nahiz eta gero mutilak parrandan ateratzen diren”. (Elkarrizketa 7).

3.2.2.4. Indarkeria matxista

Ihoteak antolatzerakoan, Udalak nahiz herri-eragileek **ez dute indarkeria matxistaren inguruko lanketarik egiten**. Kasu batzuetan, gainera, ez da horren beharrik ikusten.

“Ihoteetan ez dugu sekula gaia landu, igual ez dugulako beharra ikusi”. (Elkarrizketa 7).

Horregatik, ez legoke gaizki Ihote Batzordeko kideekin gaiaren inguruko sentsibilizazioa lantzea.

3.2.2.5. Ondorio nagusiak

- Ihote Batzordean emakumeen eta gizonen partaidetza nahiko parekidea da, nahiz eta agian emakumeek gizonen baino gehiago parte hartzen duten.
- Lan-banaketari dagokionez, oro har, lanak denen artean banatzeko saiakera egiten bada ere, genero-rolen eraginez zeregin batzuk emakumeek egin ohi dituzte, eta beste batzuk gizonen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Ihoteetako pertsonaien errepresentazioa sexuaren arabera egiten da. Erronka nagusia beraz, genero-rol eta estereotipoak erreproduzitzen ez dituzten pertsonaiak sortzea da.
- Ez da egiten indarkeria matxistarekin lotutako inolako lanketarik.

3.2.3. Iturriozko jaiak

Oiartzungo Iturriotz auzoko festak Santiagotan dira, uztailaren 24an hasten dira lertxunaren altxaerarekin, eta uztailaren 31n bukatzen dira, San Inazio egunarekin. Izaera erlijiosoko festak dira, eta auzoan betidanik antolatu dira festa hauek.

Auzotarrentzat jaiak oso bereziak dira, bereziki San Inazio eguna, askorentzat festetako egunik garrantzitsuena da.

“Guretzako egunik handiena uztailaren 31a da, San Inazio eguna. Hor egiten dugu bazkaria, erromeria... Hori da denak libratu nahi dugun eguna”. (Elkarrizketa 11).

Egun horretan auzotar guztiak plazara, ekitaldi guztiak egiten diren espaziora, jaisten dira bazkaltzera. Idi-demak, erromeriak, bingoak, haurrentzako puzgarriek eta toka-txapelketak bezalako jarduerak betetzen dute egitaraua.

“Plaza guztia festarako erabiltzen dugu (...) Dena hor kontzentratzen dugu. Eta txarra egiten badu, frontoira mugitzen da festa”. (Elkarrizketa 11).

Herritar batzuen ustez, auzoetako festek bilakaera bat eduki dute azken urteetan.

“Auzoetako jaiak bilakaera bat eman dute azken hamarkadan, auzoetara, euren gune naturaletara, bueltatu direlako”. (Elkarrizketa 9).

3.2.3.2. Berdintasuna jaien antolaketan





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

ANTOLAKUNTZA-GUNEAK

Iturriozko festak Jai Batzordeak antolatzen ditu. Azken urteetan belaunaldi-aldaketa egon da, eta ondorioz, gaur egun batez ere gazteek hartzen dute parte, auzoko gazteak dira jaien antolakuntzaz arduratzen direnak.

Sexuaren aldagaia kontuan hartuta, **emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa** da.

“Esango nuke emakume gehiago daudela gizonak baino”. (Elkarrizketa 10).

*“20 pertsona gara, eta badaude mutil batzuk, baina egia esan gehiago nagusia emakumeak gara. Iguar daude 8 mutil, eta beste denak emakumeak gara (...)
Bileretara ere gehienbat emakumeak etortzen gara”.* (Elkarrizketa 11).

Jaietako San Inazio egunean egindako behaketatik⁸ ere ondorio bera atera dezakegu: egun horretako hainbat ekimenen antolaketaz arduratzen diren gehienak emakume gazteak dira; horiek dira idi-probako zozketaz arduratzen direnak, nahiz herri-bazkarirako mahaia prestatzen dituztenak.



⁸ Iturria: Iturriozko jaietan egindako behaketa, 2010eko uztailaren 31n. Behaketetan jasotako oharrak eranskinetan daude.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Jaiak antolatzeko dinamikari dagokionez, urte hasieran hasten dira festak antolatzen. Lehenengo asteetan dinamika biziagoa izaten da, egitarauko ekimenak lotzen ibiltzen dira, eta astero elkartzen dira. Behin egitaraua itxita, bilera gutxiago egiten dituzte, eta hamabostean behin-edo elkartzen dira.

Jai Batzordeko giroa ona da, bileretan ongi pasatzen dute; baina hasieran, Jai Batzordean sartzera, adin-ezberdintasunagatik, erreparatu pixka bat sentitu izan dute batzuek.

“Niri orain ez nau inporta, baina hasiera 16 urterekin-edo sartzen zarenean, gehiago inponitzen dizu zeren jada kuadrilla bat egin daukate beraiek, eta lotsa bezala ematen zizun (...) Orain zaharrenak 32 urte inguru edukiko ditu, ze helduenek utzi egin zuten”. (Elkarrizketa 11).

LAN-BANAKETA

Ardurak ez daude finkatuta, bakoitzak ahal eta nahi duenaren arabera banatzen dira zereginak, eta ez dute uste genero-desberdintasunagatik rolak banatzen direnik; baina batez ere neskek hartzen dutenez parte Batzordean, **lan gehienak ere eurek** egiten dituzte.

“Ez ditugu ardura finkoak banatuak. Ez dauzkagu rolak finkatuak (...) Ez dut uste genero-desberdintasunagatik rolak banatzen ditugunik, baina agertzen garen gehienak neskek garenez, ia gauza guztiak guk egiten ditugu”. (Elkarrizketa 11).

Halere, **zenbait kasutan genero-rolak eragina** dute lanak eta zereginak banatzerakoan: emakumeak dira sukaldeko lanak egiten dituztenak, eta gizonak, aldiz, muntaia-lanetan aritzen direnak, edota barran egoten direnak.

“Goiz horretan auzotarrek laguntzen digute mahaiak-eta muntatzen, bazkariko guztia beraiek muntatzen digute, eta hor bai denak gizonak dira. Jaien aurretik ere sukalde bat muntatzen dugu, eta hori ere gizonak egiten dute. Lertxuna ere gizonak ekartzen





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

dute eta eurek jartzen dute. Gizon kuadrilla bat jaisten da mahaik-eta muntatzera. Eta gero sukaldean, zeren gau guztietan bokatak ematen ditugu, beti emakumeak daude sukaldatzen, bokatak egiten". (Elkarrizketa 11).

Eta lanen **genero-banaketa hori batez ere belaunaldi zaharragoetan** antzematen dela aipatzen bada ere, kasu batzuetan **gazteen artean ere bereizketa** egiten da.

"Jai Batzordeak zereginak ez ditugu banatzen neska eta mutilen artean, denak dena egiten dugu; baina zaharragoetan banaketa hori badago". (Elkarrizketa 11).

"Iturriozko festetara turno bat egitera joaten garenean ere, normalean neskek bokatak egiten jartzen gara, eta mutilak barran zerbitzatzen". (Elkarrizketa 7).
Erabakiak denen artean eta adostasunetara iritsita hartzen dituzte.

"Denen artean hartzen ditugu erabakiak (...) Gauza desberdinak baloratzen ditugu, prezioa begiratzen dugu, arrazoitzen joaten gara, pentsatzen zer izan daitekeen onerako eta bideragarria izatea, eta erabaki egiten dugu. Ez da ezer inposatzen". (Elkarrizketa 11).

GENERO-IKUSPEGIA PLANGINTZA ETA JARDUERETAN

Festetako programa diseinatzerakoan eta ekimenak antolatzerakoan, **ez da berariaz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen**, eta ez zaio erreparatzen programazioan emakumeek eta gizonen maila berean parte hartzen duten ala ez.

"Inoiz ez gara jarri pentsatzen festak ea parekideak diren, edo ze ekintza ditugun, ekartzen ditugun taldeak neskez edo mutilez osatutakoak diren (...) Ez dugu ezer orientatzen horretara... Egia esan ez gara horretara jartzen, ez diogu inportantziarik ematen neska izateari edo mutila izateari". (Elkarrizketa 11).

Komunikazioaren erabilera ez-sexista eta barneratzaileari dagokionez, **2017ko programan** azaltzen diren argazkietan adin-tarte ezberdinetako herritarrak agertzen





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

dira, eta emakumeen eta gizonen agerpenak orekatuak dira; baina, kasu batzuetan, genero-rol tradizionalak ezarritako zereginetan agertzen dira (adibidez, gizonak lertxuna mozten eta igotzen agertzen dira).

3.2.3.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Festetako egitarauari dagokionez, urtero antolatzen diren ekitaldiak nahiko antzekoak izaten dira, aurreko urteko egitaraua hartzen delako oinarritzat. Urte horretako egun-kopuruaren arabera, moldaketa batzuk egiten dira, baina ekintza konkretu batzuk urtero errepikatzen dira.

Antolatzen diren ekintza gehienek baserri-munduarekin dute zerikusia.

“Egia da azkenean baserriarren ekintzak bilatzen ditugula”. (Elkarrizketa 11).

Eta horietako batzuen garapenean, **gizonezkoen parte-hartzea nagusitzen** da: sagardo-dastaketan, idi-deman, bigantxetan, etab.

“Idiak tiratzen dituztenak gizonak dira. Artzain-txakurretan gizonak ibiltzen dira (...)

“Sagardo-dastaketan ere, nik uste sagardoa ekartzen dutenak gizonak direla (...)

Sagardoz pendiente daudenak eta lehiakortasun hori daukatenak gizonak dira gehienbat”. (Elkarrizketa 11).

“Ekarri izan dugu Gorriti, eta hor igual bai, pentsatzen jarrita, bigantxetara ateratzen direnak gehienbat mutilak dira. Hori da nik dudan oroitzapena”. (Elkarrizketa 11).

Jaietan egindako behaketan ikusitakoaren arabera, gainera, **genero-rolak auzotarrek antolatutako ekitaldi eta jardueretan** duten parte-hartzean eragiten dute. Horrela, idi-proban esaterako, protagonista gisa parte hartzen duten guztiak adineko gizonak dira; eta ikusleen artean ere gizon-kuadrillak nabarmentzen dira, nahiz eta adineko emakume batzuk, gazteak eta haurrak ere aurki daitezkeen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Patata tortilla txapelketari dagokionez, berriz, sukalde-txosnan tortillak egiten ari diren guztiak emakume helduak dira. Plazan jarritako mahaian, berriz, txapelketako sukaldari gehienak emakumeak badira ere, pare bat gizon helduk ere hartzen dute parte. Honenbestez, jaietako ekitaldietako herritarren parte-hartzean generoaren araberako eragina antzematen da.

Baserri-giroko ekimenez gain, **haurrentzako ekimenak** antolatzen dituzte. Umeentzako bizikleta-lasterketa bat antolatzen da, eta txikiak direnean neskek eta mutilak berdin parte hartzen badute ere, adinean aurrera egin ahala, **batez ere mutilak** dira parte hartzen dutenak.

“Kronoeskala egiten dugu, bizikletan igotzea malda bat (...) Txikitan neskek ere egiten dute, baina adina igotzean igual mutilak neskek baino gehiago daude; baina inoiz ez naiz jarri analizatzen”. (Elkarrizketa 11).

Publikoari dagokionez, festetako hainbat ekimen ikustera auzotar guztiak gerturaten dira, eta ez da genero-desberdintasunik antzematen.

“Ez dut ikusten genero-bereizketarik, azkenean auzotar guztiak etortzen dira, berdin du zer ekintza jarri (...) Jartzen duzuna jartzen duzula ere, auzokoak hemen egongo dira; egotera etortzen dira”. (Elkarrizketa 11).

“Idi-dema egiten dugu, eta horra adineko guztiak etortzen dira, gizon-emakumeak, denak etortze dira, eta lehenengo ilaran jartzen dira”. (Elkarrizketa 11).

Jaietako protagonista nagusiak beraz, adinekoak eta haurrak izaten dira, eta gazteak erakartzeko zailtasunak dauzkate.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Ditugun ekintzak ez dira gazteei orientatutakoak. Gazteak erakartzeko kontzertu handi bat ekarri behar dugu; bestela hemen ez da gazte-giroa sortzen”. (Elkarrizketa 11).

ZAINTZA-LANAK JAIETAN

Haurren zaintza-lanei dagokienez, Jai Batzordera haurrentzako ekintzak proposatzera gerturatzeko direnak batez ere amak izaten dira. Haurrentzat antolatutako jardueretan ere, agian **emakume gehiago ikusten dira haurrak zaintzen, baina aitek ere hartzen dute parte.**

“ Ez naiz inoiz analizatzen jarri, igual ama gehiago ikusiko dituzu, baina uztaila denez gurasoek arratsaldetan jai daukate, eta normalean familia osoak egoten dira, aitek ere bai (...) Baina apar-festan adibidez aita asko ikusi ditut umearekin disfrutatzen”. (Elkarrizketa 11).

3.2.3.4. Indarkeria matxista

Iturriozko jaiak antolatzerakoan ez da indarkeria matxista kontuan hartzen eta beraz, ez da sentsibilizazio, prebentzio eta indarkeriari aurre egiteko jarraibideen inguruko lanketarik egiten.

“ Ez, ez ditugu kasuak eduki, eta ez daukagu protokolo bat eginda”. (Elkarrizketa 11).

3.2.3.5. Ondorio nagusiak

- Jaien antolakuntzan gizonek baino emakume gehiagok hartzen dute parte.
- Lan batzuen banaketan genero-rolen eragina antzematen da.
- Jaiak antolatzerakoan ez da berariaz emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Herri-kirol eta baserritar-giroko ekintzetan gizonezkoen parte-hartzea nagusitzen da, tradizionalki bete izan dituzten rol eta jardueretan.
- Haurrentzat antolatutako jardueretan, agian emakume gehiago ikusten dira haurrak zaintzen, baina aitek ere hartzen dute parte.
- Ez da indarkeria matxistaren inguruko inolako lanketarik egiten.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.3. Lezo

Lezon aztertutako hiru jaiek izaera oso desberdina dute: Mendekosteak, Lesoinu eta Garagardo Festa aztertu dira, antolaketa-eredu zein izaera oso bestelakoa duten hiru festa. San Juan sua ez da aztertu diren jaietan txertatu egun bakarreko ekimen oso konkretua izanagatik, halere egindako elkarrizketetan aipamena egin zaio eta aurten lehen aldiz emakumeek “Alpargata” dantzatu dutela aipatu beharreko kontua da.

“Justu aipatu dituzun ekimenak badira azken urteetan aldaketa gertatzen ari direnak. Baina badaude beste hainbat gauza txiki San Juan sua adibidez, oso barneratuta ditugunak eta natural ikusten direnak betaurreko kritiko batzuk jantzi ezean.”
(Elkarrizketa 15)

*“San Juan sua, eta nik parte hartu dudan tokitik, baina emakume modura da, ba hori, momentu batetan zu zara (...) florero bat, dantzatzen zaituzte, pasatzen zaituzte. Eta agian dira gauza horiek, oraindik garai batetik mantentzen ari garenak eta aldaketa gutxiago ikusten direnak, TRADIZIOA direlako. **Askotan borondaterik onenarekin antolatzen dute, ez da kontra daudenik ere, baina tradizioari jarraituz egiten da eta ez zaio buelta bat ematen.** Eta nik parte hartzerakoan ez dut horrela sentitu, gero ikusterakoan, kanpotik ikusi dudanean konturatu naiz nabarmenago rol horietaz... “ (Elkarrizketa 13)*

LEZON EMAKUMEEK 'ALPARGATA' DANTZATU ZUTENEOA



Emakumeak eta gizonak, ostiralarran, dantzan.

Iturria: Oarsoaldeko HITZA





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.3.1. Mendekosteak

3.3.1.1. Sarrera

Lezoko Mendekosteak jatorri erlijiosoan duten jaiak dira. Pazkotik zazpi astetara ospatzen dira, eta Zabarre⁹, Lezoko pirata jaietako protagonista nagusia da. **Zalantza: Zabarre noiztik/noiz sortua?** Asteburuko jaiak izaten dira, ostiralean hasi eta igandera bitartekoak, eta larunbateko ekimen nagusia Sagardo Eguna izaten da.



Irudia **zbk**.: Lezoko 2017ko Mendekoste jaietako kartela.

"Portutik dator pirata, altxorra banatu egiten dute eta pregoia irakurtzen da, horrela ematen zaie jaiari hasiera. Zabarreraren agurra aurtan kendu egin dute, errelebo faltagatik. Programazioari dagokionez, betiko kontuak izaten dituzte: afari

⁹ "Perutxo Lazón, Guillermo Lazón jauntxoaren semea, herrian azalduko da jaien lehen egunean. Baina, harrera bitxia izango du, zergak ordainduahi ez dituela. eta, Zabarre piratarekin borrokan amaituko baitu. Azkenean pirata ausarta gailenduko zaio eta herrian zehar lotuta eraman ondoren, ostiko batez Lezotik kanpora bidaliko du." (Iturria: **Lezoko harrera gida**)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

autogestionatua, dantzaldia edo erromeria, Sagardo Eguna, haurrentzako ekimenak, diana, herri kirolen erakustaldia, musika, zezensuzkoa 2 egunetan. Betidanik ospatu izan direla iruditzen zait, baina udalak antolatuta ez dakit zehazten noiztik."
(Elkarrizketa 12)

3.3.1.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Mendekosteak antolatzeaz Lezoko **Jai-batzordea arduratzen da**. Jai-batzordean herriko eragile nagusiek (elkartek, ikastetxeek, etab) parte hartzen dute:

"Ireakia da, baina gehienak gara elkarte baten izenean joaten garenak. Edozeinek joateko aukera du, baina tira, zerbait antolatua baldin baduzu, ze hara joatea ezertara, ordukat botatzen ditugu hola! Baina proposamen bat baldin baduzu, ba ongiatorria zara." (Elkarrizketa 15)

"... jai-batzordeak berez irekiak dira, edozein joan daiteke, entzutera eta bere proposamenak botatzera... Gertatzen dena da, beti joaten garela betikoak."
(Elkarrizketa 12)

Emakume eta gizonen arteko osaerari dagokionez, gizonezko gehiagok parte hartzen duten gunea da, nahiko parekatua dagoen arren, **partaideen %60a gizonezkoak dira eta %40a emakumezkoak**.

"Gizon gehiagok parte hartzen dute Jai-batzordean." (Elkarrizketa 15)

"Ez zait iruditzen gizonezko gehiago daudenik, emakumeak ere dezente gaude. Ez dakit egia esan... (buruz kontatu ditu) .. ba bai, 12 gizon eta 8 emakume bildu izan gara aurtengo bileretan." (Elkarrizketa 12)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Jai-batzordearen funtzionamendua Lezoko Udalbatzak **2009ko abenduaren 2an onartutako Festa batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako araudiak**¹⁰ arautzen du. Bertan aipatzen denez, Lezoko alkatea da gune horren lehendakaria eta kultur teknikariak du batzordea koordinatu eta idazkari-lanak egiteko betebeharra. Egun, **Kultur teknikariak betetzen du gune horren gidaritza eta dinamizazio-lana**¹¹. Elkarrizketatuek aipatutakoaren arabera, Kultur teknikariak **asko errazten du Jai-batzordeko kideen lana** eta oso bideratuta daramatza bilerak, lana errazteko.

"Egiten da lehenengo bilera bat, zer dagoen edo elkarteek ze ekimen sartu dituzten ikusteko, beti falta da zerbait.. eta udalak bere aldetik ekartzen du proposamena eta ez dut esaten akatsa denik, nik uste egiten dutela errazteko, baina nahiko definitua ekartzen digu dena Xantik. Aukera askorik ez dugu izaten erabakitzeke." (Elkarrizketa 12)

Mendekosteen antolaketari dagokionez, Inauteriak pasata 1. bilera deitzen da eta 2/3 bileretan prestatzen da programazioa eta jaiak bera. Elkarrizketatuek aipatu dutenez, bi edo hiru bilera izaten dira urte horretako programazioaren arabera eta programa diseinatzeko orduan **ez zaio genero-ikuspegiari arreta berezirik jartzen**. Elkarrizketatuek aipatzen dute, ez dutela hizkuntzarekiko dagoen sentsibilizazio maila bera sumatu berdintasunari dagokionez. Komentatzen dute hizkuntza badela Jai-batzordeak kontutan hartzen duen irizpide bat, eta berdintasunarekin ez dela parekorik gertatzen.

"Hizkuntzari bai, euskarari erreparatzen diogu Jai-batzordean; baina berdintasunari oraindik ez, ... ez dut horrenbesteko sentsibilizaziorik ikusi gai honekin.. .Igal beharrik ere ez dugu ikusi, edo agian Xanti arduratzen da horretaz, baina bestela ez zaio aipamen berezirik egin.... Gazteek ere pentsatzen dut agian begiratzen diotela, baina

¹⁰ <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2010/03/17/e1003146.htm>

¹¹ Iturria: Lezoko jai-batzordean egindako behaketa, 20107ko ekainaren 6an.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

horrela egiten badute ere ez dute Jai-batzordean horri buruzko aipamenik egin."
(Elkarrizketa 12)

"Genero-ikuspegia ez da berariaz kontutan hartzen jaien antolaketan. Gero gerta daiteke batzuetan ondo koadratzea, baina ez dut uste horri erreparatzen zaionik. Kultur teknikariak hainbat proposamen ekartzen ditu eta hautatu egiten da gehiengoari gustatzen zaiona, edo egoki iruditzen zaiona." (Elkarrizketa 15)

Horren harira, elkarrizketatuek aipamenik egin ez arren, 81. orrian ageri den aurtengo jaietako kartelak argi adierazten du berdintasunari espresuki erreparatzen ez zaiona: pertsonaia bakarra ageri da kartelean, jaietako protagonista den Zabarre pirataren irudia da.

Jaien bidez sustatu nahi diren balioen inguruko berariazko lanketarik ez da egin elkarrizketatuek aipatutakoaren arabera, eta zentzu horretan Udalaren lidergo politiko falta aipatzen dute. Gaurko egunez Jai-batzordea jaien antolaketari lotutako lanak kudeatzeaz eta koordinatzeaz arduratzen da.

"laz gertatu zen San Juan aurretik izan zen, eraso bat gertatu zen kalean eta herritar multzo bat elkartu ginen, hori salatzeko. Jai-batzordera gaia eraman genuen, baina jai-batzordean ez da berariazko lanketarik egin izan, kudeaketa hutsaz arduratzen den egitura da." (Elkarrizketa 15)

Jaien ostean, balorazio-bilera bat egiten dute. Normalean jaia antolatzeko 1. bilera, aurreko urteko balorazioa irakurritz hasten dela komentatzen digu. **Udalak batetik bere balorazioa egiten du eta bestetik ekimen bakoitza antolatzeaz arduratu den elkarteak bere ekimenak baloratzen** ditu.

"Jai-batzordean Xantik irakurriko du berea, beno Udalarena, eta gero banan-banan joango gara osatzen. Bakoitzak badauka bere iritziak botatzeko aukera eta Xantik





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

denak apuntatzen ditu. Edozeinek dauka aukera hitza hartzeko, baloratzen gauden ekitaldiaren parte izan edo ez." (Elkarrizketa 12)

Erabakiak denen artean hartzen dituztela aipatzen du elkarrizketatuak, denek parte hartzea sustatzen dela eta iritzi ezberdinak daudenean **bozkatze bidez** erabaki izan dutela. Era berean denen hitzak entzun eta kontutan hartzen direla adierazten digu, eta bere ustez ez dela ezberdintasunik edo botere-harremanik ematen urte asko parte hartzen daramaten eta gazteagoen artean.

"Erabakiak bozketa bidez hartzen ditugu." (Elkarrizketa 15)

Elkarrizketatuen ustez ez dago alderik emakume eta gizonak egiten dituzten lanen artean, halere Sagardo Eguna bezalako egunetan lan ezberdinak egokitzen zaizkiela adierazi dute. Elkarrizketatuetako batek, gizonak egindako lana emakumeena baino gehiago ikusi daitekeela esaten digu.

"Ikusi duzu¹² prestaketetan zeintzuk zeuden lanean, gizonak dira; emakumeak dituelako beste, ba prestaketan, egongo da egunerokotasunean sartuta, antolakuntzan edo horren bisibleak ez diren lanetan." (Elkarrizketa 13)

3.3.1.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Mendekosteetako ekimenetan emakumeak nagusitzen diren ekimen bakarra dantza dela aipatzen dute, eta **oro har protagonistak gizonetzkoak** izaten direla ekimen mota gehienetan. Elkarrizketatuetako batek **tradizioari lotutako ekimenak** izateak

¹² Elkarrizketatuarekin geratu garen plazan aitak ikusi ditugu hurrek egindako marrazkiak hormetan zintzilikatzen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

eta betidanik horrela bizi izanak duen eragina azpimarratzen du, azken batean zaila baita bere hitzetan beti era batera ezagutu dugun hori beste modu batetan irudikatzea. Halere iritzi ezberdinak daude, eta bada ekimenen irekitasuna aipatzen duenik ere.

"Aurten Mendekosteetan ekimen berria izango da motorzaleen bilgune bat egingo dutela, hor ikusiko dugu ea zenbat emakume biltzen diren. Gero Zabarre, pentsatzen dut parte hartzen dutenen artean erdi parekatua egongo dela baina Zabarre berez, protagonista gizona da. Koruak etab. nahiko parekatuak baina zuzentzen dutenak ere egia da gizonak direla." (Elkarrizketa 15)

"Ez dira ekimen itxiak, zu prest bazaude, eskatu eta ateratzen zara. Adibidez Zabarrerekin, ez dago debekurik emakumeek ezin dutenik parte hartu, baina egia tendentzia batzuk ematen direla." (Elkarrizketa 12)

"Dira gauza txikiak, beti horrela izan direlako eta ohituak gaudelako nabarmentzen ez zaizkigunak, baina gizonezkoak dira. Botere guztia, protagonismoa, gizonezkoena da." (Elkarrizketa 13)

Lehen aipatu dugun bezala Zabarre pirata da Lezoko Mendekoste jaietako protagonista nagusia. Hurrei zuzenduta dagoen ekimena da eta hurrek eta beraien gurasoek hartzen dute parte.

"Zabarre jaia, gehienbat haurrentzat zuzendua dago. Parte hartzen duten asko hurrek eta haur horien gurasoek, eta Zabarreraren etorreran antzerkian pertsonaiak gizonezkoak direla denak, baina agian ez beraiek hori nahi dutelako baizik eta, ba horrela suertatu zaielako.. gainera orain bai nahi dutela pixka bat aldatu." (Elkarrizketa 15)

Zabarre pirataren pertsonaia, asmatutakoa da, duela XXX urte ipuina sortu zuen Udalak, horren ostekoa izan zen talde batek ipuina antzerki bihurtzeko ekimena.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Duela urte batzuk, bigarren ipuin bat sortu zuen Udalak, protagonista emakumea zen kasu horretan, baina bigarren pertsonai hori ez da gaur egun egiten den Zabarrerren etorrera ekitaldian ageri.



Iturria: Lezoko Udala, Kultura Saila

Elkarrizketatuek ere **gizonek Zabarrerren antzerkian duten protagonismoa** azpimarratzen dute. Esan digutenaren arabera, generazio **aldaketa ematen ari da eta pertsonaia femenino berriak txertatzeko asmoa** daukate. Era berean, **kezka** adierazten dute, iruditzen baitzaie sortzen den **pertsonaia motaren arabera genero-estereotipo tradizionalak indartzeko** balio dezakeela pertsonai berriak. Kasu askotan politikoki zuzena delako, tokatzen delako sortzen diren **bigarren mailako laguntzaile pertsonaiak** izaten direla aipatzen dute.

"Adibidez, lehengo urtean ni ikastolan nengoen eta Zabarrekoak agertu ziren. Zabarre eta soldaduak, eta beno, antzerkia egin ziguten.. Tira ba, emakume bakarra zegoen jantzita pirataz. Eta zen, Perutxo eta soldaduak... beno eta noski txikiek ikusten duten erreferentzia hori da ere, ez? Emakume bakarra zegoela pirata zena." (Elkarrizketa 13)

"Orain eman daiteke aldaketa, ze badirudi aldaketa bilatzen dabiltzala, erreleboa eta hiru gazte sartu dira eta hirurak neskak dira. Oso pozik daude. Azken jai-batzordean





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

bai aipatu zuten aldaketa bat egin nahi zutela eta emakumeen figura sartu nahi zutela." (Elkarrizketa 15)

"Bai. orain arte ez zeuden, eta oraindik aurrera egongo dira. Baina niri horrek ere beti sortzen dizkit zalantzak. Emakumerik ez zegoen eta era behartuan sartuko dugu? !Eta ez dago emakume erreferenterik: emakume pirata izango dena." (Elkarrizketa 13)

"Beti laguntzaile bezala jarri behar dute, emakumezko pertsonaia sortu eta protagonistaren laguntzaile." (Elkarrizketa 14)

Zabarrerekin batera, Sagardo Eguna da Mendekoste jaietako beste ekimen nagusia. Elkarrizketatuek esan digutenez, ekimen horretan genero-rol tradizionalak indar handia dute, eta emakumezkoen presentzia oso txikia da.

"Sagardo eguna bada, bada isla bat.. herriko elkarte "gastronomikoek" antolatzen duten eguna den heinean, horien oso isla da. Bertan lanean dagoen jendea... gehienak kasu horretan gizonezkoak dira eta beno, adin tarte jakin batetako gizonak.. eta horiek denak dira elkarteetako jendea dena." (Elkarrizketa 13)

"Agian sagardo egunean zerbitzatzen pentsatzen dut gizon gehiago topatu daitezkeela eta edalontziak eta txartelak banatzen emakumeak." (Elkarrizketa 12)

Bi ekimen nagusiak horiek izan arren, badira jende asko mugitzen duten beste hainbat ekimen mota. Pilotak adibidez herrian indar handia duela aipatu digute, eta oro har kirol-munduan ere gizonezkoek osatutako eta oso konpetitiboa den giroa nagusitzen dela. Kasu batzuetan emakumezkoek ere parte hartzeko saiakerak egin izana txalotzen dute, baina zalantza eragiten die, zein neurritan onartzen edo legitimatzen duen beste giro konpetitibo horrek emakumezkoek parte hartzea.

"Kirolean eduki beharrean balorek, bagoaz ondo pasatzera, jokatzera futboleant, elkarrekin egotera ba dira oso balore "matxito" eta konpetitiboak. Hortaz





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

goraipatzekoa da talde misto horren alde egiten ari diren lana. Askotan betetze-funtzio hori badugu emakumeok, onartuko dugu zuzena delako baina jakinda ez direla gure mailakoak, gordin esanda." (Elkarrizketa 13)

Buruhandiek eta erraldoiek ere arrakasta handia dute gaztetxoan artean, **erreleboa edo ekimenarekin jarraitzeko jendea topatzeko arazoak** izan dituzte azken urteetan. Elkarrizketatuek aipatutakoaren arabera, **mutilek joera handiagoa** dute bai buruhandiak zirikatzeke zein buruhandi rolean aritzeko, **neskak ere buruhandietara erakartzeko saiakera** egitea proposatzen dute.

"... ateratzen direnean buruhandiak eta erraldoiak, bai nabaritzen dela mutikoak direla buruhandietara jotzen dutenak, oraindik ez dira ikusten neskak korrika buruhandien aurretik. Ez paper horretan ez dira ikusten," (Elkarrizketa 13)

"Aukera ematen denean buruhandietan ateratzeko aukera irekia izaten da, eta arazoak daude jendea orokorrean topatzeko, mutilak ere. Egia da, agian eurek barneratuta dutela mutilak izan behar direla.. baina arazoa dago, eta Lezon buruhandiak desagertuz gero ez dago jairik! " (Elkarrizketa 15)

"Askotan bultzada baten beharra izan daiteke. Iguar neskekin hitz egin dezakete, agian baten bat prest dago eta ez zaie bururatu beraien burua eskaintzea, beti mutilak izan direlako." (Elkarrizketa 14)

Programan **ekimenak kolektibo konkretuei zuzenduak egon ez arren, desberdintasun handiak ikusten direla** aipatu digute. Adibidez, baserritar eguna edo idi-dema gizonen kontuak direla nabarmen, eta **orokorrean, jaien programan garai batetako gizonen munduari oso lotuta dauden ekimenak gailentzen direla.**





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Igal bai gertatzen dena da.. adibidez dianan denak gizonak, gero kontzertutan gehienak gizonak,... igal zeini zuzenduta dagoen ez dut alderik ikusten, baina zein gerturatzen den edo zeinek egiten duen, hori bai." (Elkarrizketa 14)

"Baserritar Eguna da, baserritar gizonezkoen eguna da. Nahiz eta beraien ordezkaria emakumezkoa izan, gero ... elkarteetan daudenak bazkaltzen etab, gehienak gizonezkoak dira. Adibide modura esaten dut, ez baserritarren kontrako kontu gisa. Baina idi-dema etab. be, dena da oso maskulinitasunari lotuta egon diren kontuak." (Elkarrizketa 13)

Baina emakumeak jaietako egun horietan protagonista eta antolaketa lan nagusietan ez ikusteak, ez du esan nahi lanean ez daudenik. Elkarrizketatuek, emakumeen partaidetzan zaintza-lanek ustez duten pisua aipatu dute, amatasunari lotuta oraindik ere gurasotasunean amek hartzen duten rola aipatu dute, jendartean gainera oso onartutako eta ama ona izateari lotutako kontua dela uste du.

"Gero egia da adin-tarte batetik aurrera, gauean gehiengoa mutila dela. Ze emakumea ba badaude urte batzuk zeinetan gutxiago ikusten den, haurren zaintzari lotutako lanetan dagoelako. Egia da hor aldaketa handia gertatu dela, baina egia da ere bai, ikusi izan dudala, jende batekin, "ui hau jaitsi da!, eta atenzioa deitzen dizu eta "ikusten duzu, jaitsi dira!", ez? Eta igal egun horretan konturatzen zara, ba urte osoan ez dira jaisten. Eta gaur egun ama ona izatearen istorio horrekin, gauean nabarmena dela. Gauean umeak ama behar du eta ez aita. Adin tarte batean ikusten duzu, eta onartuta dago, emakumeak errazago esaten duela eske umeak urtebete dauka eta asumituta dago. Eta igal bikotea Lezoarra ez izan, eta ikusi bikotea jaitan eta bertakoa den emakumea etxean." (Elkarrizketa 13)

Ama onaren ideia horren eta ama txarren arteko eztabaida aipatu du gero elkarrizketatutako emakumeetako batek. Ematen ari den aldaketak kezka sortzen diola adierazi digu, eta berdintasunaren ikuspegitik atzerako bidean ari garela uste duela esan digu.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Ni beste generazio batzuekin konparatuta, iruditzen zait gaur egungo AMATASUNA, AMATASUNA letra larriz dela. Eta ikusten ari naiz amatasun hori hain amatasun denez, ez dakit batzuetan ez ari ote garen atzera bueltatzen. Egiatan esaten dizuet, ni kezkatuta nago gai honekin. Ikusten dut aitak ere asko sartzen ari direla zaintzen kontuan, baina amarena da; eta klaro oso polita da, baina nik ez dakit horrek gero zer ekarriko ote duen. Nik nire zalantzak ditut! Hor dago orain, ama gaiztoaren istorioa ere. Ni horrekin oso ados nago, ni ama txarra naiz eta izan naiz. Gure garaian egiten genuena bazen gaur ni eta zu bihar, txandakatuta eta aiton-amonekin geratu bazitezkeen, ba hobeto. Eta gaur egun hori, gero eta gutxiago egiten da eta aiton-amonena ere gero eta gutxiago. Tira, urte osoa lanean egon ondoren, normala. (ironiaz)." (Elkarrizketa 15)

Beste elkarrizketatu batek emakumeek eta gizonek zaintza-lanetan dituzten arduren arteko aldea inposatua baino norberaren esku dagoela aipatu digu.

"Nik badaukat inguruan txandaka funtzionatzen duen jendea, halere, denetik egongo da. Hausnartuta.. gauza bat esango dizut, agian bai egia dela, baina ez jaietan bakarrik, edozein igandetan, adibidez: familia badator etxera bazkaltzen, ni (emakumea) naiz geratzen dena eta gizona poteatzen ateratzen da. Egia esan ez nuen sekula honen inguruan hausnartu, baina horrela da, egia da. Baina nik nahi dudalako dela esango nuke, eskatuko banio egingo lukeela uste dut." (Elkarrizketa 12)

Era berean, azken urteetan familiek beraien osotasunean parte hartzeko moduko ekitaldiak nagusitu direla aipatu digu elkarrizketatuetako batek, eta arrakasta handia izaten dutela familia gazteen artean.

"Aferi autogestionatuan adibidez, familiak, familia gazteak ikusten dira. Irrizaleak konpartsarekin eta, ... bai sumatu dut azken aldian saiakera egiten dela familia osoak parte hartu dezakeen ekitaldiak antolatzeko." (Elkarrizketa 12)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

ALDAKETA ETA GATAZKA

Elkarrizketatuek aipatu digutenez, **urtetik urtera gauzak ez dira gehiegi aldatzen**, gauza berriak sartzeko arazo nagusia dirua izaten dela aipatzen dute..

"Zuk programa hartzen baldin baduzu, gauza asko errepikatzen dira urtetik urtera. Gauza berriak sartu? Ideiak eta dirua izaten dira arazorik larrienak, edozein gauza berri ekartzeko edo merezi duen beste zerbait ekartzeko beti arazo nagusia dirua izaten da. Baina gauza asko berriak... ez dira egoten. Normalean saiatzen gara urtero zerbait berria sartzen, baina beno ez pentsa gauza berri askorik dagoenik." (Elkarrizketa 15)

Gauzak aldatzeko saiakera egin denetan, lehen aipatu bezala tradizioari horren lotutakoa izanik, kosta egiten dela aipatu digute. Horren erakusle, idi-demekin gertatutakoa kontatu digu elkarrizketatu batek.

"Gatazka egon zen idi-dema kendu nahi izan genuen garaian. Jai-batzordean kostua eta b baloratuta kentzea onartu zen, eta politikoki ere hori babestu zuen Udalak. Garai hartan baserritarrak etorri ziren a sako.. Orain dela 6 urte inguru izan zen, aurreko korporazioarekin eta hurrengo gobernu aldaketarekin berriro jarri egin ziren, orain Mendekosteetan ez baina iraileko jaietan daude." (Elkarrizketa 12)

Udalaren eta jai-batzordearen arteko iritzi ezberdin horien erakusle, jai alternatibo edo paraleloak antolatu izan diren garaiak egon direla aipatu du elkarrizketatuak.

"Orain jadanik... beno azkeneko urteetan ez, baina egon dira urteak, batez ere Zabarreren istorioarekin eta, elkarteak Udalarekin haserre egon direnak eta programa alternatiboak egin direnak. Eta hori egin izan dugu, Zabarre haserre dago, eta orduan bai jai paraleloak antolatu izan dira. Ez naiz gogoratzen azken aldia noiz izan zen baina ez zen duela horrenbeste izan." (Elkarrizketa 12)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.3.1.4. Indarkeria matxista

"Egoera ere aldatzen ari da, nik lehen ez nuen beldurrik izaten eta orain egia esan, ikusten direnekin. Erasoen kontua.. lehen ere egongo ziren baina gaur egun egoera aldatzen ari da". (Elkarrizketa 15)

"Nik uste gaur egun ez daudela gehiago, nik uste gutxiago daudela gaur egun baina gehiago aipatzen dira, eta hortaz pertzepzioa da gehiago daudela. Esten duzu ostra, alarma". (Elkarrizketa 14)

Indarkeria kasuak badirela aipatze digute elkarrizketatuek. Hauetako asko neskek eta mutilek desberdin egoteko moduak ikasi ditugulako izaten direla aipatzen digute. Oso lotuta ikusten dituzte adibidez kontzertuetan eta berbenetan aurreko lerroetan mutilak egoteko duten joera, neskak atzerago formalago egoteko joera, eta femeninotzat jo izan den horretatik ateratzen den emakumea zigortua izaten dela aipatzen digute.

"Adibidez kontzertuetan eta berbenetan aurreko lerroetan beti, beti, beti aurreko mejunje hori gehienetan gizonak osatzen dute, beti igual ez, baina gehienetan bai, hor edo tontoarena egiten, beraien espazioa hartzen, eta gero neskak beti, plano, pixka bat atzeragokoa, formalago bezala.." (Elkarrizketa 14)

"Bera eta nire artean adin-tarte bat dugu, eta nik ere hori bizi izan dut. Beti Lezon, jaietako desfas horretan gizonak protagonismo berezi bat izan dute, eta emakumeak gehiago kontentzio batetan eta ez dakit eh? baina igual kontentzio horretatik atera izan den emakumea izan da zigortua, bai (ados besteak) edo epaitua, edo izen bat jarri diote.. zigorra bai beste emakumeen aldetik eta bai gizonen aldetik. Horrek gaur egun ere berdin jarraitzen du! niri horrek ematen dit amorrua, igual ikustea, urteak pasatzen direna eta berdin jarraitzen dugula. Ikustea hitz egiten duzula hurrengo generazioarekin eta berdina dela, ez? Eta gizonetakoek badutela askatasun hori eta gainera zu joaten baldin bazara horrelako konplizidade





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

horren bila: "jo eske, ba neska ez da horrenbesterako", eta zu geratzea horrela, paranoika bat bezala." (Elkarrizketa 13)

Gauetan bereziki jarrera desegokiak topatzea ohikoa izaten dela komentatu digute, eta bereziki larritzat jotzen dute kasu askotan neskek ere indarkeria horiek justifikatzen dituztela. Herrian sortu berri den "Sorginak talde feminista"ko partaideak aipatzen digu, taldea osatzen duten nesken artean hitz egiteak kontzientzia hartzeko balio izan diela, baina kasu askotan berdintasunaren aldeko diskurtsoa dutenengan ere ikusten dela onarpen-maila bat, oso barneratuta dagoen kontua baita. Horregatik ekimenak martxan jartzeko asmoa du Sorginak taldeak.

"Nik ikusten dut gauetan ni egoten naiz gehiago taberna giroetan eta txosnetan eta ibiltzen naiz, eta ikusten dira jarrera itsusiak, eta gainera jendeak normaltzat hartzen ditu. Eta nik sekulako etsipenak hartzen ditut; hori ez delako normala, eta nik ezin dut toleratu.. a mozkorra dago, baina ezin diot onartu mozkorra joateagatik." (Elkarrizketa 14)

"Nik bai ikusten dudala hori, agian adin batetik aurrera, daukagula kontzientzia gehiago eta agian gazteetan gutxiago... Orokorrean iruditzen zait gazteek edo pilak jartzen dituzte edo..." (Elkarrizketa 15)

"Oso barneratuta dute neskek ere, horrela dela... Ikusten dituzu normaltasun guztiarekin, neskak esaten dut. Eta gero igual bai eh? Berdintasunaren alde eta PINa (txapa) izango dute, eta puntu morea, eta eta... ez dute ezer egingo eta egoera onartuko dute halere." (Elkarrizketa 14)

"Taldea sortu dugunetik (Sorginak) pixka bat kontzientzia ireki da gure artean edo, baina babes bat edo zerbait edukitzea ona litzateke, guk hitz egin dugu gure artean, zerbait egiteaz, orain maiatzerako ez, ez dugu astirik izango, baina hemendik aurrera jaietarako puntu more bat, edo zerbait, telefono bat edo.. gainera gu gazteak izanik,





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

ba konfiantza izan dezakegu beraiekin eta guregana etor daitezene..oraindik ez dugu lanketarik egin baina beharra ikusten dugu." (Elkarrizketa 14)

Taberna inguruan puntu more bat jarriko luketela aipatu du, jende guztia gertatu denaren jakitun izan dadin, adibidez argiak piztea proposatzen dute, edo protokolo moduko bat.

"Askotan ez gara konturatzen, ez dena emakume bati bakarrik gertatutako kontua, denoi gertatzen zaiguna baizik, eta bisibilizatu beharra dago gertatzen denean, besteok ere konturatzeko." (Elkarrizketa 14)

Era berean herriko emakumeen arteko konplizitatea falta zaiela aipatzen dute, mutilek euren artean badutena, ahizpatasun moduko bat landu beharko litzatekeela herriko emakumeen artean.

"Gure artean konplizitate hori zabaltzea. Batzuetan hori ere falta zaigu gure artean, ez? Eta ez izatea, ui ze pasatzen zaie hauei, ez ZER GERTATZEN DA? Sorginen taldean eta aipatzen zen, bazegoela herri honetan mutilen arteko horrelako kolegeo bat, generazio desberdinetatik harremana bada. Adibidez gu biok ez ginen ezagutzen eta nire kintako mutil batek eta bere kintakoek badute, ba futbola dela, beste eratako aisialdia dela.. Emakumeen artean ez dugu harreman hori. Hori sekulako aberastasuna da, harreman hori izatea." (Elkarrizketa 13)

Horrekin batera, Udalak inplikatu beharra eta lidergo politikoaren beharra aipatu dute elkarrizketatuek, baina herri-presioa ere ezinbestekoa dela, eta instituzioetatik bakarrik ezin zaiola erantzun.

"Iruditzen zait, jai-batzordera udaleko ordezkari batek etortzea eta gaia planteatzea gomendagarria izango litzatekeela, Udalak ekimena adieraztea kontu honetan." (Elkarrizketa 15)

"Horretaz gain behar da herrian ematea giro bat, talde bat hori zabalduko duena.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Hori nire iritzia da Udalak egin dezake zerbait, baina azkenean, herri-presiotik etorri behar den kontua izango da. Udalak inplikatu behar du, baina iruditzen zait baita ere herritik atera behar duela erantzuna edo presioa." (Elkarrizketa 13)

Elkarrizketatuen iritziz, herritarren arteko koordinazioa eta protokolo baten lanketa beharrezkoa litzateke, eta indarkeria kasuei aurre egiteko tresnak behar dituztela aipatzen dute. Udalarekin izan duten harremanean, Udalak baliabideekin laguntzeko aukera eskaini die eta positiboki baloratzen duten arren, proaktiboagoak izatea eskertuko lukete.

"Nik uste gure artean (herritarrek) koordinatu beharko ginatekeela eta igual, protokolo bat martxan jarri." (Elkarrizketa 14)

"Nik pentsatzen dut baliabideak jartzea ondo dagoela baina, proposamen konkretuak ere egin zitzakeela udalak. Zailena proposamenak pentsatu eta jendea elkartu eta biltzea dela iruditzen zait, eta jendea elkartzeko segun nondik datorren deia oso erantzun desberdina da." (Elkarrizketa 15)

Era berean, protokoloaren lanketa zein jaiekin lotutako beste kontu oro Jai-batzordearekin eta batzordetik egin beharko liratekeela uste dute. Aurtengo jaietarako kanpaina adibidez, Jai-batzordean ez dela aurkeztu aipatzen dute eta horren falta nabaritu dutela.

"Nik ez dut ikusten batzordea izan behar denik urte osoko plangintza egin behar duen gunea, baina adibidez, plangintza bat dagoenean edo zerbait proposatuta dagoenean, eta festei lotutakoa baldin bada iruditzen zait hori dela aurkezteko eta lantzeko gunea." (Elkarrizketa 15)

Oarsoaldea-mailan dagoen protokoloa ezagutzen ez dutela aipatzen dute, eta martxan dagoen kanpainaren inguruko informaziorik ere ez dutela jaso.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Erasoen artatze lanean ere hobetu behar dela komentatu digute, edo erasoak jasan dutenak nora joan daitezkeen jakitea garrantzitsua dela eta informazioa eman behar zaiela. Aliantzak herriko emakumeen artean.

"Jende gaztearengan horrelako jarrerak ikusita harrিতuta nago. Zaila da. Babes guztia eskaini behar zaie eta kanpainak egin behar dira." (Elkarrizketa 12)

"Gertatzen direnean ere babes guztia eman beharko genieke, eta jendeak jakitea, nora jo behar duen, zer egin dezakeen." (Elkarrizketa 12)

"Nik uste eman beharko litzatekeela zaintza, sentitzea.. erosotua izan zarenean, gauza minimoa izan arren esateko gaitasun hori izatea. Ez gelditzea zure koadrilan edo bati esan diozu edo honek egin dit ez dakit zer, zeren eta azkenean ezaguna izateagatik





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

askotan tragatzen dituzu mila kaka, baina konfiantza izatea.. aliantzak sortzea gertuko, herriko emakumeen artean. Ze bagaude batzuk baina askok jasaten dituzte eta askok ere ez dakite babes hori badutenik." (Elkarrizketa 14)

Sentsibilizazioari lotuta egindako ekimen guztiak positiboak izango direla aipatzen digute.

"Adibidez iaz, danborradak atera zituen zapiak "Ez da ezetz". Nik uste momentu batean horrelako gauzek lagundu dezaketela presente egoteko, eta jendearengana heltzeko. Gauza bat da jendeak beraien elkarteetan gaia lantzea eta bestea jaitan gaia presente egotea, bisibilizazioa izatea. Hori guk faltan botatzen dugu." (Elkarrizketa 13)

Beharra ikusten dute elkarteekin sentsibilizazioa lantzeko, gaiaren inguruan hitz egin beharra dagoela esaten dute eta tabernetako sarreretan jarri beharko lirateke kartelak.

3.3.1.5. Ondorio nagusiak

- Jaien antolaketan emakume eta gizonen parte hartzen dute, jai-batzordeak antolatzen duen jaia da.
- Lan-banaketari dagokionez, genero-rolek eragina dute.
- Genero-ikuspegia ez da berariaz kontutan hartzen.
- Hurrei zuzendutako ekimenetan aitek antolaketan parte hartzen dute.
- Mendekosteetan herri-kirol eta baserritar-giroko ekintzetan, gizonen parte-hartzea emakumeena baino handiagoa da.
- Jai-batzordeak udalak sortutako protokolo eta materialen berri izatearen falta sumatzen du.

3.3.2. Lesoinu





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.3.2.1. Sarrera

Lesoinu Lezon, Musika Eskolak antolatzen duen musika ekimena da. Gaur egun Musika Eskola dena, Musika Akademia modura sortu zen 1985ean. Hasteko solfeoarekin hasi ziren, 12 ikasle zituzten (gaur egun 110 inguru dira) eta aste pedagogiko bat sortzea otu zitzairen, xede nagusia orduan zein orain haurrek instrumentuak ezagutzea zen. 1986an hasi ziren Lesoinu antolatzen, aurtengoa 30. edizioa izan da.

"Musikarekin lotutako ekimena da. Garai hartan musikoki oso pobrea zen herria, txistu eta akordeoiaz haratago ez zegoen beste ezer (...) gaur egungo espiritua berdina da, baina ibilbide bat egin dugu urte hauetan zehar. Aurten tendentzia berriak sartu ditugu: banden topaketak antolatu ditugu-" (Elkarrizketa 16)

3.3.2.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Antolaketari dagokionez, txosten honetan aztertu ditugun jaietan instituzionalena da neurri batean. Batez ere Xanti Espinak, Musika eskolako zuzendariak izaten du antolaketaren ardura. Halere, klaustroan hitz egin eta erabakitzen dituzte gauzak. Klaustroa emakume eta gizonen osatzen dute: 20 irakasle dira, 12 gizon eta 8 emakume. Baina muga handiak dituzte gainontzeko irakasleek ez baitituzte ordu asko izaten.

3.3.2.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Ez diote sekula erreparatu berdintasunaren gaiari. Udalak Berdintasun Plana martxan jarri zuenetik hizkuntzaren erabilerari eta sentisibilizazioari lotutako ekimenak egin dituzte. Beraien hitzetan, naturaltasunez egiten dituzte gauzak, hau da, ez dute genero-ikuspegia berariaz txertatzeko saiakerarik egin. Ez dute beharrik antzeman.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Esan digutenez, Lesoinuren kasuan, neskek prestutasun handiagoa izaten dute parte hartzeko. Saiatzen dira ikasleak erarik parekideenean kokatzen: tamainaren arabera ere, denek beraien espazioa izan dezaten. Emakume gehiagok parte hartu arren, aldea ikusten da neskak beti taldean ateratzeko joera izaten dute, eta mutilak ordea, bakarrik ateratzeko prestago egoten dira.

"Aurten adibidez, ikasleen artean 8 mutil eta 25 neskak parte hartu dute. Bakarka bi mutil atera dira, neskarik ez zen atera. Irizpiderik ez dugu, kurtsuan zehar ikusten goaz eta klaustroan komentatzen dugu..." (Elkarrizketa 16)

Komentatu digutenez, Lesoinun bertan boluntarioen lan-banaketan genero-roletan oinarritutako zenbait "joera" antzeman daitezke.

"Luntxa prestatzeko adibidez emakumeak izaten dira boluntario, amak izaten dira horren ardura hartzen dutenak. Gero jasotzea guztion artean egiten dute, emakume eta gizon. Baina prestaketa orain arte beti emakumeek." (Elkarrizketa 16)

Musika eskolako erabiltzaile edo ikasleen artean ere joera emakume gehiago egotea izaten da. Musika instrumentu batzuetan gizonak gailendu arren.

"Garai batean aldea nabarmenagoa zen, gaur egun orekatuagoa dago neska eta mutilen arteko aldea." (Elkarrizketa 16)

Lehen gurasoek lotura handia zuten musika eskolarekin, militantzia puntu bat zegoen, asko identifikatzen ziren. Gaur egun zerbitzu bat gehiago da, eta eskola kirolarekin "lehiatu" behar dira.

3.3.2.4. Indarkeria matxista





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Ez dute indarkeriaren inguruko berriazko lanketarik egin, eta ez dute aurre egiteko tresna espezifikorik. Ez dute uste horretarako "alarmarik" piztu zaienik.

3.3.2.5. Ondorio nagusiak

- Lesoinu Lezoko Tomas Garbizu Musika Eskolak antolatzen duen ekimena da.
- Antolaketaren arduradun nagusia gizona da, Musika Eskolako zuzendaria, erabakietan klaustro osoak parte hartzen duen arren. Klaustroan ere gizonak nagusitzen dira.
- Oro har ikasleen artean emakume gehiagok parte hartzen dute Lesoinun, baina ez da berriazko lanketarik egin genero-ikuspegiz lan egiteko edo emakumeen presentzia bermatzeko.
- Indarkeria kasurik ez dute antzeman, ez da gaiaren inguruko lanketarik egin eta ez dituzte horretarako tresnak.

3.3.3. Garagardo feria

3.3.3.1. Sarrera

Duela lau urte hasi ziren Lezoko Garagardo Feria antolatzen. Tiñelu elkarte gastronomikoak antolatzen du. Antolatzen hasteko arrazoiak ezberdinak izan ziren, batetik, diru premia handia zuten eta bestetik, hedatzen hasia zen garagardo artisauen kultura, eta elkartekide batzuk garagardo zaleak ziren.

"Lo organizamos desde la sociedad Tiñelu, y empezó porque estábamos con necesidades económicas y como alternativa, pues dijimos vamos a probar. De momento económicamente, hicimos el primer año a modo de prueba, y vimos pues bueno, que era viable no, 4 días de esfuerzo para los que nos rentaba. Un poco surgió de ahí y también pues bueno de esta cultura de cerveza de las ferias de cerveza que está en pleno auge." (Elkarrizketa 17)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.3.3.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Antolaketaz elkarteko 4 kide arduratzen dira, denak dira gizonezkoak eta tartean Sagardo Eguna antolatzeaz arduratzen direnetako batzuk ere badaude. Antolaketak bi hilabete ingurutako lana eskatzen du, elkarrizketatuak aipatu digunez uztailan hasten dira antolatzen eta iraila ere horretan ematen dute.

"Lo que es en la organización estamos poca gente, estamos 4 personas y todos somos hombres. No por ninguna razón, nos encantaría que hubiera también mujeres, pero el problema es que ya de por sí es difícil buscar a gente para trabajar... y estamos bueno, pues a los que de alguna manera les hemos enganchado por ahí y que están en disposición de echarnos una mano..." (Elkarrizketa 17)

Solemos empezar a prepararla en Julio, luego en Agosto todo está parado y todo el mes de septiembre también estamos a ello." (Elkarrizketa 17)

Garagardo Ferian bertan ordea asteburu osoko dinamika izanik, jende asko behar izaten dute. Lanean emakume eta gizonak egoten direla aipatzen digu elkarrizketatuak.

"Trabaja mucha gente, porque requiere mucho personal. Nosotros calculamos que puede haber 100 y pico personas trabajando durante esos 4 días. Entonces ahí sí que estamos tanto mujeres como hombres. Es decir en la organización no, pero en lo que es el trabajo propio de los 4 días el montaje, desmontaje, y la propia feria ahí sí que estamos mujeres y hombres." (Elkarrizketa 17)

Aurtengoa jadanik laugarren urtea izango den heinean, prestaketa gero eta errazagoa dela komentatu digu elkarrizketatuak. Ez dute berrikuntzarik bilatzen, eta dinamika urtetik urtera errepikatzen dute.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Al final una vez de que ya has cogido la experiencia va un poco sobre ruedas. Entonces ya sabes a quien tienes que hacer los pedidos, esto, lo otro... lo más complejo es empezar a hacer la lista para cubrir los turnos de gente." (Elkarrizketa 17)

Garagardoa zerbitzatu eta afariak emateaz gain, kontzertu edo ekitaldiren bat antolatzen ere saiatzen dira. Egun bakoitzean ekitaldi mota aldatzen saiatzen dira, eta elkarrizketatuak baieztatu digunez ez dute genero-ikuspegiz lan egitea planteatu ere egin. Azaldu digunez, guk galdetu arte sekula horretan pentsatu gabe zegoen, eta aitortzen du oholtza gainean izan dituzten gehienak, ia denak, gizonak izan direla. Antolatzen dituzten ekimen moten artean errearen partidua, gizonena, ikusteko pantaila jartzea ere badago. Elkarte gastronomikoetan tradizionalki gizonek egin izan duten ekimen mota da, eta genero-rol maskulinoei estuki lotutakoa. Berariaz, horrela planteatu ez duten arren, argi ikusten da joera bat, maskulinitasunari oso lotutakoa.

"Luego procuramos que si no todos los días que casi todos los días haya algún tipo de actuación. No tenemos en cuenta la perspectiva de género. Lo que buscamos es una tipología de música que encaje en el ambiente que hay. Intentamos que no sea una música de mucho ruido que distorsione o que pueda molestar, entonces algo lasai, también descartamos el tema de bertsolaris porque la gente está a lo que esta y al final resulta incomoda para quien está actuando... Solemos buscar, pues por ejemplo el viernes metemos charanga, una charanga, el sábado hemos probado diferentes cosas, el año pasado pusimos un DJ pero le marcamos nosotros que tipo de música podía meter, antes actuaron un grupo folk de Lezo... y el jueves normalmente no metíamos nada pero hace dos años apareció un grupo alemán, que estaba de vacaciones, y nos pidieron actuar y como no nos cobraban... pues bueno se lo bebieron en cerveza. Y era un grupo mixto, y tubo aceptación maja. Y luego el domingo, que es un día un poco tonto, hemos o bien puesto pantalla para ver el partido de la real ..." (Elkarrizketa 17)

Halere, berrikuntzak eta bestelako ikuspegiak eta proposamenak onartzeko prestutasuna adierazi digu elkarrizketatuak.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"La realidad es que mujeres así por aquí cerca en grupos más o menos pequeños, pues yo la verdad es que no conozco... si conoces, oye pues encantados. Fundamentalmente es un tema económico, y la verdad que yo no me lo había planteado, pero claro sería mucho más diverso." (Elkarrizketa 17)

Garagardo azoka antolatzeke beharrezko azpiegitura udalak jartzen du, gainontzeko guztiaz Tiñelu elkarteak du ardura osoa.

"Dentro de que es una fiesta, la relación que tenemos con el ayuntamiento, no le pedimos medios económicos como tal pero sí que nos proporciona la infraestructura necesaria." (Elkarrizketa 17)

3.3.3.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

Aurretik aipatu digunez, festaren garapenean emakume eta gizonen kopuru antzekoetan parte hartzen dutela esan digu elkarrizketatuak, eta pertsona bakoitza gustuko duen lanean aritzeko aukera izaten duela. Barran zerbitzatzen egoteko baldintza bat bete beharra dago, aurretik garagardo zerbitzatzen jakitea, bestela galera ekonomiko handia suposatu baitezake. Gerora onartu digu, errealitatean ikusgarritasun handien duen lan horretan mutilak nagusitzen direla, askotan koadrilaka izen ematen dutela eta emakumeek beste lan batzuk hartzeko joera izaten dutela.

"Normalmente a la gente le damos opción de elegir en que área de trabajo quieren estar. En la única zona que diferenciamos en cuanto a experiencia es el tema de la barra, porque si no sabes sacar cerveza con la espuma se desaprovecha mucha cerveza y es mucho dinero el que se pierde (...) Solemos intentar que en todos los turnos haya alguien con mucha experiencia en barra, (...) fundamentalmente, la realidad es que la mayoría son chicos, y entran casi en cuadrilla." (Elkarrizketa 17)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Luego está el área cocina, suele estar todo muy estructurado, luego está el área de limpieza... y ahí si es verdad, que son las mujeres más propensas a tirar al área de limpieza." (Elkarrizketa 17)

Eta publikoa edo kontsumitzen datorren jende-mota ere oso anitza dela aipatzen digu, adinari zein sexuari dagokionez, denetik etortzen dela.

"Suele haber de todo y no me atrevo a darte porcentajes, yo me atrevería a decir que parecido tanto en términos de género como de edades, vienen familias con niños, gente mayor de "aiton-amonak", gente muy joven que tienes duda si puedes darle la jarra... lo que varían son los horarios." (Elkarrizketa 17)

3.3.3.4. Indarkeria matxista

Ez da indarkeria matxistaren inguruko inolako lanketarik egin, baina ziurrenik protokoloa izatea baliagarria izan litekeela uste dute. Orain arte behar izan ez duten arren.

"No tenemos un protocolo y considero que igual es un tema que tendríamos que mirar. Porque los que organizamos, siempre estamos alguna de la personas de organización. No se nos había ocurrido hasta ahora la verdad, asumimos la crítica." (Elkarrizketa 17)

3.3.3.5. Ondorio nagusiak

- Elkarte gastronomiko batek antolatutako jaia da, gizonen osatutako lantalde bat arduratzen da Garagardo Feria antolatzeaz. .
- Feriak irauten dituen egunetan emakume eta gizonak egoten dira lanean. Ikusgarritasun handien duen espazioa, barra, gizonak nagusitzen dira; emakumeek sukaldean eta garbiketa lanetan topatu daitezke maizago.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Genero-ikuspegia ez da berriaz kontutan hartzen.
- Kontzertuak antolatzerakoan ez da berriaz emakumez osatutako talderik bilatzen.
- Feriara adin guztietako emakume zein gizonak hurbiltzen dira.
- Ez dute indarkeria kasuetarako protokolorik eta landu beharra aipatu dute.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.4. PASAIA

Pasaia lau barrutitan banatuta dago: Antxo, Trintxerpe, San Pedro eta Donibane. Barruti hauetako bakoitzak bere patroia du, eta jaien antolaketarako egitura propioa. Barruti bakoitzak jai-batzordea du, barrutiko eragile eta elkarteek parte hartzeko, batzorde bakoitzeko lehendakaria barrutiko alkateordea da. Funtzionamendu nahiko antzekoa duten arren, lau barrutietako bakoitzaren jai-patronalaren azterketa egin dugu.

3.4.1. Antxo

3.4.1.1. Sarrera

Antxoko jaiak jatorri elizkoia dute, izan ere XIX. Mende bukaerakoa¹³ da Antxoko eliza, eta hura eraikitzeke lurra doan utzi zuen Fermin Lasalaren esker onez aukeratu zuten San Fermin patroitzat. Ordutik ospatzen dituzte Antxotarrek San Ferminak.

3.4.1.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Antxoko jaien antolaketaz jai-batzordea arduratzen da. Jai-batzordea kudeaketa eta antolaketarenardura duen egitura bat da. Bertan parte hartzen duen eragileetako bat, Topagunea, jai herrikoiak eta parte-hartzaileak sustatzeko xedetik sortu zen duela hiru urte. Jaien antolaketari buruzko atal honetan, jai-batzordeak zein Topaguneak duten barne-funtzionamenduari erreparatuko diogu.

JAI-BATZORDEA

Jai-batzordeak deialdi irekia egiten du, eta herriko eragile guztiek izaten dute parte hartzeko aukera. Halere, elkarrizketatuek aipatutakoaren arabera, erabakietan botere edo zeresan handiagoa izaten dute, urteetan parte hartu izan dutenek zein urte osoan

¹³ <http://www.antxo.com/?p=13>





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

zehar antolatzen diren ekimenetan parte hartzen dutenek, neurri batean dinamikaren parte direnek.

"Lehenengo asteetan egiten da deialdi irekia egiten da maiatza partean. Baina egia da geroz eta gauza gehiago antolatzeaz arduratzen dela jai-batzordea, eta urte osoko dinamika dutela: Santo Tomasak, erregeak etab... Urte osoan zehar antolatzen dutenek botere, eragiteko ahalmen, handiagoa dute." (Elkarrizketa 19)

Jaien programa aurreko urteko programan oinarrituta prestatzen dutela dio elkarrizketatuak, eta beraz berrikuntzarako tarte txikia egoten dela.

"Jai-batzordeko dinamika izaten da aurreko urteko programatik abiatu eta ia-ia kopiatu eta itsastea, eta egia esan, ekimen berriak sartzeko kontu zaila da." (Elkarrizketa 19)

Jai-batzordearen osaerari dagokionez, emakume eta gizonen parte hartzen dutela esan digu elkarrizketatuak. Bileretan emakumeek zein gizonen parte hartzen dutela dio, baina badirela bileretara azaldu gabe, erabakietan eragiteko ahalmena duten pertsonak, eta horiek gizonak izaten direla.

"Jai-batzordean ere nahiko parekatua dago emakumeen eta gizonen kopurua, gero kontua da jende bat bileretara azaldu ez arren erabakietan parte hartzeko aukera handiagoa duela, eta horiek normalean gizonak izaten dira. Bestela bileretako parte-hartzea nahiko parekidea izaten da." (Elkarrizketa 19)

Lanen banaketa ematen dela dio, emakumeek umeentzako jolasak prestatzen dituztela, antolaketa eta apainketa lanetan ere gailentzen direla, eta mutilak orokorrean kudeaketaz arduratzen direla.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Jai-batzordean neskak arduratzen dira umeentzako jolasak antolatzeaz, prestaketarako eta apainketarako, loreak eta abar, eta kudeaketaz orokorrean mutilak, bai kontzertuak, bai pertsona erreferenteak etab." (Elkarrizketa 19)

Erabakietan emakumeek ere parte hartzen duten arren, horrek ez duela genero-ikuspegia txertatuta egotea bermatzen, genero-rol tradizionaletan oinarritzen diren eta oso markatuak dauden rola sustatzen dituzten hainbat ekimen badaudela aipatu digute elkarrizketatuek, eta jai-batzordean sentsibilizazio lana egiteko behar handia dagoela.

"Gero bestetik badago azken urteetan indarra hartzen ari den kontzertu bat, deitzen dena "La Tarantela", batetik hizkuntzaren aldetik gaztelera hutsez izaten da, eta bestetik orkestra bat izaten da, eta rola oso markatuak, mutilak dira protagonistak, neskak dantzariak dira eta ikuskizunean zehar bost aldiz aldatzen dira arropaz., oso rol estereotipatuak sustatzen dituzte." (Elkarrizketa 19)

Berdintasuna jai-batzordean aipatu denetan beti egon dela indarkeriari lotuta, zentsu horretan jai-batzordeak konpromiso osoa adierazi izan duela azpimarratu digu elkarrizketatuak baina, ikuspegi zabalago batetik lantzeko beharra dagoela. Horren erakusle diren hainbat adibide eman dizkigute, intentzio txarrik gabe, baina hausnarketa horren faltan izandako ondorioak deskribatu dituzte, lanketa horren beharra adierazteko.

"Nik Antxon planteatu izan ditut horrelako gaiak jai-batzordean, denek lotzen ditugu jaiak erasoekin, eta horretan bai, oso argi ikusten dute guztiek horren kontrako neurriak behar ditugu. Baina hasten zarenean bestelako gauzak planteatzen, adibidez zergatik oholtzara igotzen direnen %80a gizonak diren, orduan meritokrazia azaltzen da, nahi baditugu bertsolari onak, edo musika-talde onak, eta ez daude prest agian horrenbesteko izena ez duten emakumeak ekartzeko." (Elkarrizketa 19)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Iaz edo duela bi urte, eszenatoki gainean batu ziren 8 mutil, begietan mina ematen zuen egia esan. eta bertsolariak ere komentatu zuten, orain beraiei arraroa eta dena egiten zitzaiela hainbeste bertsolari eta denak mutilak izatea. Bueno horren atzean dagoena da, **kontzientzia falta bat**, eta zerrenda hartu eta **zeintzuk dira onak pentsatu dela, emakumeak edo gizonak diren planteatu gabe..**" (Elkarrizketa 19)

"Ekimen nagusietan iruditzen zait gizonek parte hartzen dutela era nabarmenagoan. Adibidez, sortu zen duela urte batzuk pala txapelketa, eta berez txapelketa ez da gizonen pala txapelketa, baina gizonen baino ez zuten parte hartzen, zergatik? ba aurre-lanketarik egiten ez delako, eta agian neskak ba pala txapelketan parte hartzeko ohiturarik ez genuen, , edo ez dira neurriak hartzen emakumeek ere parte hartu dezaten. Orain sortu da emakumezkoen pala txapelketa, ari dira pixkana pausoak ematen.. baina **hausnarketa puntu hori falta zaigu..**" (Elkarrizketa 19)

Zentsu horretan, eta oso barneratutako kontuak diren heinean, berdintasunaren alde eragitea sustatze aldera, diru-laguntzatan klausulak txertatzea proposatu du elkarrizketatutako pertsona batek.

"Antxon inertziaz ematen diren kontuak dira, astero entzuten ditugun gauzak dira, ba adibidez dantza eta xakea ordutegi berdinean kointziditzeak ez dio inporta, neskak dantzan egongo direlako eta mutilak xakean." (Elkarrizketa 19)

"Guk erabaki dugu guk gurea sortzea, Topagunea, ez da errazena, baina erabaki hori hartu dugu. Baina egia da, herriko jaien antolaketaren ardura jai-batzordeak duela eta bertan hartu beharko lirateke neurriak. Zoritxarrez, seguruenik, modurik eraginkorrena horretan eragiteko ba dirulaguntzetan klausulak txertatzea izan daiteke. Iruditzen zait kontzientzia landu behar dugula baina elkarteek horretarako beharra sentitu dezaten baldintza batzuk bete beharko dira, eta adibidez gizonezko danborrada batek ez luke dirulaguntza publikorik jaso behar." (Elkarrizketa 20)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

TOPAGUNEA

Harremantxo, Antxoko talde feministan mugitzen ziren hainbat pertsonak, beste jai-eredu bat martxan jarri nahi izatetik duela hiru urte Topagunea sortu zuten. Sorreraren abiapuntua nolakoa izan zen azaldu digu elkarrizketatuak:

"Pixka bat Harremantxotik sortu zen Topagunea. Bagenbiltzan batzuk herrian zegoen jai-eredua asko gustatzen ez zitzaiguna eta hasi ginen ba gu beste eragile batzuekin harremanetan jartzen eta hortik sortu zen. " (Elkarrizketa 19)

"Nire aldetik, garai batetan gaztetxea zegoen, eta hori bazen agian gainontzeko jai-girotik arnasmune bat. San Ferminak ari ziren bihurtzen tabernetan zentralizatutako jai batzuetan, taberneke geroz eta karpa handiagoak muntatzen dituzte tabernen kanpoan. eta jai-batzordeak antolatutako programazioa bigarren plano batetara pasatzen hasia zen. Saiatu ginen gazteon ikuspegia ere jai-batzordera eramaten, eta bertan parte hartzen hasi ginen, baina giroa oso kutsatuta zegoen, inertzia handiak zeuden eta ikuspegia oso komertziala eta gazteleraz zen." (Elkarrizketa 20)

Jai parekideak, euskaldunak eta parte-hartzaileak sustatuo nahi dituzten heinean, urtean zehar balore batzuen inguruko lanketa egiten dutela aipatu digu elkarrizketatutako pertsonak, kontzientzia eta hausnarketatik abiatzen direla. Taldearen funtzionamendua bileretan oinarritzen dela esan digu, deialdi publikoa egiten dela eta erabakiak bileretan hartzen dituztela esan digute, eta WhatsApp talderik ez egotea erabaki zutela.

"Egiten da lanketa bat urte guztikoa, horretarako erabiltzen dira San Fermin jaietako kantaren eskailera: urtarrilak 1, otsailak 2... hilero zerbait lantzeko edo gai konkretu baten inguruan zerbait lantzeko. Hilero egiten da zerbait, balio izan digu baloreak landu ahal izateko. " (Elkarrizketa 19)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Behintzat gauzak zalantzan jartzea, planteatzea edo eztabaidatzea, gure artean, sustatu nahi dugun ereduaren inguruan hausnartzeko espazioa izatea, eta herriarekin ere, ahal bada, ze hori zailagoa da." (Elkarrizketa 20)

Lantalde espezifikoak sortuta dituztela esna digute, batetik landu nahi dituzten baloreetan zentratutakoak eta bestetik zeregin espezifikoez arduratzen direnak zer bait, eta aurren apustua egin dutela zaintzaren inguruko lantaldea sortuta.

"Lantalde espezifikoak sortuta ditugu, zaintzaren inguruko lantalde bat sortu dugu aurren, euskaran inguruko beste bat, etab. kontzertuak,, egitaraua, beste batzuek antolatzen dituzte." (Elkarrizketa 19)

Jende berria sartzen ari den arren, jende gehiagorengana iristeko lanketa egiteko aukera badutela aipatu digu elkarrizketatuak. Oro har emakumeak nagusitzen direla esan digu eta aniztasun handia dagoela.

"Topagunean gehiago gara neskek mutilak baino, eta anitzagoa da, bate ere koadrila batetakoak dira denak, eta nesken artean aniztasun handiagoa dago, koadrila, adin eta toki ezberdinetatik gatozelako. Hori oso aberasgarria da, jende berria sartzen da urtero, jendea aldatzen doa." (Elkarrizketa 19)

Topagunea ere jai-batzordean parte hartzen duen beste eragile bat den heinean, elkar osatzen duten ekimenak antolatzen saiatzen direla esan digu.

"Egia esan, guk Topaguneko programa osatzen hasi ginenerako aurren, jai-batzordeak programa ia itxita zuen, gu joan ginen lehengo bileran, programa bazuten, hortaz guk gure programa ere moldatu dugu aldi berean gauzak errepika ez zitezen etab.. elkar osatu behar dute programek ez dago pentsatuta kontra egiteko." (Elkarrizketa 19)

Botere-harremani dagokienez, erabakiak eta boterea gutxi batzuen esku egotea saihesteko saiakera eta tresnak baliatzen dituzten arren, zaila dela eta botere-





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

harremanak ematen direla aitortu digu elkarrizketatuak. Dinamika egokituz joan direla aipatu digu eta bileren planteamendua adibidez, guztiek errazago hitz egiteko aukera izan dezaten egokitu dutela. Adinak eta esperientziak berak, ematen duten boterearen inguruko hausnarketa ere egin du elkarrizketatuetako batek.

"Topagunean ere, iruditzen zait saiatzen garela ekiditen, baina gero pisua batzuen gainean gehiago erortzen dela. Ez bereziki pisu hori batzuek hartzen dutelako, baizik eta gehiago dela, ba igual bada jende bat jarraikortasun gehiago daukana eta beste batzuk era puntualagoan parte hartzen dutenak, eta orduan jarraikortasun handiagoa duten horiengan erantzukizun gehiago egoten da, eta gainera, agian ematen zaie aitortza bat. Halere, iruditzen zait aurten iaz baino hobeto ari garela zentsu honetan, hobetzen saiatu garela, iaz pisu guztia gutxi batzuen esku zegoen eta aurten lantaldeak egin ditugu hasieratik, bilerak era ordenatuago batean planteatu dira eta horrek lagundu du, ardurak banatu ditugu denen artean." (Elkarrizketa 19)

"Hala ere adinak eragin handia du, botere handiagoa hartzen duzu eta ematen dizute helduagoa izateagatik, eta Topagunean ere horrela da. Ze badira 16 urte inguruko gazteak, gogo handia dutenak baina agian edo ez diegu ematen edo eurek ez dute hartu nahi, ez dakit, baina egia esan, hor daude egunero, eta laguntzeko prestutasun osoa dute." (Elkarrizketa 20)

"Oso kontzienteak gara gure antolaketa ere ez dela ideala, baina botere.harreman horien kontzientzia dugu eta tresnak jartzen saiatzen gara hori ekiditeko." (Elkarrizketa 19)

Lanen banaketari dagokionez, antolaketatik hasita zaintzen den kontua badela aipatu digute. Halere, kontzientzia izan arren praktikan estereotipatutako zenbait rolen erreprodukzioa ere egiten dutela esan digu elkarrizketatuko pertsona batek, batez ere muntaketa lanetan, pisua duten gauzak eramatean, etab mutilengana jotzeko joera badagoela.






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Topagunean gehienak neskak garenez, ba egia esan ez dut uste alde nabarmenik dagoenik neskok eta mutilok egiten ditugun lanekin. Adibidez ni pertsonalki, banago kontzertuen lantaldean eta hau bada nire buruari jarri diodan erronka, ze bestela bada agian mutilek hartzen duten ardura bat., ikuspegia lantzen saiatzeko, emakume taldeak ekartzeko etab,,, ba taldean nago. Gero egia da praktikan, rolak erreproduzitzen ditugula guk ere seguruenik, ba muntaketan, pisuak eramaten etab. mutilak nagusitzen direla." (Elkarrizketa 19)

JAIETAKO PROGRAMA



Azken hamar urtetako lau programetako irudiak aztertu ditugu, irudi horietan emakume eta gizonak zertan eta nola azaltzen diren erreparatuta, eta ez da alde nabarmenik edo inolako eboluziorik ageri portzentajeetan zentratuz gero, zenbaki absolutuetan ordea, argazki gutxiago jartzeko joera nabarmendu daiteke. Antxoko jaietako programetan emakume eta gizonak oso era desberdinean azaltzen dira eta gizonak nagusitzen direla esan dezakegu. Izan ere, gizonak bakarrik dute protagonismoa argazkien %40 inguruan eta emakumeekin batera azaltzen dira beste %52tik gora; hau da, gizonen argazkien %95an azaltzen diren bitartean, emakumeak gizonekin batera azaltzen dira %55an eta argazkien %5ean baino ez dira protagonista gisa azaltzen.

Elkarrizketatuetako batek ere, guk egindako ariketa egin gabe ere, pertzepzio hori bazuela aitortu digu.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Beti izan dut egin beharreko zeregin bat: jaietako programa hartu eta ekintzaz ekintza aztertzea ea zeini zuzenduta dagoen; baina hori egin gabe ere, badakit zein izango litzatekeen emaitza: gizonei, seguru nago." (Elkarrizketa 19)

3.4.1.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

San Fermin jaietako ekimen nagusietako bat, danborradak dira eta emakume zein gizonek parte hartzen duten arren, genero-roletan oinarritutako pertsonaia ezberdinak badaudela komentatu digu elkarrizketatutako pertsonak. Pertsonai horien zereginak azaldu dizkigu, eta aldaketak ematen hasi direla aipatu du.

"Ez dakit, beno danborradetan badago genero-rol bereizketa bat, ba kantinerak daude eta gastadoreak gizonezkoak dira baina ez da Donibanekoa bezain argia, non denak derrigorrez mutilak diren. (...) eta gastadoreak kantineren bila doaz beraien etxera, kantinerek merienda prestatu behar diete... Gero badago beste danborrada bat, elkarte batek antolatzen duena, Basari eta irekiagoa da eta beno, pixkanaka aldaketak gertatzen ari dira." (Elkarrizketa 19)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Antxoko danborradetan gastadoreen figura nahiko ukiezina dela iruditzen zaion arren, azken urteetan aldaketa batzuk gertatu direla aipatu digu. Gertatu diren aldaketa nagusien berri eman digu elkarrizketatuak, beteranoen danborradan emakumeak sukaldari rolean ateratzen hasi dira, eta Basari elkarteak kantinera figura, ordezkari figurarekin aldatu duela azaldu digu.

"Antxoko danborradan, iruditzen zait gastadoreen papera nahiko ukiezina dela, eta beteranoen danborradan sukaldari modura hasi dira emakumeak ateratzen, baina gastadore moduan ez. Basari elkartearen danborradan adibidez, kantinera papera zegoen eta duela bi urte-edo aldatu zuten, eta orain ordezkariak dituzte, neska eta mutila dira." (Elkarrizketa 19)

Danborradekin batera, oso genero-rol estereotipuetan oinarritutako beste ekimen bat *iñude eta artzaiak* izan dira, elkarrizketatuak komentatu digu Antxon duela urte batzuk egiteari utzi zioten arren, aldaketak txertatu izan dituztela, neskak ere mutilen rolean jarriz, zentsu horretan herritarrek aldaketaren aldeko jarrera adierazi dutela goraiatu digu.

"Utzi diogu egiten, baina adibidez, lehen iñude eta artzaiak egiten genuen dantza taldetik San Ferminetan, eta hor egia esan, errepresentazio bat denez, ba rolak oso markatuak daude., eta adibidez atera izan gara neska batzuk mutilen rolean, kasu askotan igual mutilak falta zirelako izan da, baina agian kalean baten batek komentatu du, a ze ondo, iruditzen zait jendeak geroz eta gehiago txip hori baduela, eta txalotu egiten direla horrelako aldaketak kontra egitea baino." (Elkarrizketa 19)

ZAINZA-LANAK

Topagunean parte hartzen duen elkarrizketatu batek aipatu digunez, iaz joko bidez zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna bisibilizatzen saiatu ziren, halere batetik hausnartu eta konturatzea dago eta beste kontu bat praktika da.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Gu iaz saiatu ginen joko batzuen bitartez bisibilizatzen ba hori, egun hauetan denok gaudela kalean goxatzen baina etxera goazenean, zeinek prestatzen ditu arropa zuriak, zeinek prestatzen du bazkaria, garbitu etab. eta guzti hori emakumeek egiten dutela. Eta joko pare bat egin genuen, ardura hori denona dela bisibilizatzeko. Baina beno, gero etxera iritsi eta seguru aski galtzak, amak garbituko dizkit.." (Elkarrizketa 20)

Zaintza lanek jaietan duten eraginaz galdetuta, emakumeen partaidetza amatasunari oso lotuta egoten dela aipatu digu, eta seme-alabak behin kokortu ondoren aktiboago parte hartzera bueltatu egiten dela.

"Adin artearen arabera aldea dagoela uste dut. Adibidez gurasoetan, hola oso era orokorrean baina uste dut tendentzia izaten dela txosnako txanda mutilak eta neskak zaintza lanak egitea. Helduen danborradan, emakume dezentek parte hartzen dute, seme-alaben zaintzaz arduratu behar ez diren adinean dauden emakumeak." (Elkarrizketa 19)

Bestetik guraso gazteen artean parrandan ateratzeko txandakatzea ohikoa dela iruditzen zaio elkarrizketatuari.

"Lehen gurasoak aipatu ditugu, eta kanpotik baina iruditzen zait gero eta gehiago saiatzen direla parranda egiteko txandakatzen., ardurak pixka bat banatzeko kontzientzia badago." (Elkarrizketa 19)

3.4.1.4. Indarkeria matxista

Aurretik aipatu dugun bezala, jai-batzordean berdintasuna landu den kasuetan jaietan gertatutako erasoei otutako lanketa izan da. Horretan erabateko adostasuna adierazten omen dute jai-batzordea osatzen duten eragile guztiek. Era honetara, elkarrizketatutako pertsonak adierazi digunez, herritarrek udaletik bideratutako






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

kanpainak baino ezagunago dituzte Harremantxo talde feministak egin dituenak, eta iaz antolatu ziren Brigada Moreekin jarraitzeko asmoa dute aurten.

"Harremantxok egindako lanketa dute erreferentzia modura, udalekoa baino gehiago. Ba duela urte batzuk kanta bat sortu genuen eta musikarekin zerrenda bat banatu genuen taberna guztietan, gero "jantzi betaurreko moreak" kanpaina egin genuen beste urte batean eta sinbolikoa zen, baina jendeak galdetu egiten du oraindik, badituzue betaurreko moreak, eta iaz kontua da jaiak baino bi aste lehenago antolatu genuela, brigada moreen kontua, aurten hobeto antolatuko dugu, ondo herrietako esperientziak genituen, baina ikusten genuena zen batetik beharrezkoak direla, badaudelako etxerako bueltan beldurra pasatzen duten emakumeak, eta beraz lagundu egin behar zitzaizela etxera, eta saiatu ginen horri buelta ematen neurri batean behintzat, eta saiatu ginen etxera laguntzen baina modu alai batean, ez zedin transmititu beldurra, eta hortaz kalejiran joatea, soinuarekin, banderolekin. ez da bakarrik goazen etxera, baizik eta, hemen gaude eta presente izan gaitzaten."
(Elkarrizketa 19)



Iturria: Brigada Moreak informazio-orria (2017)



Oarsoaldean
jai = zaleak



3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Iturria: Oarsoaldeko Hitza, Antxoko Brigada Moreak.

Sentsibilizazio eta babes ekintzekin batera, erasoak gertatzen direnean erantzuteko tresnak ere beharrezkoak direla aipatu digu elkarrizketatuak, eta Harremantxok landutako protokoloaren inguruko lanketa eta sozializazio lana egin dutela Topagunean.

"Harremantxo modura ere, aktuazio protokolo bat landu dugu. Asmoa da batetik Topagunera eraman eta bertan lantzea, eta bestetik, jai-batzordera ere eraman nahi dugu, jai-batzordearen babesa ere izan dezan eta beraien ekarpena egin dezaten." (Elkarrizketa 19)

Bestalde, prozesu honen baitan jai-batzordeari aurkezten udaleko berdintasun teknikariarekin batera joan ginen bileran bertan jai-batzordeko kideei Oarsoalde mailako protokoloaren eta eraso matxisten kontrako kanpainaren berri eman zien teknikariak batzordekideei. Materiala alkateordearen bidez zabaltzekotan gelditu ziren.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Bukatzeko elkarrizketatuetako batek esan digu, lanketa egokiak bideratuz gero, jaiak eraldaketa bultzatzeko tresna oso indartsua izan daitezkeela.

"Jaiak badira gure egunerokotasunetik irteteko une normalean alaia, eta iruditzen zait oso tresna baliotsua direla balore asko lantzeko, eta tartean berdintasuna, noski. Aprobetxatu beharko lirateke, neurriak hartu eta lanketak egin." (Elkarrizketa 20)

3.4.1.5. Ondorio nagusiak

- Jai- batzordea Pasai-Antxoko San Fermin jaien inguruko kudeaketa lanez eta antolaketaz jai-batzordea arduratzen da.
- Pasai-Antxoko Topagunea, jai-herrikoiak eta parte-hartzaileak sustatzeko xedetik sortu zen duela hiru urte, eta jai-batzordean parte hartzen duen eragileetako bat da.
- Jai-batzordeko bileretan emakumeek eta gizonek parte hartzen dute berdintsu, halere sumatu izan da bileretara etorri gabe erabakietan eragiteko ahalmena duten zenbait pertsona daudela, eta gizonezkoak izaten direla.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Oso markatuak dauden rolak sustatzen dituzten hainbat ekimen antolatzen dira jaietan, eta jai-batzordean ez da genero-ikuspegia berariaz kontutan hartzen.
- Zenbait danborradetan aldaketak txertatzen hasi dira, baina oraindik ere badira genero-roletan oinarritutako figurak mantentzen dituzten danborradak. Zentsu honetan, elkarte edo eragileek beraien gain hartu izan dituzte barne-lanketa eta hausnarketa-lanak, udalaren aldetik ez da sustapen lanik egin.
- Zaintza lanek eta amatasunak emakumeek jaietan parte hartzeko moduan edo intentsitatean eragiten duela uste dute.
- Indarkeria matxistari lotutako kanpainak, ekimen konkretuak (brigada moreak) eta protokoloa martxan jarri izan du Harremantxo talde feministak San Fermin jaietan Topagunean.

3.4.2. Trintxerpe

3.4.2.1. Sarrera

Trintxerpeko jai nagusiak Karmenak dira, jatorri erlijiosoa duen ospakizuna da eta uztailaren 16a izaten da jaietako egun handia, Karmengo amaren eguna. Jaiak herri guztiarentzat antolatzen dira eta ekimen ezberdinak izaten dituzte, elkarrizketatu dugun pertsonak aipatu digunez, azken urteetan ez dute aldaketa nabarmenik izan.

"Antolatzen dira herri guztiarentzat, ba bai danborradak, bazkariak.. betikoa eta gero gu arduratzen gara txosna guneaz, kontzertuez eta gazteei begira ba gauzaren bat antolatzeaz jolasak adibidez... eta herri-bazkariak." (Elkarrizketa 18)

"Festak egia esan, nik dakidala beti ospatu dira berdin. Kenduta bigantxak zeudela lehen eta orain jadanik ez ditugula." (Elkarrizketa 18)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Barrutia bitan banatzen dela, bi “auzo” nagusi, edo mugitzeko bi giro daudela aipatu digu elkarrizketatuak, baina guztietan denetik egon ezin denez, elkar osatu beharra dagoela.

"Trintxerpen bi gune bereizten dira: Azkuene eta Serafin Esnaola plaza eta hori festa komisioren borroka nagusia, dena denean jarri nahi delako eta Trintxerpe oso zabala da, baina ez dago horrenbesterako aurrekonturik." (Elkarrizketa 18)

3.4.2.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Trintxerpeko Karmengo jaiak antolatzeaz, Trintxerpeko jai-batzordea arduratzen da. Barrutiko alkateordeak ere jaien antolaketan parte hartzen du, elkarrizketatuak aipatutakoaren arabera kudeaketa-rol batetara mugatzen den arren.

"Jai antolatzeko biltzen gara festa komisia eta barrutiko alkateordea, eta festa komisia da barruti horretako elkarteek, nahi dutenek, sortzen duten taldea festak antolatzeko. Batu egiten gara eta festak antolatzen ditugu, eta alkateordearen rola izaten da diruaren asuntiaz arduratzea." (Elkarrizketa 18)

Jai-batzordean herriko eragile ezberdinek parte hartzen dute: kirol elkarteek, danborradek, tabernaren batek, aisialdi eta gazte taldeek... Emakume eta gizon kopuruari dagokionez nahiko parekatuta dagoela esan digu elkarrizketatuak, berak helduen eta gazteen artean antzematen ditu alde nabarmenagoak. Bere pertzepzioa da, helduen espazioa izan dela urte askotan zehar jai-batzordea, eta gazteen hitzak balio txikiagoa izan duela, halere azken urteetan beraien tokia lortzen joan direla aipatu digu.

"Nik bereiziko nituzke helduak eta gazteak, danborradetakoak adibidez denak dira helduak. Helduak nik kontsideratzen ditut, 40 urtetik gorakoak, eta gazteak gu gara aurkezten garen bakarrak. Eta emakume eta gizonei dagokionez, ba iruditzen zait nahiko parekatua dagoela, nik ez dut alderik nabaritu." (Elkarrizketa 18)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Oro har eta salbuespenak salbuespen esango nuke, helduenek botere handiagoa dutela bileretan. Azken batean helduen erabaki-gunea izan da jai-batzordea eta gudan hasieran ez zegoen konfiantza handiegirik. Iruditzen zait azken urteetan gure tokia egin dugula jai-batzordean." (Elkarrizketa 18)

Erabakiak bileretan bertan hartzen direla aipatu digu elkarrizketatutako pertsonak, bozkatze bidez erabakitzen dutela, bere pertzepzioa da azken hitza beti alkateordearena dela.

"Erabakiak asanbladan bozkatu arren, iruditzen zait azken hitza halere, alkateordeak daukala. Azken batean, berak erabakitzen du baimena zeini eman eta zeini ez." (Elkarrizketa 18)

Genero-ikuspegia programan txertatzea eta berdintasuna bera ez dira berariaz lantzen jai-batzordean . Aipatu digunez, elkarte bakoitzak, elkarte-mailan duen sentsibilizazioaren arabera txertatzen du ikuspegia antolatutako ekimenetan.

"Nik esango nuke, jai-batzordean berdintasuna ez dela mahai gainera ateratzen. Eragile bakoitza bere interes propioetik doa batzordera, zerbait antolatzeko nahiarekin eta jai-batzordearen laguntza ekonomikoa eta baimenak lortzeko helburuarekin, ez dugu bestelako lanketarik egiten. Egia da zeharka elkarte bakoitzak barnean seguraski lanketa egina daramagula, kasu batzuetan behintzat eta zer sustatu nahi dugun badakigula" (Elkarrizketa 18)

"Sentsibilizazio-maila elkartearen araberakoa da." (Elkarrizketa 18)

Udalaren aldetik lidergo faltan botatzen dute berdintasunaren aldeko lanean. Elkarrizketatuaren aburuz, berdintasunean sakontzeko beharra dute eragile guztiek, eta jai-batzordetik egitea aberasgarria litzateke.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Ez dago batere laguntzarik udalaren partetik horrelako gauzetan eragin ahal izateko."
(Elkarrizketa 18)

"Emakumeen danborradak adibidez omentzen ditu urtero herriko hiru gizon. Aurten erabaki zen Bobeda gazte elkartearen omentzea, eta 3 gizon izan beharrean atara ziren bi gizon eta emakume bat. Tradizionalki gizonak omendu izan direnez, bilera berezi bat egin behar izan genuen emakumea ere omendu zitekeen erabakitzeko. Egia esan ez dakit gizonen danborradak zeintzuk omentzen dituen, agian hiru emakume omenduko ditu ere urtero, baina ez dakit... baina iruditzen zait jai-batzordean denon artean lantzeko moduko gai bat izan daitekeela, orokorrean esan nahi dut, ez omenduko diren pertsonen harira." (Elkarrizketa 18)

LAN-BANAKETA

Gainontzeko eragileen artean lanak nola banatzen dituzten ez jakin arren, elkarrizketatuak orokorrean nabaritzen dituen aldeak aipatu dizkigu.

"Plazan, sukaldean, txupinazoko sua botatzen, zezen suzkoa... guzti horiek gizonek egiten dituzte, ah! Futbol txapelketa ere gizonek antolatzen dute. Eta emakumeek? Ba, egia esan, haurren danborrada amek antolatzen dute, emakumeen danborradan parte hartzen dute gainera. Uste dut eragile gehienei ez zaiela interesatzen, baina kontzientziario lana egin behar dugula. Ez da landu nahiko genituzkeen balioen inguruko lanketarik sekula egin." (Elkarrizketa 18)

Ildo beretik, berak parte hartzen duen taldean bertan, lanak oso banatuak daudela esan digu. Mutilak kontzertuekin lotutako kudeaketaz, diruaz eta txosna antolatzeaz arduratzen direla gehien bat, neskek ordea, herri-bazkaria, jolasak, komunikazio eta propaganda lanak eta jendaurrean hitz egiteko ardura dute.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Lanak oso banatuak daude gure taldean bertan, kontzertuak lotzeaz eta abar mutil bat arduratzen, eta kontzertuetako diru kontuez ere mutil bat arduratzen da. Txosnen montajea eta pedidoaz ere mutilak ere arduratzen dira. Ehia da taldean 10 mutil inguru eta 5 neska garela. Bertsolariekin denak aritzen gara, modu batera edo bestera. Entretenimenduak, herri-bazkaria, jolasak, komunikazio-lanak eta propaganda neskak izaten gara, eta publikoan hitz egin behar denean ere neskak izaten gara, eta jai-batzordeko bileretara joaten gara bi neska eta mutil bat. Txandetako kontuak eta denak aritzen gara egia esan." (Elkarrizketa 18)

ALDAKETAK

Gauza berriak proposatzea librea den arren, benetako aldaketak txertatzea kosta egiten dela aipatu digu elkarrizketatuak. Bereziki danborradek duten garrantzi berezia deskribatu digu. Bestetik, oro har ohituretan eta tradizioan oinarritzen inertzia batek ezer ez aldatzeko joera bultzatzen duela aipatu digu. Bere taldeak adibidez danborradari beste buelta eman eta batukada antolatzeko proposamena bota zuen, baina jendeak ez zuen horretarako beharrik antzeman, eta beraz ez zen aurrera atera.

"Guri gertatu izan zaigu danborrada bat pasatzen delako beste ekimen baten ordutegia aldatu behar izatea. Hortaz hori da abiapuntua, danborradak dira "sakratuak" adibidez, eta beste dena egokitu behar da. Guk proposamen asko eraman ditugu eta asko kanpoan gelditu dira, ez daude adibidez danborrada baten maila berean, erabakitzerakoan gauza batzuek garrantzi handiagoa hartzen dute." (Elkarrizketa 18)

"Inertzia bat dago, tradizioan eta ohikotasunean oinarrituta, oso zaila egiten duena gauza berriak sartzea." (Elkarrizketa 18)


PROGRAMA





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Trintxerpeko jaietako programetako irudiak (2006-2016)



Azken hamar urtetako lau programetako irudiak aztertu ditugu, irudi horietan emakume eta gizonak betetzen duten paperari arreta jarrita, duela hamar urteko programatik iazkora irudi kopurua dezente igo da, Kopurua handitze horretan, garai batetan betetako proportzionaltasuna txikitu egin da. Iazko programan adibidez, gizonak azaltzen diren irudiak nagusitu ziren, duela hamar urtetakoa parekidea zelan esan genezakeen arren. Urte hauetan emakumeak protagonista nagusi diren irudien kopurua txikitzen joan da, proportzionalki gizonen ikusgarritasuna handituz.

3.4.2.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

Pasaian elkarrizketatu ditugun pertsona guztiek aipatu digute Trintxerpen dagoen danborrada kopurua, eta emakume eta gizonen arteko aldea. Era berean, tradizioari eta herri-izaerari oso lotutako kontua denez, aldaketak planteatzea oso zaila dela komentatu digute.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Trintxerpen adibidez, oso argia da diferentzia. Trintxerpeko jaietan oso berezituta daude danborradak." (Elkarrizketa 19)

"Danborrada asko daude: familiarra dago, emakumezkoen danborrada dago, gizonetzkoen danborrada, haurren danborrada... bastante danborrada eta banatuta daude sektoreka, egia esan gazteok eman dizkiogu buelta batzuk asunto horri, baina oso markatua dago. Tradizioa da, eta ezin da aldatu edo hori esan digute orain arte behintzat." (Elkarrizketa 18)

Elkarrizketatuak ideia horretan sakondu du, esan digunez, dauden danborrada bereiziak onartu egiten dira, esanahia, beharra edo hobetzeko aukerak planteatu gabe, bere ustez jende askok ez du sekula horrelakorik planteatu. Jatorri elizkoia duen Ama Birjinaren danborradarekin ere gauza bera gertatzen iruditzen zaio.

"Danborradak daude oso markatuak, hamalau mila egon arren inork ez du bere danborrada utzi nahi. Inork ez dio bere danborradari uko egiten bere danborradari denak batera ateratzeko. Baina gehiago esango nuke, iruditzen zait ez dela aukera hori planteatu ere egin. Adibidez, ni eta nire lagunak emakumeen danborradan atera izan gara 18 urte bete genituenetik eta sekula ez da lanketa hori planteatu edo ezer ez da kuestionatu ba zenbat danborrada dauden eta zergatik dauden berezita emakumeena eta gizonena adibidez. Ohitura da eta horrela jarraitzen da, ama birjinaren danborradarekin ere gauza bera gertatzen da, ez da kuestionatu ea beharrezkoa den ala ez." (Elkarrizketa 18)

Halere, bere garaian haurren danborrada antolatzeari utzi ziotela esan digu, eta duela bi urte berriz antolatzen hasi zirela, guraso talde batek hartu zuen ardura. Zentsu horretan, behararen inguruan hausnartu eta berreskuratu izana oso positibotzat jotzen du.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Haurren danborrada adibidez, bere garaian antolatzeari utzi zioten, baina duela bi edo hiru urte berriz antolatzen hasi ziren, ba hori adibidez bai kuestionatu da, eta lortu da berriro ateratzea." (Elkarrizketa 18)

3.4.2.4. Indarkeria matxista

Elkarrizketatuak aipatu digunez, jai-batzordean ez da indarkeria matxistaren inguruko aipamenik egin, jaietan erasoak izan diren kasuetan ere ez da aipatu. Jai-batzordea kudeaketa soilera mugatzen dela aipatu digu.

"Parranda-giroan gertatu izan diren arazoak adibidez sekula ez dira jai-batzordera eraman, gaia ez da aipatu ere egiten. Jaien balorazio-bilerarik ere ez da egiten. Guk egiten dugu, baina gure talde-mailakoa." (Elkarrizketa 18)

Udaletik indarkeriaren gaia lantzeko lidergorik adierazi ez duten heinean, elkarrizketatuak bere esperientzia kontatu digu eta berak parte hartzen duen taldean protokolo bat landu dutela esan digu, azken batetan tresnak ezinbestekoak dira indarkeria kasuetan erantzun ahal izateko. Jai-batzordeak ez du zentsu honetan Oarsoalde mailako kanpainaren zein protokoloaren berririk jaso.

"Guk elkarte modura, beharra ikusi dugu tresnak lantzeko, eta beraz aurreko protokolo bat landu dugu. Egia esan, iaz indarkeria kasuak izan ziren txosnan eta protokolorik ez genuenez, ba nola jokatu ere ez genuen jakin eta ez zen ezer egin. Orain ze erantzun emango dugun adostu dugu talde mailan. Halere, iruditzen zait, hori Udalak ere sustatu beharko lukeela eta jai-batzordean lantzeko moduko kontua dela." (Elkarrizketa 18)

3.4.2.5. Ondorio nagusiak

- Jai-batzordea arduratzen da Trintxerpeko Karmengo jaiak antolatzeaz.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Emakume eta gizon kopuruaren arteko oreka dago jai-batzordean, adinez heldua den jendea nagusitzen da eta gazteek botere-maila txikiagoa dutela igartzen dute.
- Erabakiak bileretan bozkatze bidez hartu arren, azken hitza alkateordeak du.
- Ez da berariazko berdintasunaren inguruko lanketarik egin jai-batzordean.
- Programak ez du genero-ikuspegia kontutan hartzen, ekintza bakoitzaren antolaketaz arduratzen den elkartearen sentsibilizazio-mailaren arabera, gehiago ala gutxiago lantzen den kontua da.
- Emakumeek eta gizonen lan mota ezberdinen ardura izaten dute jaietan: orokorrean emakumeei egokitzen zaizkie zaintzarekin eta haurrentzako ekintzak prestatzarekin lotutako gaiak.
- Danborradek garrantzi handia dute Karmengo jaietan, bereizketa handia egiten da emakumezkoen danborrada bat dago, soilik gizonzkoena den beste bat; baina herritarrek ez dute horren inguruko hausnarketarik egin, onartu egiten da eta ofizialki ez omen da sekula zalantzatan jarri.
- Jai-batzordeak ez du indarkeria matxistaren inguruko inongo lanketarik egin.

3.4.3. San Pedro

3.4.3.1. Sarrera

San Pedron jatorri erlijiosoa duten San Pedro patroiairen jaiak ospatzen dira ekainean, eta duela 10 urte inguru irailean San Pedro txikiak ospatzen hasi ziren. Jai biak elkar osagarriak direla komentatu digute elkarrizketatuek eta oro har herritarrek herritarrentzako antolatzen dituzten jai herrikoiak dira.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"San Pedroak ditugu ekainean eta programa izaten dute, eta San Pedro txikiak iraileko azken astean, hauek ere programarekin. San Pedroek eta San Pedro txikiak, elkar osatu egiten dute, bien programa osagarri izaten da, askotan malgutasunez jokutzen da eta batean sartu ez dena bestean jartzen da." (Elkarrizketa 22)

"Herritarrek herriarentzako antolatzen dituzten jaiak dira. Larunbatean kanpotik jendea etorrita ere, kontzertuetara edo dena delakora datoz normalean, eta gero badoaz." (Elkarrizketa 22)

"San Pedro herriko patroia den heinean, pentsatzen dut betidanik ospatuko zirela. San Pedro txikiak ordea, duela 10 edo 12 urte hasi ziren ospatzen." (Elkarrizketa 22)

3.4.3.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Jai-batzordea arduratzen da San Pedroko jaien antolaketaz. Jai-batzordean herriko eragileek zein herritar soilek parte hartzen dute elkarrizketatuek esan digutenez eta aurten gizonezko gehiago hurbildu arren, emakumeek herriko elkartegintzan duten papera eta inplikazio-maila goraipatu dute elkarrizketa gehienetan.

"Jaiak antolatzeko prestaketek 2 hilabeteko iraupena izaten dute, eta hilabete horietan zehar astero batzen gara. Parte hartzen duten eragileak ideia bat egiteko: jubilatuek, Proisa, Gazteen Askalitz elkarteak, herriko gurasoak, udal-ordezkariek, tabernari bat ere etortzen da, arrantza elkarteak, elkarte gastronomikoak eta herritarrek, solte datozenak ere badaude." (Elkarrizketa 22)

"Nik uste jai-batzordean parte hartu dezakeela edozein herritarrek. Nik uste gehiago elkartzen garela, ba badaude elkarte batzuk ordezkatuak daudenak, baina gainontzekoak herritar modura goaz jai-batzordera." (Elkarrizketa 25)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Aurten egia esan nahiko parekatua dago emakume eta gizonen kopurua jai-batzordean. Baina gu duela hiru edo lau urte hasi ginen, eta orduan ia denak neskak ginen." (Elkarrizketa 26)

"Herriko elkarteetan emakumeen presentzia handia da, emakume asko daude, eta oso aktiboak dira, eta horrek jai-batzordean ere badu bere isla. Atzo adibidez, jai-batzordeko lehenengo bilera egin genuen, 8 pertsona batu ginen, 3 gizon baino ez zeuden." (Elkarrizketa 22)

Urteko programa aurreko urteko ereduari oinarritzen duten arren, gauzak aldatzen doazela aipatu digute elkarrizketatuek. Badirela, garrantzi berezia duten zenbait ekimen, baina gainontzeko gauzak urtetik urtera moldatzen dituztela. Erabakiak jai-batzordean bertan eztabaidatu, bozkatu eta erabakitzen dituzte, aipatu digutenez guztien artean, eta ez dute uste batzuek besteek baino erabakitzeko ahalmen handiagorik daukatenik.

"Iazko programan oinarrituta lanketa egiten dugu, lehenengo galdera izaten da zer mantendu eta zer kendu.. Kontzertuak adibidez, urtero aldatzen dira. Badira halere urtero errepikatzen ditugun gauza asko." (Elkarrizketa 22)

"Nik uste norbera bere ideia eramaten duen arren, gero erabakiak denon artean hartzen ditugula. Batzordean parte hartzen dugun guztien artean erabakitzen dugu. Dena bozkutzen da." (Elkarrizketa 25)

"Badaude gauza batzuk, ezin direnak mugitu: danborrada, iñude eta aratzaiak eta txupina, eta gainontzekoa ba saiatzen gara denon artean moldatzen eta gauza berriak





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

baldin badaude, sartu egiten dira ere bai.. adibidez aurten, lehengo urtean egin zen koadrilen eguna eta aurten buelta bat eman zaio eta egin nahi da egun osoko festa auzoen festa, parte-hartzaileagoa izatea da helburua, koadrilen orde zuzenak eta denok parte hartzea, hau da haurrak, gazteak, helduak adinekoak... egun osoan zehar, jokoak, bazkaria, uste dut denetik egongo dela." (Elkarrizketa 26)

Aipatu digutenez, aurten auzokideen arteko harremanak eta herri-bizitza indartu nahi duen bazkaria antolatu dute, halere ez zaie iruditzen jai-batzordeak jaien bidez sustatu nahi dituen balioen inguruko berariazko lanketarik egiten duenik, horretarako beharrik ere ez dute ikusten. Herritarren arteko afinitate handia dutela aipatu digute.

"Nik uste baloreen inguruko lanketarik bere horretan egin ez arren, herri honetan denok nahiko bat etortzen garela, eta denok daukagula edozertan parte hartzeko aukera. Azken batean oso herri txikia da, denok ezagutzen gara..." (Elkarrizketa 26)

LAN-BANAKETA

Berdintasuna berariaz lantzeko saiakerarik ez dute sekula egin jai-batzordean, eta elkarrizketatu batzuek lanen banaketan emakume eta gizonen arteko alderik ikusten ez duten arren, bi elkarrizketatuk tendentzia batzuk badaudela azpimarratu dute. Emakumeek kudeaketari lotutako eta ikusgarritasun txikiagoko ardurak hartzeko joera izaten dutela aipatu digute.

"Antolaketa-lanen banaketan ez dago inongo alderik" (Elkarrizketa 22)

"Lana, gauzak muntatzea edo indarra behar den gauzak, mutilek egiten dituzte egia esan, eta iruditzen zait lan horiek direla bisibileagoak bezala gero neskok egiten ditugun lanak beti igual dira, deiak edo kudeaketari lotutakoak, beharrezkoak dira, baina jendeak ez ditu hainbeste ikusten." (Elkarrizketa 26)






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

PROGRAMA

San Pedroko jaietako programetako irudiak (2006-2016)



Azken hamar urtetako lau programetako irudiak aztertu ditugu, irudi horietan emakume eta gizonak betetzen duten paperari arreta jarrita, duela hamar urteko programan argazkien %50ean baino gehiagotan gizonezkoak nagusitzen ziren, kopuru hori jaitsi arren, oraindik ere egiteko lan handia dago. 2016ko programan argazkien %40ean emakume eta gizonak azaltzen ziren gainontzeko %60a ordea ez zen era parekidean orekatua, gizonak bakarrik azaltzen ziren argazkien kopuru berean (%40) eta emakumeak protagonista ziren argazkien %20 inguruan bakarrik. Zentsu honetan lan egin beharra antzematen da.

3.4.3.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

Emakumeen partaidetzaz galdetuta, elkarrizketatuek aipatu dute jaien izaera herrikoia, eta oro har herritar guztiek (adin zein sexu ezberdinetakoek) parte hartzen dutela ekimenetan. Halere, elkarrizketatuetako batek aipamena egin dio ohituren errotze mailari eta zenbait gauza aldatzea planteatze hutsak eragin litzakeen balizko erresistentziei.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Oro har parte hartzea nahiko paretsua dela esango nuke eta jaiak oso herrikoiak direla. Adibide bezala, txosnako txandak ez dira luzeegiak, bi ordutakoak izaten dira herriko gazte guztien artean banatzeko." (Elkarrizketa 22)

"Nik uste orokorrean ekimenetan emakumeek eta gizonak parte hartu arren, herri honetan badagoela jende asko ohiturak sakratutzat dituena, oso errotuak daude gauza asko, eta horri oraindik buelta eman behar zaiola." (Elkarrizketa 26)

Tartean hainbat ekimenetan gertatzen dena deskribatu digute elkarrizketatuek. Bada San Pedron aspalditik duela, 50 urte inguru, jolasten den futbol partidu bat, eskamak eta buztinak deitzen da, eta herria elizaren alde batera eta bestera bizi zirenen arteko lehia izaten zen. Adierazi digutenez, haurren artean oso nabarmena da adinez txikienen artean nesken eta mutilen arteko alderik egon ez arren, nagusitzen diren heinean genero-erolek hartzen duten indarra, mutilen arteko lehiakortasuna handitzen da eta nesken artean gutxiagok jolasten dute.

"San Pedron betidanik izan dugu futbol partidu bat deitzen dena eskamak eta buztinak, elizatik mendialdera eta itsasora bizi diren haurren artekoa.(...)Aurrekoan aipatu zuten partidu horretan lehen ez zutena neskek parte hartzen eta lehenengo emakumea izan zen, gaur egun 32 urte dituen emakume bat. Gaur egun ere ez dira horrenbeste neska egoten egia esan, baina konparatuta orekatuagoa dago." (Elkarrizketa 26)

"Bi partidu izaten dira txiki txikietan denetik egoten da, urte horietako ume guztiek parte hartzen dute; baina gero 8-13 urtekoetan gauza asko aldatzen da, pikea egoten da jadanik eta neskek ere egon arren, mutilak gailentzen dira jokoan." (Elkarrizketa 25)

Danborradan ere, emakume eta gizonak parte hartzen dutela aipatu digute, denak joaten dira arrantzalez jantzita. Jantzkeran emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna nabarmena da, tradizioan oinarritutako jantziak izanik, emakumeek





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

gona daramate eta gizonek galtzak, eta hori bete ezean sozialki onarpen eza jasango litzatekeela.

"Danborrada mistoa da duela 40 urtetik hona" (Elkarrizketa 22)

"Danborradan denok antzeko parte hartzen dugu, eta denak joaten gara arrantzalez jantzita. Duela bi urte adibidez nire koadrilako neska batek galtzak jantzi zituen, eta entzun behar izan zituen batek baino gehiagok, zertan jantzi dituzu zuk galtzak? Arrantzalez goaz eta neutroa dela iruditzen zaigu, baina kasu horretan nire laguna kuestionatua izan zela iruditzen zait. Neskak era batera janztea espero da eta mutilak beste batera." (Elkarrizketa 25)

Baina bada genero-erolek danborradan baino garrantzi handiagoa duten beste ekimen bat: iñude eta artzaiek indar handia dute San Pedron, eta errepresentazio bat diren heinean genero-rolen erreproduzio argia dira. Elkarrizketatuek aipatu dutenez, inude eta artzainetan aldaketak planteatzea oso zaila litzateke.

Iñude eta artzaietan oso zaila litzateke aldaketak planteatzea. Gainera dantzatzeko aukera edozeinek dauka, baina gero pertsonaiak dira herriko jendea, 50 urte betetzen duen jendea izaten da; eta adibidez umeetan egia da neskak atera izan direla mutilek, eta pentsatzen dut, ez dut inoiz ikusi, mutilak ere neska rolean atera ahalko liratekeela, baina helduetan ez, mutila da mutila eta neska da neska. Eta hori aldatzea oso zaila izango litzatekeela iruditzen zait. (Elkarrizketa 25)

Badaude mutilek antolatzen dituzte hainbat ekimen, zeinetan emakumeek ez duten parte hartzen. Elkarrizketatuek adierazi dutenez, berez ez diete parte hartu ezin dezaketenik esan, baina ez dira emakumeen partaidetza bermatzeko baldintzak landu.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Futbola adibidez, mutilek antolatzen dute eta beraiek parte hartzen dute. Egia da, inoiz ez digutela esan, zuok ezin duzue parte hartu, baina ez da sustapen lanik egin. Pilota ere mutilek antolatu eta parte hartzen dute. Egia da iaz, nesken pilota txapelketa antolatu genuela San Pedro txikitan..." (Elkarrizketa 26)

Frontenis txapelketan ordea, garai batean nesken txapelketa zen eta misto bihurtu zuten. Iruditzen zaie eredu ona dela, eta hor bai, arauak jartzen berdinzaleagoa izateko baldintzak ezartzen saiatu zirela antolatzaileak. mistoa egiten dute. 21 bikotek parte hartzen dute. Indarra galduz doa.

"Lehen egiten genuen frontenis txapelketa, neskena; eta iaz hasi ginen mistoa egiten, bikoteek mistoak izan behar dute orain, eta neskena ez dugu baztertu, orain pasa dugu San Pedro txikietara. Egia esan, nesken txapelketak azken urteetan indarra galdu zuen, momentu bat iritsi zen zeinetan bi koadrilak baino ez genuen parte hartzen. Mistoarekin adibidez, jende asko animatu da, aurten 21 bikote daude izen emanda. (Elkarrizketa 25)

"Nik uste helburua ez dela hori, baina beti daukazu buruan ez egotea bazterketa bat. Adibidez mistoa, egiten hasi ginenean, nire buruan barne-egtabaida bat piztu zen, zergatik ezin dugu guk bakarrik aurrera eraman txapelketa? Zergatik behar ditugu mutilak, berez gurea zen espazio batean? Baina bueno, gero egia da emakumezkoena bakarrik zen txapelketak indarrik ez zuela, eta arauak jarri ditugu berdintasun hori bermatzeko: adibidez, partidu osoan zehar pasa da 7, ba azken batean orokorrean mutilek indar handiagoa dute eta hori orekatzeko edo, denek jokoan parte hartu ahal izateko." (Elkarrizketa 26)

Zaintza lanen inguruan ez dizkigute gauza asko esan. Komentatu dutenez guraso gazteek gauetan txandakatzeko ohitura du eta egunean zehar ez omen dute zaintza-lanetan alderik nabaritzen emakumeen eta gizonen artean.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

“Zaintza lanei lotuta iruditzen zait egunean zehar nahiko orekatua egoten dela, gauetan bai konturatu naiz askok txandaka funtzionatzen dutela, egun batean ikusten duzu mutila eta hurrengo gauean neska dago koadrilekin. Baina haurren jokoetan, inude eta artzainetan eta egunean zeharreko ekitaldietan aitak eta amak egoten dira.” (Elkarrizketa 26)

3.4.3.4. Indarkeria matxista

Esan digutenez, infarkeriaren gaia ez da berariaz landu jai-batzordean eta Udaleko berdintausn sailak martxan dituen politika eta tresnen berri ez da eman. Halere herritarren pertzepzioa da, herriko jendea nahiko kontzientziazatuta dagoela, eta oro har seguru sentitzen direla diote.

“Ni oso segura sentitzen naiz San Pedron, jdenek elkar ezagutzen dugu.” (Elkarrizketa 26)

“Protokoloa zegoenik egia esan ez nekien. Baina orain badakigula oso interesgarria izan daiteke.” (Elkarrizketa 26)

3.4.3.5. Ondorio nagusiak

- Jaien antolaketaz jai-batzordea arduratzen da.
- Jai-batzordean emakume eta gizonek parte hartu arren, emakumeen partaidetza aktiboagoa da.
- Erabakiak guztien artean hartzen dituzte, bozkatze bidez.
- Emakume eta gizonek lan ezberdinak egiten dituzte antolaketan, gizonek eginikoez ikusgarritasun handiagoa dute.
- Festa herrikoiak dira eta orokorrean emakume eta gizonek parte hartzen dute ekimenetan, halere badira gizonak nagusitzen diren hainbat ekimen.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

- Ez da indarkeriaren inguruko berriazko lanketarik egin, eta ez dira existitzen diren tresnak ezagutzen.

3.4.4. Donibane

3.4.4.1. Sarrera

Donibaneko patroia San Suan den arren herriko ospakizun nagusiak San Inaziotan izaten dira.

San Juanek, gero eta garrantzi txikiagoa dutela aipatu digute, herriko jendea batzen dela, baina jairik garrantzitsuenak Santiagoko jaiak direla. Elkarrizketatuetako batek, arrantzale eguna uztailaren 27a, garai batean egunik inportanteena zela esan digu, baina gaur egun, gauza asko eta oso desberdinak daudela eta bakoitzak berea hautatuko lukeela garrantzitsuen.

"Beno 26a garrantzitsuena da, baina segun nori galdetzen diozu noski. 25ean egiten dira, euskal jai atzekoak, dantza suelto txapelketa eta herri kirolak, 26a aiton-amonen eguna izaten da, Santa Ana eguna, egiten da meza goian eta gero gauean Habanerek egoten dira. Gero haurren eguna ere badago, depende zeinentzako gauza diferenteak ditugu." (Elkarrizketa 21)

3.4.4.2. Berdintasuna jaien antolaketan

Pasaiako barruti guztietan ikusi dugunez, egitura berdina errepikatzen da. **Jaiak antolatzekeo jai-batzordea eratzen da** Donibanen ere, eta **alkateordea da batzorde horren lehendakaria**.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

"Alkateordearen rola, antolaketa eta kudeaketaz antolatzea da, jai-batzordearen lehendakaria izan arren; baina, erabakiak elkarteek hartzen dituzte, beraiena izaten da hitza." (Elkarrizketa 21)

Bileren edukiei dagokienez, elkarrizketatuetako batek aipatu du ez dela berariazko lanketarik egiten, orokorrean kudeaketa eta antolaketa lanetaz arduratzen den batzordea dela. Genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginik ere ez da egin, ez baita horretarako beharra denik identifikatu.

"Jai-batzordearen izaera kudeaketa eta lanen antolaketa izaten dira bileren edukiak, baina ez dira balore konkretu batzuk lantzen." (Elkarrizketa 21)

"Niri iruditzen zait, Donibanen ez dela lanketarik egiten inondik inora, ez da gaia aipatu ere egiten. Ez dago oinarririk horren gainean eraikitzeko, eta beharbada gaia planteatu beharra dago, orain arte ez da beharrik antzeman." (Elkarrizketa 20)

Parte hartzen dutenen perfilari dagokionez, **herriko elkarte oso ezberdinek parte hartzen dutela** esan digu elkarrizketatuetako batek, **adin aldetik nahiko helduak** direla esan digu beste batek. Jai-batzordean parte hartzen duenak, festetako ekitaldiren baten ardura hartzen du normalean. **Emakume eta gizonen kopuruari dagokionez, elkarrizketatuetako batek aipatzen digu, nahiko orekatuta** dagoen arren balitekeela emakume gehiago egotea.

"Jai-batzordean parte hartzen dutenen perfila orokorrean adin aldetik nahiko heldua da, eta emakume eta gizonen paretsu, baliteke emakume gehiago egotea." (Elkarrizketa 20)

"Teorikoki herriko elkarte denek parte hartzen dute, batzuek besteek baino aktiboagoak besteak baino. Badaude batzuk duela urte asko ekitaldi baten ardura duten heinean, ez dutenak beharrik ikusten jai-batzordeko partaide izateko edo bileretara etortzeko. Eta gero, gutxienak diren arren, badaude bere kasa datozen





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

herritar soilak. Eta gero udaletxearen ordezkari gisa, ni neu, alkateordea. Ah eta elkarteen artean badaude kutsu politikoa dutenak, hori ere bai, Ernai-k adibidez parte hartzen du... " (Elkarrizketa 21)

"Esango nuke orokorrean emakumeak nagusitzen direla bileretan, eta gero gazteak, unibertsitatean daude eta bileretara presenteki etortzeko arazoak dituzte. Eta datozenean neska bat eta mutil bat etortzen dira." (Elkarrizketa 21)

Gazteek presente egoteko arazoak dituztela aipatzen digu elkarrizketatuak, eta oro har herriko bizitza ere ez dela duela 20 urtetakoa. Erritmoak eta boluntario aritzeko nahia eta aukera asko aldatu direla esan digu, parte hartu nahi duen jendea topatzea ez omen da erreza.

"Gero orokorrean herriko bizitza. bizitzaren erritmoak aldatu dira, lehen jende gehienak lan, bizi eta askotan ikasi herrian bertan edo gertu egiten zuen, eta gaur egun ez da horrela, gehiago mugitzen gara, eta esango nuke, boluntario izateko, ardurak hartzeko ez dagoela prestutasun gehiegirik, edo lehentasunak, eta denbora ere, erritmoak markatzen digula. Adibidez herrian oso aktibo izandako hainbat gazte, guraso izan dira duela gutxi, eta hor euren denbora zertan inbertitu, ba lehentasunak aldatu zaizkie, eta seguruenik normala da, ez dira denera iristen eta normala da, jai-batzordeko ordutegiak ere direnak dira, hamarretan bukatzen dugu askotan..." (Elkarrizketa 21)

Bilerekin hasten direnean ez dute deialdi publikorik egiten, halere, jendeak ahoz ahokoaren bidez deialdiaren berri izaten duela esan digute. Parte hartuko duen jendea bilatzeko dituzten arazoak aipatu digu batzordeko kide batek, beste herritar batek ordea, batzordean parte hartu nahirik deialdirik sekula ikusi ez izana eta erabakiak gutxi batzuen artean hartzen direnaren sentsazioa konpartitu du gurekin. Jai-batzordean parte hartzen duen pertsonak aipatu du gauza berriak sartzea kostatu egiten dela, eta seguruenik gai batzuen inguruko sentsibilizazio eta kontzientziazio





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

lana egitea beharrezkoa litzatekeela, iaz animalisten talde berri batekin izandako esperientzia deskribatu digu.

"Egia esan ez da deialdirik egiten, eta agian egin beharko genuke; halere jendeak bilera dagoela jakiten du edo bestela, nori galdetu badakite. Baina bai egia dena da, orokorrean jendeak konpromisoa hartzeko gogo gutxi izaten duela. Elkarrekin ere beti jende berdina etortzen dira, Egia esan iaz etorri ziren animalisten talde batetatik, bi helburu nagusiekin zetozen, paella veganoa izatea herri-bazkarian eta zezenak kentzea, Paella proposamenak ez zuen batere arrakastarik izan eta zezenena, bere garaian kendu ziren, baina iruditzen jai-batzordean inork ez duela erabaki hori hartu nahi, eta planteatzen dena da, ba partaidetza prozesu bat egin beharko dela, eta herritar guztiek parte hartzeko aukera izan beharko dutela, hortaz animalistak bilera batetara etorri ziren, baina ez dira berriz etorri. Guk komentatu genien, ba gauza pila daudela egiteko jaietan, eta seguruenik poliki-poliki egin beharreko lana dela, ez dela egun batetan bilerara etorri eta eskatu, sentsibilizazio lan bat egin beharra dagoela." (Elkarrizketa 21)

Honi lotuta gauza berriak edo aldaketak planteatzen direnean, edo planteatu ahal izateko arazo nagusiak izaten dira denbora eta baliabide ekonomikoak. Dena oso lotuta dagoela esan digu elkarrizketatuetako batek, eta beraz beste zerbait egin ahal izateko beste norbaitek zerbait utzi beharko luke.


"Gero gauza berriak edo zerbait aldatzea proposatzen denean, bi arazo izaten ditugu, noiz egin eta nola ordaindu. Zerbait berria egiteko, norbaitek utzi beharko lioke antolatzen duen ekimena antolatzeari, eta noski, horrenbeste urtez egin edo antolatu dutenez, ba inork ez du utzi nahi izaten. Eta orduan zer pasatzen da, ba jaiak direla praktikoki berdinak urtero, zuk aztertuz gero duela 20 urtetako programa eta gaur egungoa, oso gauza gutxi aldatu dira seguruenik. Badaude gauza batzuk, udalak umeen eguna txertatu duelako, eta beste gauzatxo batzuk, baina oro har, errepikatu egiten dira, eta jendeak gainera ez du aldaketarako beharrik ikusten." (Elkarrizketa 21)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Donibaneko jaietako programetako irudiak (2006-2016)



3.4.4.3. Emakumeen partaidetza jaien garapenean

EMAKUMEEN PARTAIDETZA EKIMENETAN

San Inazioetan *arrantzaleen danborrada* egiten da Donibanen, erreferentzia arrantzaleak dira eta danborradako kide guztiak gizonak izaten dira, gaur egun arrantzalerik egon ez arren, beraien papera antzeztu egiten dute neurri batean. Honen inguruko bi iritzi mota jaso ditugu, batetik emakumeek ere arrantzaleen omenezko danborradan parte hartzeko eskubidearen aldekoak daude, eta bestetik arrantzaleak gizonak ziren heinean errepresentazioan denak gizonezkoak izatea babesten dutenak, jarraian bi ikuspegiak jaso ditugu:

"San Inazioetan, 27an arrantzaleen danborrada egiten da, eta garai batean ateratzen ziren arrantzaleak, eta gehienak, beno, denak ziren gizonezkoak. Orduan, bakoitzak bere danborra zuen eta hiltzen joan diren heinean bakoitzak bere semeari edo ilbari





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

pasatu dio danborra. Hortaz ateratzen ziren guztiak arrantzale izan ez arren, denek zuten lotura bat, edo arrantzaleak ziren edo arrantzaleen semeak edo ilobak, baina ez alabak, alabek ez zuten aitaren edo aitonaren danborrik jasotzen. Baina gaur egun jadanik ez da lotura hori mantentzen, nahi duzunari eman ahal diozu zure danborra, eta irteten diren guztiak ez dira arrantzaleen familietakoak, baina denak dira gizonezkoak." (Elkarrizketa 20)

"Arrantzaleen danborradan gizonek baino ez dute parte hartzen, baina normala da. Ez dut uste gainera sekula emakumeek parte hartu nahia adierazi dutenik, nik ez dut egia esan emakume arrantzalerik ezagutu; eta batelerak ordea, gehienak dira emakumeak, arrazoi beragatik, denak emakumeak zirelako patroï postuan ere gizonen bat egoten da." (Elkarrizketa 21)

Elkarrizketatuek aipatu bezala, 31n bateleren estropada herrikoiak egiten dira. Patroïak normalean gizonak izaten direla aipatu digute eta 16 batel ateratzen direla denak emakumezkoak.

"Donibanen 31ean egoten da Bateleren estropada herrikoi bat. Batelerak ziren lehen pasatzen zutenak jendea Donibanetik San Pedrora eta handik Donibanera, orain motora dagoen bezala, lehen emakumezkoek egiten zuten lanbide bat zen. eta haien omenez edo, hasi ziren estropadak egiten, eta orain azken egunean egiten da estropada herrikoiia. Lehenago izen-eman beharra dago, lauko taldeetan eta denak dira herriko emakumeak. Patroïa izan daiteke, eta normalean izaten dira, gizonezkoak, baina bestela emakumeen estropada da. eta ateratzen dira 16bat batel. jende asko biltzen da." (Elkarrizketa 20)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



Oro har jaietan gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa dela uste du elkarrizketatuetako batek, kasu gutxi batzuetan, desafioa adibidez, aldaketak txertatu direla, baina inertziaz maskulinoatearekin eta gizontasunarekin lotuta egon diren ekintzak nagusitzen direla: sokamuturra, toka txapelketa, pilota, tiro al plato eta arrantza aipatu dizkigu.

"Sokamuturrean denak mutilak izaten dira. Toka txapelketan denak gizonak. Pilota partiduetan gizonak. Tiro al plato gizonak ere,. gero egoten da arrantza-txapelketa, eta hor parte hartzen dute haurrek, haurrak: neska eta mutilak izaten dira, baina aitekin joaten dira normalean, eta gero 30ean egoten da desafioa eta urtero jende ezberdina, eta egia da orain bilatzen dela edo baldintzetako bat dela gizonak eta emakumeek parte hartzea, baina orain arte ziren denak gizonak, hor aldaketa egon da adibidez."
(Elkarrizketa 20)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

Aldaketa gutxi antzeman arren, estropadetan adibidez, emakumeek presentzia eta garrantzi handia hartu dutela aipatu digute elkarrizketatuek, garai batean ez zeudela gizonen maila berean eta gaur egun pixkanaka aldatzen doala.

"Donibanen, estropadak egiten dira eta egia esan azken urteetan emakumeek ere parte hartu dute. Gainera, kasu honetan ondo doazenez, ba herritarren artean ere, indar handiagoa hartu dute, igo izan dira udaletxera txupinazo egunean, eta lehen mutiak baino ez ziren igotzen. Ikusten da pixkanaka aldatzen doala." (Elkarrizketa 20)

Zaintza-lanekin lotuta, emakumeek etxean zuten zaintzaile rol hori aldatzen ari den arren, oraindik ere famili-bazkarien ardura adibidez emakumeen lana izaten jarraitzen duela aipatu digu elkarrizketatuak.

"Badira jaietan familia-batzen den egunak ere, ba bazkaria egiten dena etab. Nik egia esan ez ditut jadanik adinekoak familian, garai batean egia da, ordu luzeetan sukaldean igarotzen zutela emakumeek horrelako egunetan, orain iruditzen zait egokitzen eta sinplifikatzen goazela, eta nik adibidez nire koinata izaten da horren arduraduna baina gauza errezetara jotzen dugu, garrantzitsua batzea da, ez otordua bera." (Elkarrizketa 21)

Plazan San Inazio egunez egindako bazkaria behatzeko aukera izan genuen, eta hor gizonak nagusitzen ziren. Kasu honetan genero-estereotipo tradizionalen erreproduktzio nabarmena ageri da beraz, kalean zein elkarteetan ikusgarritasunarekin janaria prestatzeaz dutenak gizonak dira eta etxean familiarekin egiten direnetan, horren sozialak ez direnetan, emakumeak izaten dira sukaldean arduradun.





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa



3.4.4.4. Indarkeria matxista

Donibane orokorrean gunetiluna dela aipatu digute elkarrizketatu guztiek, eta berariazko lanketarik ez dela egin jai-batzordeko kideekin. Elkarrizketatuetako batek aipatu duenez, batik bat gauetan txosnetan egoten direnek tresnak behar dituzte, horrelako egoera baten aurrean erasotua nola babestu eta erasotzailearekin nola jokatu jakiteko.

"Egia da Donibanen puntu beltz asko daudela, eta txosnetakoekin hitz egin izan dut, baina tresnak behar dituzte, badakite babestu egin behar dela jazarria den pertsona, argi dagoela iruditzen zait, baina seguruenik lanketa egitea beti da positiboa, Jai-batzordean ere ez dugu berariaz landu, komentatu izan dugu txosnan egoten diren gazteekin, baina lanketa bereizik egin gabe." (Elkarrizketa 21)





3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.4.4.5. Ondorio nagusiak

- Jaien antolaketaz eta lotutako kudeaketa lanez arduratzen da Donibaneko jai-batzordea.
- Herriko elkarte oso ezberdin eta anitzek parte hartzen dute.
- Berrikuntzak txertatzeko zailtasunak dituzte, izan ere baliabide oso mugatuak dituzte eta gauza berri bat sartzeak, beste bat programatik ateratzea esan nahiko luke.
- Jai-batzordea osatzen duten emakume eta gizonen kopurua nahiko orekatuta dago.
- Donibanen egiten den arrantzaleen danborradan gizonen baino ezin dute parte hartu.
- Oro har jaietan gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa da, inertziaz maskulinitasunari lotuta egon izan diren ekintzak nagusitzen dira, zenbait aldaketa gertatu diren arren. Adibidez, desafioko taldeak mistoak izatea baldintza bihurtu da, etab.
- Donibane gune-ilunez betetako tokia da, baina ez da indarkeria matxistaren inguruko berariazko lanketarik egin jai-batzordeko kide guztiekin. Kideak sentsibilizatze aldera, egitea komeniko litzateke.






3. Oarsoaldeko jaien inguruko diagnostikoa

3.5. Ondorio orokorrak

- Jaien antolaketari lotutako **lanen-banaketari dagokionez**, oro har, lanak denen artean banatzeko saiakera egiten den arren, genero-rolek eragina dute eta zeregin batzuk emakumeek egiteko joera egoten da eta beste batzuk gizonek.
- **Kasu gehienetan genero-ikuspegia ez da berariaz kontutan hartzen jaien antolaketan**. Halere badira, genero-ikuspegiz landutako hainbat ekimen kasu gehienetan antolatzen duen elkarte edo kolektiboaren ekimenez, eta ez era sistematizatuan. Honen, salbuespena dira Errenteriko Madalenak, zeinetan udalaren ekimenez, plangintza eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzen den.
- Orokorrean, **herri-kirol eta baserritar-giroko ekintzetan gizonen parte-hartzea emakumeena baino handiagoa** da.
- **Zaintza-lanei dagokienez, nahiko orokorra da haurrei zuzendutako ekimenen antolaketan amak nagusitzea**. Salbuespena Lezon topatu dugu, non aitek duten haurrentzako ekimen eta jardueren antolaketaren ardura nagusia.
- **Indarkeria matxistaren prebentzioari lotutako sentsibilizazio-kanpainak eskualde-mailan** landu eta ezagutzera eman diren arren, udalerrri bakoitzean lanketa-maila ezberdina da eta jai-batzordeek sentsibilizazio-maila ezberdina dute.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

4.1. Planaren ardatzak, helburuak eta atalak

Oarsoaldeko jaiak parekideagoak eta barneratzaileagoak izateko diseinatutako esku-hartzeko plangintza **3 ardatz edo lan-ildotan egituratzen** da, diagnostikoaren egiturari jarraiki. Ardatz bakoitzak **hainbat atal** jasotzen ditu bere baitan, eta horietako bakoitzean datozen urteetan **martxan jarri beharreko ekimenak** zehazten dira.

Plana **datozen urteetan garatuko da** eskualdeko lau udalerrietan, baina ez dugu indarraldi zehatz bat finkatu eta ekimenak ez ditugu urte konkretuetan kokatu; nahiz eta exceleko tresnan ekimen bakoitza zein urtetan egitea aurreikusten duten jartzeko aukera egongo den. Horrela, ekimenei lehentasun-maila bat eman diegu (altua, ertaina eta baxua), eta udal-teknikariek egin beharreko ariketa izango da, beraz, ekimen horiek kronograma errealista batera ekartzea.

Diseinatutako plangintzan bi jarduera-eremu jaso ditugu: batetik, Oarsoaldea mailan garatu beharreko ekimenak identifikatu ditugu, eta, bestetik, udalerrri bakoitzean garatu beharreko neurriak zehaztu ditugu. Modu horretara, herrian nahiz eskualdean jai parekide eta barneratzaileen alde egiten **diren ekimen desberdinei ikusgarritasuna** eman nahi zaie, eta Plana udalerrrietako nahiz eskualdeko jai berdinzaileen aldeko politiken koordinaziorako gunea bilakatu dadin nahi da.

Planean ardatzak, atalak, ekimenak, horiek gauzatzeko behar den aurrekontua, arduradunak, ekimenen lehentasun-mailak eta **jarraipen eta ebaluaziorako adierazleak** jasotzen dira.

Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana jarraian zehazten diren balioetan oinarrituko da:

→ **Malgutasuna:** momentuko egoerei erantzunez, aldaerak onartzen dituen Plana. Horretarako, urtez urtekako udalerrrietako planetan ekintzak zehazteko aukera egongo da.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

173

⇒ **Dinamismoa:** etengabe berrikusten, ebaluatzen eta berritzen eta moldatzen joango den Plana.

⇒ **Parte-hartzea:** udalerrietako nahiz eskualdeko eragile desberdin artean, elkarlanean eraikitzen diren egitasmoak.

⇒ **Komunikazioa:** eragileen arteko norabide anitzeko informazio-fluxuak sortuko dituen.

⇒ **Koordinazioa:** elkar zapaltzen ez diren ekintzak antolatuz, eta are gehiago, indarrak batu eta sinergiak aprobetxatuz gauzatuko dena.

⇒ **Adostasuna:** hausnarketan oinarrituz, eta alde guztien artean bilatutako irtenbideak aplikatuz egingo dena.






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

Hona hemen, Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Planaren ardatzak, helburuak eta atalak modu laburrean azalduta:

ARDATZAK	HELBURUAK	ATALAK
1. JAIEN ANTOLAKETA	1. Jaiekin lotutako udal-jardueran genero-ikuspegia txertatzea.	A1. Udalaren jarduera
	2. Jaien antolaketa berdinzalea sustatzea, jai parekide eta barneratzaileak lortzeko.	A2. Jaien antolaketa eta programazioa
	3. Udal-ordezkariek, jai-eragileak eta herritarrak oro har, jaiak berdintasunaren ikuspegitik lantzearen garrantziaz jabetzea.	A3. Trebakuntza eta sentsibilizazioa
	4. Jaien antolaketan, Kultura eta Berdintasun sailen eta mugimendu feministaren arteko elkarlana sustatzea.	A4. Lankidetzak
	5. Jai-batzorde parte-hartzaileak eta berdinzaleak eraikitzea.	A5. Jai Batzordea
2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA JAIEN GARAPENEAN	6. Jaietako ekimenetan nahiz sortzen diren pertsonaietan, emakumeen parte-hartzea bermatzea eta genero-rol eta -estereotipoak ezabatzea.	P1. Emakumeen partaidetza jaietan
	7. Kultura, kirola eta gastronomiarekin lotutako jardueretan emakumeen partaidetza ahalbidetzea.	P2. Emakumeen partaidetza arlo zehatzetan
	8. Jaietan zaintza-lanen erantzunkidetasunaren beharraz herritarrak sentsibilizatzea.	P3. Erantzunkidetasuna






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

175.

ARDATZAK	HELBURUAK	ATALAK
	9. Ikastetxeetako jai-ekimenetan nahiz aisialdiko jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.	P4. Hezkidetzak
3. INDARKERIA MATXISTA	10. Jai-eragileak nahiz herritarrak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzea, eta jaietan indarkeriaren inguruko prebentzioa lantzea.	I1. Prebentzioa eta sentsibilizazioa
	11. Jaietan indarkeria matxista jasan duten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea.	I2. Arreta hobetzea





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

176.

4.2. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

Ondorengo tauletan ardatz bakoitzarekin lotutako atalak, eta horiek garatzeko zehaztutako ekimen-sortak jasotzen dira¹⁴:


ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
1. JAIEN ANTOLAKETA	A1. UDALAREN JARDUERA	A1.1 ¹⁵ . Udalak jaietan antolatzen dituen jardueretan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatzeko honako neurri hauek hartzea: 1) Hartutako konpromisoa jasotzen duen agiria sinatzea

¹⁴ OHARRA: Neurri horiek udalerrri nahiz herri mailan garatuko diren, arduradunak zeintzuk diren, zer lehentasun-maila duten eta zenbateko aurrekontua daukaten jakiteko, ondorengo artxiboa ikus dezakezu:



Oarsoaldea_Plangint
za.xls

¹⁵ Ekimen hauek zerrendatzeko erabilitako zenbakiak ez datoz bat excelekoekin; izan ere, excelen ekimenak herrika jaso ditugu, eta word-eko bertsioan ez.






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

177.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		2) Agerraldi guztietan ordezkari-tza parekidea bermatzea 3) Sexu-aldagia txertatzea pertsonen datuak jasotzen diren dokumentuetan
		A1.2. Berdintasun-irizpide horiek betetzen direla ziurtatzeko jarraipenerako mekanismoak ezartzea. Adibidez, jaien bukaeran zehaztutako irizpideen betetze-maila aztertzea.
		A1.3. Udalak egiten dituen kontratazioetan eta diru-laguntza deialdietan berdintasun-irizpideak zehaztea. Adibidez, ordezkari-tza orekatua (60/40 proportziora) bermatzea, komunikazio ez-sexista erabiltzea, elkarteek berdintasuna bultzatzeko zer neurri hartuko duten zehaztea, etab.
		A1.4. Udalek egindako kanpaina guztietan genero-ikuspegia txertatua dagoela bermatzea.
	A2. JAIEN ANTOLAKETA ETA PROGRAMAZIOA	A2.1. Errito, espazio eta sinbolo berriak sortzea, jai erakargarriagoa eta partaidetza handiagoa eragiten dituzten jarduerekin batera tradizionalagoak diren jarduerak osatzeko, horiek erabat ordezkatu gabe. A2.2. Jaietan lehiaketa mistoak antolatzea, taldeak generoagatik bereizi gabe eta ekimenak emakumeen eta gizonen interesekoak direla aintzat hartuta. Adibidez, kirol-jardueretan berdintasun-irizpideak zehaztearen ondorioz sortutako talde






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

178.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		<p>mistoek jaietan parte hartzea.</p> <p>A2.3. Emakumeak pilotari ekimena sustatzea.</p> <p>A2.4. Emakumeak protagonistak edo subjektu aktiboak diren taldeekin (musika, antzerkia, etab.) datu-basea sortzea, edota dagoeneko sortuta dauden hainbat egitasmo (Emarock, Gabiltza, etab.) herritarren eskura jartzea, antolatzen dituzten edozein ekimenetan emakumeen partaidetza sustatzeko baliatzeko.</p> <p>A2.5. Madalenetako egitarautik Elizaren ekimenak kentzea.</p> <p>A2.6. Sagardo Egunaren antolaketan herri-eragileak inplikatzeko neurriak hartzea. Adibidez, herritar guztiei irekita egongo den batzorde bat sortzeko aukera aztertzea.</p> <p>A2.7. Jai parekide eta barneratzaileak bermatzeko kontuan hartu beharreko funtsezko irizpideak gida edo "checklist" batean jasotzea, jai-batzordeko kideek eta teknikariek erabili dezaten.</p> <p>A2.8. Jaien antolaketa-lanak eta zereginak genero-ikuspegitik aztertzea, eta identifikatutako hobetu beharrekoak zuzentzeko neurriak hartzea.</p> <p>A2.9. Jaietako ekimenak ikuspegi interseksionaletik antolatzea, ahalik eta herritar</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

179.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		<p>gehienengana eta anintzengana heltzeko: adineko emakumeak, aniztasun funtzionala dutenak, beste jatorri bateko herritarrak, etab. Adibidez, jatorri ezberdinetako herritarrekin antolatzea jaietako ekimen batzuk, euren kultura (musika, dantza, gastronomia...) ezagutarazteko.</p> <p>A2.10. Jaietako ekimenak ikuspegi intersektionaletik antolatzea, ahalik eta herritar gehienengana eta anintzengana heltzeko: adineko emakumeak, aniztasun funtzionala dutenak, beste jatorri bateko herritarrak, etab. Adibidez, jatorri ezberdinetako herritarrekin antolatzea jaietako ekimen batzuk, euren kultura (musika, dantza, gastronomia...) ezagutarazteko: munduko jakien herri-bazkariak antolatzea, emakume etorkinei protagonismoa emanaz.</p> <p>A.2.11. Jaietan ordezkatu edo irudikatu gabeko emakumeen ekarpenak berreskuratzea edo sustatzea jaiak antzolatzeke dauden batzorde guztietan.</p>
	A3. TREBAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIOA	<p>A3.1. Jaiak antzolatzeke dauden batzorde guztietan (inauterietako konpartsak barne) berdintasunaren inguruko berdintasunaren inguruko sensibilizazio-saioak eta baliabideak eskaintzea, Udalak eta mugimendu feministak lankidetzan antolatuta. Sentsibilizazio-saio horiek batzorde bakoitzaren errealitatera egokitutakoak izango dira, eta batzordetaeko kideek inposizio bat bezala ez</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

180.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		bizitzeko moduan eskainiko dira.
		A3.2. Jaiak antolatzeko dauden batzorde guztietan (auzoetako jai-batzordeak barne) berdintasunaren inguruko berdintasunaren inguruko sentsibilizazio-saioak eta baliabideak eskaintzea.
		A3.3. Jaietan berdintasuna sustatzeko eta herritarrak horren beharraz sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea. Adibidez, herritarrei test bidez, jaietan bizi duten sexismo-maila baloratzeko eskatzea.
		A3.4. Jaiak berdintasunaren ikuspegitik lantzearen garrantziaz herritarrak jabetzeko, urtarrilean bertan Jai Batzordean prozesu bat abiatzea diagnostikoa gizarteratzeko eta jaietako programazioan ekimen berriak eta berritzaileak lantzeko.
		A3.5. Ordezkeri politikoak sentsibilizatzeko bereizkeria gertatzen den ekitaldietara edo gunetara (elkartek...) joan ez daitezen.
1. JAIEN ANTOLAKETA	A4. LANKIDETZA	A4.1. Kultura Sailaren, Berdintasun Sailaren eta mugimendu feministaren artean etengabeko harremana egoteko komunikazio-kanalak irekitzea.
	A5. JAI BATZORDEA	A5.1. Xanistebanetako Jai Batzordearen izaera eta funtzionamenduaren inguruan hausnarketa-prozesu kolektibo bat irekitzea, eta pixkanaka, ekintzak koordinatuzetik






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

181.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		<p>ekintzak antolatzen pasatzea.</p> <p>Prozesuan honako hauek hartuko dute parte: Udaleko teknikari eta ordezkari politikoak, Batzordean parte hartzen duten elkarte eta eragileak, nahiz parte hartzen ez duten norbanako, eragile eta elkarteak ("Ttur-ttur", AEK, Oiartzun Irratia, jubilatuen elkarteak, migratzaileak, bertso-eskola...).</p> <p>Adibidez, Jai Batzordea osatzen duten eragile guztien artean ekintza bateratu bat antolatzea urtero, genero-ikuspegia aintzat hartuta.</p>
		<p>A5.2. Jai Batzordean funtzionamendurako arauak zehaztea, balorazio finalari garrantzia emanez.</p>
		<p>A5.3. Jaien antolaketan emakumeen partaidetzari buruzko hausnarketa egitea, berdintasun kontseiluak, emakumeen elkarrekin nahiz mugimendu feministako emakumeak jai-batzordeetan ordezkatuak egotea bermatzeko.</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

182.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA JAIEN GARAPENEAN	P1. EMAKUMEEN PARTAIDETZA JAIETAN	<p>P1.1. Emakumeak ordekatzen dituzten sinboloak bilatzea edo egungoei esanahi berriak ematea, tokian tokiko lanketak bideratuz.</p> <p>P1.2. Jaietan antolatzen diren ekimenak aztertzea, batez ere tradizioarekin lotutakoak eta genero-rol bereizketa nabarmena egiten dutenak, eta horiek berdinzaleagoak izan daitezzen neurriak martxan jartzea; besteak beste, hauei erreparatuz: ekimen horietan emakumeen parte-hartzea nolakoa den, genero-ikuspegitik rolak nola banatzen diren, etab. Adibidez, elkarte gastronomikoetako partaideak (Madalenetako bakailao txapelketan parte hartzen dutenak, esate baterako) lehiaketetara era mistoan aurkeztea sustatzeko neurriak hartzea.</p> <p>P1.3. Jaietan antolatzen diren ekimenak aztertzea, batez ere tradizioarekin lotutakoak eta genero-rol bereizketa nabarmena egiten dutenak, eta horiek berdinzaleagoak izan daitezzen neurriak martxan jartzea; besteak beste, hauei erreparatuz: ekimen horietan emakumeen parte-hartzea nolakoa den, genero-ikuspegitik rolak nola banatzen diren, etab. Kasu batzuetan, dagoeneko antolatzen diren jardueretan (pilota-txapelketan, herri-kiroletan, etab.) emakumeekin osatutako taldeak programatu beharko dira, eta beste batzuetan, aldiz, inoiz antolatu gabeko</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

183.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		ekimenak programatu beharko dira, emakumeen gaitasunak, jakintzak, abileziak... ikusarazteko.
		P1.4. Jaietan antolatzen diren ekimenak aztertzea, batez ere tradizioarekin lotutakoak eta genero-rol bereizketa nabarmena egiten dutenak, eta horiek berdinzaleagoak izan daitezen neurriak martxan jartzea; besteak beste, hauei erreparatuz: ekimen horietan emakumeen parte-hartzea nolakoa den, genero-ikuspegitik rolak nola banatzen diren, etab. Adibidez, futbola ardatza den ekimenetan parekidetasuna sustatzeko neurriak proposatzea, lehiakortasuna ekiditeko; edota Trintxerpen danborraden inguruko hausnarketa egitea.
		P1.5. Elkarte gastronomiko guztietan emakumeek bazkide izateko eskubidea izan dezaten lan egitea.
		P1.6. Jaietan sortutako pertsonaiak aztertzeko hausnarketa egitea. Adibidez, Zabarreren inguruko genero-hausnarketa egitea.
		P1.7. Jaietan sortutako pertsonaiak aztertuko dituen hausnarketa-gunea sortzea gaien adituak diren pertsonekin, sorkuntzatik pertsonai parekideagoak proposatzeko.






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

184.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
	P2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA ARLO ZEHATZETAN	<p>P1.8. Jaietan sortutako pertsonaiak aztertzeo hausnarketa egitea, sorkuntzatik pertsonai parekideagoak proposatzeko. Adibidez, San Pedroko haurren iñude eta artzaietan rola banatzeko orduan generoa alde batera utzita, erraldoi eta buruhanundien pertsonaiak sexurik gabekoak izatea sustatuta...</p> <p>P2.1. Jaietako egitarauetan emakumeek egiten dituzten-kirol jarduerak sartzea.</p> <p>P2.2. Emakumeentzako kirol jardunaldiak bultzatzea, emakumeen kirol praktika ikusgarri egiteko.</p> <p>P2.3. Jaietarako musika-taldeak kontratatzerakoan, talde horien sexu-eraketa kontuan hartzea eta, ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen presentzia orekatzen saiatzea.</p> <p>P2.4. Musika-eskaintzak sustatzen dituen edukiak, balioak eta ereduak genero-ikuspegitik aztertzea. Adibidez, kantuen hitzak, taldeak aurkezteko moduak, kartelak, etab.</p> <p>P2.5. Musika-eskoletan, esperientzia pilotuak martxan jartzea neskak eta mutilak bultzatzeko normalean beste sexuarentzako egokitutako hartutako musika-tresnak proba ditzaten, eta kideen artean emakumeak ere badauzkaten musika-taldeen sorrera sustatzeko.</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

185.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		<p>P2.6. Sukaldaritza-jarduerak sustatzea sukaldaritza pribatua-femeninoa/ sukaldaritza publikoa-maskulinoa banaketa hausteko. Esate baterako, gozogintza lehiaketak antolatzea, eremu honetan emakumeak iaioagoak baitira, kategoria femeninoak eta maskulinoak eginez, eta baita adinen arabera ere, emakumeek dakiten guztia erakutsi ahal izan dezaten eta, bide batez, gizonezkoak ere –haurrak, gazteak eta helduak- tradizionalki emakumeen jardueratzat hartu izan den horretara animatzeko.</p> <p>P2.7. Kultur-jarduerak antolatzerakoan, emakumeen lanak programatzea; adibidez, espazio propioak sortzea edota dagoeneko daudenetan emakume sortzaileen presentzia bermatzea.</p>
	P3. ERANTZUNKIDETASUNA	<p>P3.1. Jaietan zaintza-lanen erantzunkidetasunaren beharraren inguruko sentsibilizazioa lantzea. Adibidez, jaietan emakumeek egindako zaintza-lanak balioan jartzeko ekimenak antolatzea.</p> <p>P3.2. Haurrentzat programatutako ekimenetan aiten parte-hartzea bultzatzeko neurriak hartzea, besteak beste, amek aisialdiaz gozatzeko aukera gehiago edukitzeko.</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

186.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
	P4. HEZKIDETZA	<p>P4.1. Ikastetxeetan (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, adibidez) jaiak eta berdintasunaren inguruko unitate didaktikoa lantzea, herriko kasu errealak landuz eta horien gainean hausnartuz.</p> <p>P4.2. Ikastetxeetan antolatzen diren jai-giroko ekintza guztietan (Santo Tomas, gabonak, inauteriak, Euskararen Eguna...) genero-ikuspegia txertatzea.</p> <p>P4.3. Eskolaz kanpoko jardueretan eta aisialdian (Kuadrilategi, ludoteka...) genero-berdintasunaren ikuspegia bermatzea.</p>






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

187.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
3. INDARKERIA MATXISTA	1.1. PREBENTZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	1.1.1. Jaietan indarkeria matxistaren inguruko prebentzio-ekimenak martxan jartzea. Adibidez, gauetan etxera itzultzeko autobus-zerbitzua eskaintzea: emakumeentzako autobus librea edo mistoa izatea, gauetan taxia merkeago jartzea, etab.
		1.1.2. Jaietan indarkeria matxistaren inguruko prebentzio-ekimenak martxan jartzea. Adibidez, jaien aurretik ikastetxeetan ere lanketa bereziak egitea, edota etxera buetlatzeko brigada moreak antolatzea.
		1.1.3. Jaietan indarkeria matxistaren inguruko prebentzio-ekimenak martxan jartzea. Adibidez, gauetan etxera itzultzeko autobus-zerbitzua eskaintzea: emakumeentzako autobus librea edo mistoa izatea, gauetan taxia merkeago jartzea, etab.
		1.1.4. Jaietan indarkeria matxistaren inguruko prebentzio-ekimenak martxan jartzea. Adibidez, gauetan etxera itzultzeko brigada moreak antolatzea.
		1.1.5. Auzo guztietako jai-batzordeetako kideak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak egitea.
		1.1.6. Jai-batzordeko kideak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak egitea.






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

188.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
		l1.7. Barruti guztietako jai-batzordeetako kideak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko ekimenak egitea.
		l1.8. Herriko tabernariekin berariazko sentsibilizazio-lana egitea. Adibidez, berdintasunarekiko konpromiso publikoki agertzea, musika ez-sexista bermatzea, etab.
		l1.9. Jaietan gazteentzat jarduerak antolatzen dituzten eragileek berdintasun-gaietan formakuntza- eta sentsibilizazio-saiok jasotzea.
		l1.10. Nerabe eta gazteek parte hartzen duten hainbat gune informaletan (Kuadrilategi, ludoteka, kirol-elkartek, aisialdi-taldeak...) nahiz formaletan (ikastetxeetan) indarkeria matxista lantzea, eta hezitzaileak gaien trebatuta daudela bermatzea.
		l1.11. Sentsibilizaziorako material berriak sortzea, kalitate hobegokoak eta erakargarriagoak. Adibidez, komertzio eta tabernekin indarkeriaren kontra duten konpromisoa ikusarazteko pegatinak sortzea.
		l1.12. Jaietako espazioak pentsatu edo diseinatzean, txosnak eta bestelako guneen kokapena zehazterakoan, honako hauek kontutan izatea: ikusteko eta ikusiak






4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

189.

ARDATZA	ATALA	EKIMENAK
	I2. ARRETA HOBETZEA	<p>izateko aukera, entzuteko eta entzunak izateko aukera, laguntza lortzeko aukera izatea</p> <p>I2.1. Jaietan indarkeria matxistaren inguruko informazio-gunea jartzea herriko enparantzan 24 orduz informazioa eskuratzeko, erasoak salatzen, etab.</p> <p>I2.2. Eraso sexistak jasan dituzten emakumeentzako arreta-zerbitzua egotea udaletxean.</p> <p>I2.3. Indarkeria matxistari aurre egiteko jaietako protokoloak herriko jai guztietara eta auzo guztietara zabaltzea. Adibidez, protokoloa jaietako programan txertatzea.</p>





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana


4.3. Planaren kudeaketa-eredua

Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Planak guztira **92 ekimen** jasotzen ditu. Ekimen horietako batzuk Oarsoaldea mailan landuko dira, hau da, udalerri guztietan garatuko dira; beste batzuk, aldiz, udalerri mailan.

Taula honetan jaso dugu Oarsoaldean eta udalerrietan garatuko diren ekimen-kopurua, ardatzen arabera banatuta:

Ardatza	Oarsoaldea	Errenteria	Lezo	Oiartzun	Pasaia	Guztira
Jaien antolaketa	9	8	5	8	3	33
Emakumeen partaidetza jaien garapenean	2	10	7	13	2	34
Indarkeria matxista	1	8	5	7	4	25
Guztira	12	26	17	28	9	92

Taulan ikusten den bezala, ardatz bakoitzeko neurri-kopurua nahiko orekatua bada ere, ez da gauza bera gertatzen udalerriei dagokienez. Oarsoaldea mailan garatu beharreko ekimenak guztira 9 dira, eta, udalerriei dagokienez, Oiartzun eta Errenteria dira ekimen-kopuru handiena duten udalerriak, 28 eta 26 ekimenekin, hurrenez hurren; eta, Lezo eta Pasaia dira ekimen-kopuru txikiena dutenak, 17 eta 9 ekimenekin, hurrenez hurren.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

Plazaratutako helburuak eta Plana orokortasunean garatzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak dira, eta hauetako bakoitzak bere funtzioak izango ditu. Udalerrien kasuan, udaletako Berdintasun eta Kultura sailak izango dira Planaren garapen egokia bermatuko dutenak, eta garrantzitsua izango da oso bi sailen arteko koordinazioa egotea, Planaren garapen eta segimendu egokia egiteko. Zehazki, funtzio hauek edukiko dituzte:

BERDINTASUN ETA KULTURA SAILAK

Planaren garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea

Funtzioak	Parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none">• Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekimenak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan• Planak eta herritarrek proposatutako ekimen eta helburu zehatzak garatzea• Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea• Helburu eta denboren betetze-mailaren segimendua egitea• Beharrezkoa bada, neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea• Planaren komunikazioa egitea• Planaren garapenerako sortutako koordinazio-guneak dinamizatzea eta bertan parte hartzea• Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea• Planaren ebaluazioa egitea	<ul style="list-style-type: none">• Berdintasun-teknikariak• Kultura teknikariak





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

Gainera, eskualde mailan sortutako Plana izan denez, eskualdean dagoeneko indarrean dauden egituretatik egin beharko zaio segimendua Planari, beste gune batzuk sortu ordez. Jarraian, egitura horiek eta funtzioak azaltzen ditugu:

OARSOALDEKO BERDINTASUNEN MAHAI TEKNIKOAK	
Planaren garapen tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere	
Funtzioak	Parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none">• Planaren testuinguruan aurrera eramango diren ekintza guztiak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan• Udaletako teknikariei genero-ikuspegiarekin lan egin dezaten laguntza eskaintzea, izan ditzaketen zalantzei edo kezkei erantzuna emanez• Udaletako teknikariei nahiz jai-eragileei trebakuntza eskaintzea• Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena egitea; egindako jarduerari, erabilitako bitartekoei eta baliabideen jarraipenari buruzkoa, eta Planaren aurreikusitako helburuak bete ote diren egiaztatzeko balorazioarekin	<ul style="list-style-type: none">• Berdintasun-teknikariak• Kultur teknikariak

Oarsoaldeko Berdintasuneko Mahai Teknikoan berdintasunaren ardura duten teknikariek parte hartu ohi badute ere, Plan honen segimendua egiteko gune hori bera baliatzea proposatzen dugu. Horrela, urtean gutxienez 4 bileretan kultur teknikariek ere Mahaian parte hartzea proposatzen dugu, Planarekin lotutako aipatutako funtzioak betetzeko.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

Bestalde, maila politikoan ere Planari segimendua egitea ezinbestekoa da. Horretarako, dagoeneko sortuta dagoen koordinaziorako batzordea baliatzea proposatzen dugu, bertan berdintasuneko ordezkari politikoez gain, kultur arloko ordezkari politikoez ere parte hartzen dutelako.

OARSOALDEKO BERDINTASUNEN MAHAI POLITIKOA	
Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa bermatzea	
Funtzioak	Parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none">• Planean zehazten diren ekintzak gauzatzeko bitartekoak jartzea• Planaren helburuen betetze-mailaren jarraipena eta kontrol politikoa egitea• Beharrezkoa bada, neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea• Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea	<ul style="list-style-type: none">• Berdintasun-zinegotziak• Kultur zinegotziak





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

4.4. Planean jasotako ekintzen garapenerako aurrekontu estimazioa

Hau da eskualde-mailan eta udalerriko Planaren garapenerako aurreikusi den aurrekontua:

	ERRENTERIA	LEZO	OAIRTZUN	PASAIA	GUZTIRA
ESKUALDE-MAILAN	16000	16000	16000	16000	64.000 €
UDALERRIAN	15.800 €	10.600 €	60.800 €	3.000 €	90.200 €
GUZTIRA	31.800 €	26.600 €	76.800 €	19.000 €	154.200 €

Aurreikusitakoaren arabera, Oiartzunek beharko luke inbertsiorik handiena, zentzu honetan kontutan izan beharrekoa da Oiartzunek ez duela Berdintasunerako bestelako tresnarik (planik) eta beraz plangintza honetan jaso direla berdintasunari lotutako beharrezko jotzen diren hainbat ekimen garrantzitsu. Aurrekonturik txikiena, Pasaia izango luke eta hein handi batetan eskualde-mailako dinamikan zentratutako plangintza planteatu baitute (udalerrirako 9 ekintzetako plana dute, eta gainontzeko udalerriek 19tik gorakoa dute).

4.5. Ebaluazio-sistema

Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana **urteko planen** bidez antolatu eta garatuko da. Urte bakoitzaren hasieran, urte horretan **martxan jarriko diren neurriak** identifikatu eta planifikatuko dira, eta neurrien **aurrekontua** ere zehaztua egongo da. Urte amaieran, egindakoa eta egin gabekoa (urteko balantzea)





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

baloratuko da, eta urte batzuetarako Plana dela kontuan hartuz, hurrengo urteko plana egokituko da.

Era honetan, urteko planak eta hauen aurrekontuak **ebaluazioarekin lotura** estua izango dute. Aipatutako ebaluazioa, sortuko diren egitura guztietan egingo da urtea amaitu aurretik.

Zer lortuko dugu ebaluazio-ereduari esker?

- Plana aplikatzearen **emaitzak** ezagutzea.
- Eamitza horiek Planean zehazturiko **irizpideen arabera** baloratzea.
- Planaren neurriekin berekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako **arazoak detektatzea**.
- Geroko planak aplikatzeko **gomendioak** ezartzea.
- Informazio interesgarria egituratzea eta erreferentzia izan daitezkeen **adierazleak** zehaztea.

Ebaluazio-ereduaren ezaugarriak honakoak dira:

- **Ebaluazio mistoa** da, urteko balantzea aurkeztu eta kontrastatuko delako Oarsoaldeko Berdintasunerako Mahaiak eskualdeko kultur teknikariekin egingo duen urte bakoitzeko azken bileran.
- **Etengabeko ebaluazioa** da, neurri bakoitza amaitu ondoren, arduradunek eta inplikaturiko pertsonak ekintzon garapenean izandako lorpenak eta zailtasunak baloratuko dituztelako, eta informazioa urteko balantzean jasoko da. Hartara, neurri bakoitzak adierazle-sorta du. Adierazle horiek zer neurtu behar den adieraziko dute, eta berdintasunaren garapena interpretatzen lagunduko dute. Neurri bakoitzerako ebaluazio-datuak jaso beharko dira neurriaren emaitzak jasotzeko, eta urteko balantzean gehitzeko.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

196.

⇒ **Emaitzak gehituz egingo den ebaluazioa** da, zeren eginiko prozesu guztiak laburbilduko baitira, eta guztizko emaitzen balorazio orokorra eta azkena emango baita.

⇒ **Emaitzen ebaluazioa** da, neurrien eta ondorioen azterketa egin beharko baita.

⇒ Eta azkenean, Plana amaitzerakoan **ebaluazio zabalago bat** egingo da, bai Planaren betetze-maila, baita horren emaitzak eta eskualdean izan duen inpaktua neurtzeko ere.

Planaren kudeaketa eta **ebaluazio egokirako excell-eko tresna** sortu dugu, urtez urte Planaren jarraipen eraginkorra egitea ahalbidetuko duena, eta tresna bizia izan dadin lagundu nahi duena.

4.6. Jarraipenerako adierazleak

Horrez gain, **adierazle-bateria** bat sortu dugu plangintzaren bidez lortu nahi dituguen helburuen betetze-mailari lotutako adierazleekin. Horrela, udalerrietako arduradunek neurri bakoitzarekin lotutako hiru adierazle hautatu beharko dituzte, neurriak eduki duen inpaktuaren berri emateko. Honakoak dira adierazle horiek:

- Hartzaile-kopuru emakumezkoak
- Hartzaile-kopuru gizonezkoak
- Ordu-kopurua
- Ekimen-kopurua





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

197.

- Esku-hartzeen kopurua
- Zehaztutako irizpide-kopurua
- Lankidetzan aritutako eragile-kopurua
- Parte hartu duten elkarten kopurua
- Egindako bilera-kopurua
- Egindako inbertsioa/gastua
- Landutako dokumentu-kopurua (% guztiekiko)

Jarraian ardatz bakoitzeko helburuen betetze-mailan oinarritutako inpaktu-adierazleak jaso ditugu, ardatz bakoitzeko 3 adierazle sortu ditugu:





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

198.

ARDATZAK	HELBURUAK	ADIERAZLEAK
1. JAIEN ANTOLAKETA	<ol style="list-style-type: none">1. Jaiekin lotutako udal-jardueran genero-ikuspegia txertatzea.2. Jaien antolaketa berdinzalea sustatzea, jai parekide eta barneratzaileak lortzeko.3. Udal-ordezkariek, jai-eragileak eta herritarrak oro har, jaiak berdintasunaren ikuspegitik lantzearen garrantziaz jabetzea.4. Jaien antolaketan, Kultura eta Berdintasun sailen eta mugimendu feministaren arteko elkarlana sustatzea.5. Jai-batzorde parte-hartzaileak eta berdinzaleak eraikitzea.	<ul style="list-style-type: none">• Jaien antolaketarako egituretan eragile feministek parte hartzea (BAI/EZ).• Jaien antolaketarako egituretako funtzionamenduan genero-ikuspegia txertatzeko egindako aldaketak.• Jaien antolaketan berdintasuna txertatze aldera landutako irizpide berriak.





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

199.

ARDATZAK	HELBURUAK	ADIERAZLEAK
2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA JAIEN GARAPENEAN	6. Jaietako ekimenetan nahiz sortzen diren pertsonaietan, emakumeen parte-hartzea bermatzea eta genero-rol eta – estereotipoak ezabatzea.	<ul style="list-style-type: none">• Genero-rol eta-estereotipoak iraultzen dituzten ekimen eta pertsonai kopurua ekimen/pertsonai totalarekiko. (udalak zein ikastetxeek antolatutakoak)• Kultura, kirol eta gastronomiari lotutako ekimenen partaidetza datuak (emakumezko kop. totalarekiko)• Zaintza-lanen erantzunkidetasunaz sentsibilizatzeko egindako kanpaina kop.eta kanpainaren berri izan duten pertsonen kop. eta perfila (sexua eta adina)
	7. Kultura, kirola eta gastronomiarekin lotutako jardueretan emakumeen partaidetza ahalbidetzea.	
	8. Jaietan zaintza-lanen erantzunkidetasunaren beharraz herritarrak sentsibilizatzea.	
	9. Ikastetxeetako jai-ekimenetan nahiz aisialdiko jardueretan genero-ikuspegia txertatzea.	





4. Oarsoaldeko Jaiak Parekideak eta Barneratzaileak izateko Plana

200.

ARDATZAK	HELBURUAK	ADIERAZLEAK
3. INDARKERIA MATXISTA	10. Jai-eragileak nahiz herritarrak indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzea, eta jaietan indarkeriaren inguruko prebentzioa lantzea.	<ul style="list-style-type: none">• Jaietan indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatzeko eta prebentzioa lantzeko antolatutako ekimen kop. jai kop. totalarekiko.• Jaietan indarkeria matxista jasan duten emakumeen kop. babes eta arreta osoa bermatuta izan dutenekiko.• Babes eta arreta osoa bermatzeko martxan jarritako ekimen kop.
	11. Jaietan indarkeria matxista jasan duten emakumeei babes eta arreta osoa bermatzea.	

